



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

**KULTURARTEKOTASUNAREN GARRANTZIA  
ETA PRESENTZIA AZTERTUZ: TOLOSALDEKO  
HIRU IKASTETXEREN ETA BERTAN  
ERABILTZEN DIREN TESTU LIBURUEN  
ANALISIA  
GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Larrea Lazcano, Eñaut.

ZUZENDARIA: Reguero Ugarte, Urtzi.

**2019/2020**

## LABURPENA

Egun, geroz eta gizarte globalizatuago batean bizi gara. Jada, ohikoa bihurtu da munduko edozein txokotako biztanleak edonon topatzea. Horrela, aniztasuna Euskal Herrira ere iritsi da eta ikastetxea da horren isla argia. Bertan, kultura ezberdinetako ikasleek elkarrekin ikasten dute eta aniztasun hori guztiz aberasgarria bada ere, beharrezkoa da kultur-aniztasuna, irudikapen hutsalean ez geratzea eta kulturartekotasunaren lanketa egokia bat aurrera eramatea.

Lan honen bitartez, kulturartekotasunak duen presentzia eta garrantzia aztertu nahi da, ikastetxe eta bertan erabiltzen diren material desberdinetan, testu liburuak kasu. Horretarako, alde batetik, galdetegi baten bitartez, Gipuzkoako Tolosaldea eskualdeko hiru ikastetxeren datuak aztertu dira, presentzia eta garrantzia horren berri izan asmoz. Beste aldetik, Lehen Hezkuntzako hiru argitaletxe desberdinen testu liburuak aztertu dira, guztira 12, kulturartekotasunak duen presentziaren inguruko datuak jasoaz. Amaitzeko, galdetegien eta testu liburuen azterketetatik ateratako hutsuneei erantzuna emateko, kulturartekotasunaren lanketa bultzatzen duen esku hartze didaktiko baten proposamena jaso da.

**Hitz gakoak:** gizartea, aniztasuna, kulturartekotasuna, aberastasuna, ikastetxea, Lehen Hezkuntza, galdetegia, testu liburuak eta esku hartze didaktikoa.

## RESUMEN

Vivimos en una sociedad globalizada. Tanto que cada vez es más habitual coincidir o encontrarse con gente de cualquier rincón del mundo. Así pues, la diversidad también ha llegado al País Vasco y claro ejemplo de ello son los centros educativos. En ellos, conviven alumnos y alumnas pertenecientes a diferentes culturas y aunque sea enriquecedor, no debe quedarse en una representación efímera. Es, por tanto, indispensable que la diversidad cultural o la interculturalidad sean parte del proceso educativo y se trabajen dentro del aula.

Este trabajo pretende analizar y evidenciar la importancia de la interculturalidad tanto el centro educativo como en los soportes, materiales educativos, libros de texto, etc. empleados en él. Para ello, por una parte, se han analizado a través de un cuestionario tres centros de la zona geográfica de Tolosaldea, ubicado en Gipuzkoa. Por otra parte, se han examinado 12 libros de texto de Educación Primaria pertenecientes a tres editoriales diferentes con el objetivo de analizar la presencia de

la interculturalidad en ellos. Para finalizar, dadas las carencias y necesidades detectadas en los cuestionarios y libros de textos analizados, se ha propuesto una intervención didáctica que fomente la interculturalidad.

**Palabras clave:** sociedad, diversidad, interculturalidad, riqueza, centro educativo, Educación Primaria, cuestionario, libros de texto, intervención didáctica.

## **ABSTRACT**

These days, we are part of a globalized society. So much so that it is easy to bump into people from all over the world. Knowing so, diversity has also arrived to the Basque Country and schools are the best example of it. Students from different countries and cultures coexist and live together there, which is a sign of coeducation and interculturalism. But this should not only be an ephemeral representation, but part of an educational process. So, as whole, it is deeply important to work within the classroom the importance of cultural diversity.

The aim of this work is to analyze and evince the importance of interculturalism in schools and in various foundations or supports used there, such as workbooks, in particular, or diverse educational materials, in general. This work consists of two parts. On the one hand, three different schools located in the area of Tolosaldea, in Gipuzkoa, have been analyzed through a questionnaire. On the other hand, 12 workbooks from Elementary Education (belonging to three different publishing houses) have been examined in order to study the presence and importance of interculturalism in them. Finally, there has been posed and set out a didactic intervention which encourages and promotes interculturalism, taking especially into consideration the needs and gaps detected in the questionnaires and the examined workbooks throughout this process.

**Key words:** society, diversity, interculturalism, wealth, school, Elementary Education, questionnaire, workbooks, didactic intervention.

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA</b> .....	<b>5</b>
<b>2. MARKO TEORIKOA</b> .....	<b>6</b>
<b>3. LANAREN HELBURUAK</b> .....	<b>10</b>
<b>4. METODOLOGIA</b> .....	<b>10</b>
4.1. Galdetegia .....	11
4.2. Testu liburuen azterketa.....	11
4.3. Esku hartze didaktikoa .....	12
<b>5. EMAITZAK</b> .....	<b>13</b>
<b>5.1. Galdetegiaren emaitzak</b> .....	<b>13</b>
5.1.1. Ikaztegietako Herri Eskola .....	13
5.1.2. Alegiako Herri Eskola.....	15
5.1.3. Tolosako Samaniego ikastetxea .....	16
<b>5.2. Testu liburuen azterketaren emaitzak</b> .....	<b>17</b>
5.2.1. Santillana argitaletxeko testu liburuak.....	17
5.2.2. Eki Proiektuko testu liburuak .....	23
5.2.3. Txanela proiektuko testu liburuak .....	25
5.2.4. Irudien analisisa.....	28
<b>5.3. Esku hartze didaktikoa</b> .....	<b>29</b>
<b>6. ONDORIOAK</b> .....	<b>36</b>
<b>7. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK</b> .....	<b>39</b>
<b>8. ERREFERENTZIAK</b> .....	<b>41</b>
<b>9. ERANSKINAK</b> .....	<b>45</b>
<b>I. Galdetegia</b> .....	<b>45</b>
<b>II. Ikastetxe desberdinetako galdetegiaren emaitzak</b> .....	<b>47</b>
II.I Ikaztegietako Herri Eskola.....	47
II.II Alegiako Herri Eskola .....	58
II.III Tolosako Samaniego ikastetxea .....	68
<b>III. Argitaletxe desberdinetako testu liburuen azterketak osorik</b> .....	<b>78</b>
III.I Santillana argitaletxeko testu liburuak .....	78

III.II Eki proiektuko testu liburuak .....	94
III.III Txanela proiektuko testu liburuak .....	99
<b>IV. Saio bakoitza aurrera eramateko beharko den informazio eta materiala..</b>	<b>105</b>

## 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Herri txiki batean jaio nintzen duela bi hamarkada eta bertan bizitzen jarraitzen dut, nahiz eta Irakasle Eskolako ikasketak hasi nituenean Gasteizen egon hiru urtez bizitzen. Herri honek badu bere eskola, kasu honetan txikia eta Eskola Txikien elkarteko kide da aspaldidanik.

Ikaztegietako Eskola Txikian hasi nituen ikasketak, baina adinak behartuta, eskola desberdinetatik pasatzen joan naiz, egungo Hezkuntza eta Kirol Fakultatera iritsi arte. Etapa desberdin hauetan, nire identitatea, nire iritziak, nire kezkek, nire jarrerak... aldatzen joan dira. Laburbilduz, gauza askotan aldatu naiz. Aldi berean, gizartea ere nola aldatzen joan den bizi izan dut.

Aldaketa hau herriko biztanlerian islatuta ikusi dut. Egun askoz ere koloretsuagoa da. Bertan, jatorri ezberdinetatik etorritako zenbait familia bizi dira eta hau, plazara irtete hutsarekin nabari da. Hala ere, errealitate pozgarri hau, niretzat modu nahiko oharkabean pasa da. Hau da, pertsona hauek benetan bizi duten errealitatearen berri Gasteizen izan dut, zehazki praktiketara joan nintzen lehen urtean.

Praktiketako lehen urtea, Gasteizko Aranbizkarra Ikastolan egokitu zitzaidan egitea eta bertan, ordura arte ikusitakotik urrun zegoen errealitatearekin topatu nintzen. Asko balio izan zidan praktika aldi honek, eta irakaspen asko atera nituen bertatik. Finean, beraiek benetan bizi duten errealitatea gertutik ezagutu nuen.

Ondorengo bi praktikaaldiak, bat berriz ere Gasteizen baina kasu honetan Toki Eder Ikastolan eta bestea berriz Irurako Ikastolan egitea tokatu zitzaidan. Jada errealitate honetan askoz ere jantziago nintzela bertaratu nintzen. Hala ere, hiru praktikaaldiak, kezka berdinekin amaitu nituen: gainerako kulturak ez ziren kontuan hartzen eta erreferentzia bat egiten bazen, modu nahiko exotikoan aurkezten ziren.

Horrez gain, bada praktika guztietan antzeman dudan beste ezaugarri bat: testu liburuaren gehiegizko erabilpena. Egunero, testu liburuak jarraituz irakasten ziren edukiak eta hortik kanpoko baliabide gutxi erabiltzen ziren. Egia esanda honek harridura eragin zidan, izan ere, nik nire Lehen Hezkuntzako garaian apenas erabiltzen nituen testu liburuak.

Lan hau egitea egokitu zitzaidanean eta aukeratutako gaia azterturik, interesgarria iruditu zitzaidan aurrez aipatutako bi kezka horiek uztarturik aztertzea. Nire garaian, badakit testu liburuek apenas egiten ziotela erreferentzia bestelako

kulturei. Egungoekin ordea, zalantza gehiago etorri zitzaizkidan. Horregatik, kezka nagusi horietatik abiatuta pasa naiz ikertzera lan honen funtsa.

Hori horrela, lana bi zatitan banatu da: lehendabizi, alderdi teorikoa egin da eta ondoren alderdi praktikoa. Alderdi teorikoaren kasuan, egungo gizartea geroz eta koloretsuagoa dela erakusten duten datuak bildu dira. Ondoren, eskolak instituzio modura, pertsona hauen hezkuntza eta gizarteratzean duen garrantzia azpimarratu da. Amaitzeko, adituek, kulturartekotasunak ikastetxe eta erabiltzen diren testu liburuetan duten presentziaren berri ematen duten ideia nagusiak bildu dira. Laburbilduz, egun kulturartekotasunak zein egoera eta presentzia bizi duen ikastetxe mailan erakusten zaio irakurlari.

Behin adituek azpimarraturiko oinarri teoriko hauek jasota, alderdi praktikoa antolatze eta egikaritzeari ekin zaio. Horretarako, lanaren helburuak finkatu eta jarraitu beharreko lan ildoak zehaztu dira. Beraz, hiru pausu eta emaitza desberdin bildu dira lanean: lehenik eta behin, zenbait adituk osaturiko galdetegi desberdinak erreferentziatzat izanik, galdetegi bat osatu eta Tolosaldeko lau ikastetxetan (Tolosako Laskorain Ikastolan galdetegia pasa arren, ez dut erantzunik jaso) pasa da, kulturartekotasunaren garrantzia eta presentzia aztertzeko; ondoren, kulturartekotasunak egungo testu liburuetan duen garrantzia jaso da, galdera eragile nagusi bati jarraituz; azkenik, galdetegi eta testu liburuen azterketetan aurkituriko hutsuneetatik abiatuta esku hartze didaktiko baten proposamena egin da.

Amaieran, egindako ikerketatik ateratarako ondorio nagusiak eta hobekuntza proposamenak biltzen dira, etorkizunean ikerketaren jarraitu nahi duen edonori gutxiengo oinarriak eta indartu beharreko atalak ikusaraziz.

## **2. MARKO TEORIKOA**

Amelia Barquinek 2009. urterako aurreratu zuen hezkuntza sisteman aldaketa bat nabaritzen hasia zela. Euskal gizartera, Espainiar Estatutik kanpo bizi ziren etorkinak iritsi ziren eta hauek, EAE-ko hiru ereduetan hasi ziren eskolaratzen. Eskolaratze honek ikastetxe eta geletan kultura bat baina gehiago egotea ekarri zuen eta kultura hauei, lehen baina trataera handiago eskaini beharko zitzaien.

Inork ezin du ukatu ordutik gizartea aldatzen joan dela eta jada, ia gela guztietan ohikoa dela etorkinen seme – alabaren bat ikustea. Horretaz jabetzeko, datuei erreparatu besterik ez zaie egin behar. 1998. urtean, EAE-n, jatorri

atzerritarreko biztanleria 26.334 (%1,3) biztanlekoa zen. 2019. urtean, biztanleria hori, 221.992 (%10,1) pertsonen osatzen zuten (Ikuspegi, 1).

Gipuzkoako datuei begiratuz gero, antzeko igoera bat atzeman daiteke. 1998. urtean, jatorri atzerritarreko biztanleria 5.243 (%0,8) pertsonen osatzen bazuten, 2019. urtean, biztanleria hori 73.473 (%10,2) izatera pasa da (Ikuspegi, 2).

Azkenik, ikerketa burutuko den eskualdeko datuak eskainiko dira, Tolosaldea. Tolosaldean, 2003. urtean, jatorri atzerritarreko biztanleria, 636 lagunek osatzen zuten. 2019. urtean, kopuru hori, 4414 (%8,9) pertsonetara igo da (Ikuspegi, 3).

Datuak aztertuta eta Aierdik (2018) aipatu moduan, ikusi daiteke aniztasuna euskal gizartera geratzeko etorri dela eta euskal gizartearen ezaugarri bat dela. Aniztasunak, gizarteari ez ezik, eskolari ere erronka bat suposatzen dio, batez ere honen trataera egoki bat ematerako orduan.

Aniztasunaren trataeran, hezkuntza sistemak eta, ondorioz ikastetxeek paper oso garrantzitsua jokatzen dute. Eskolak berau osatzen duten ikasle nahiz gurasoei bertako kultura ez ezik gainerako kulturak ere aintzat hartzen dituela baieztatu behar die. Garrantzitsuak direla eta beraien kulturaren alderdi desberdinak jorratuko direla (Coelho, 2016).

Bide horretan, eskola, aniztasun zabal honentzako, instituzio nagusienetarikoa bilatuko da gizarteratzeko orduan. Laguntza beharko dute ziurrenik, kultura, gizarte eta ingurune berri batera egokitzeko. Hor, eskolak era aktibo batean parte hartu beharko du, ahalik eta esperientzia positibo gehien eskainiz (Coelho, 2016).

Eskoletan ordea, aldaketa sozial, politiko, kultural eta ekonomiko azkarrak ari dira gertatzen eta honek talde sozialetan nahasmena eragin du, baita irakasleagoaren artean ere (Torres, 2008).

Nahasmendu hau geletara ere iritsi da; izan ere, egungo curriculumak eta erabiltzen diren materialek ez baitiote erantzuten aurretik aipatu den aniztasun kulturalari. Curriculum eta material eurozentrikoaren ondorioz, ikasle asko ez dira hezkuntza sistemaren parte sentitzen (Coelho, 2016). Izan ere, beraien hizkuntza, kultura, etnia eta ohiturak ez dira agertzen eta agertzen badira, ikasleak ez dira bat etortzen hauen gainean egiten den irudikapen antzuekin (Torres, 2008). Gainera, baliteke askotan erreferentzia hauek oso estereotipatuak agertzea.

Beraz, eskola instituzioek, Coelhok azpimarratutako esperientzia positibo horiek eragin beharrean, esperientzia negatiboak sor ditzakete. Izan ere, aniztasunaren



trataera, material eta ikuspuntu desegoki batetik egiten bada, diskurtso baztertzailerik bat sortu, erreproduzitu eta elikatzen baita ikasleen artean (Coelho, 2016).

Hala ere, diskurtso guztiek ez daukate indar bera. Ereduaren arabera, publiko, pribatu edota pertsonala, eragina handiagoa izango da, publikoak hartuko duelarik indar handiena. Diskurtsoa arrazakeriaren erreprodukzioan garrantzia handia hartzen duen tresna bat da. Aurreiritzi arrazista eta ideologikoak aintzat hartuta, erreprodukzio hori emateko bitarteko nagusi bilakatuz (Van Dijk, 2004).

Egungo gizarte globalizatu honetan, ordea, eskola instituzioetatik kanpo ere diskurtso horiek ematen dira, horretarako, komunikatzeko forma desberdinak erabiltzen direlarik. Etxetik hasita, familiek, lagunek, marrazki bizidunek, pelikulek, komikiek... talde sozial, etniko, arraza eta kulturen inguruko ideia desberdinak aurkezten dituzte, hauen inguruko deskribapenak eginez. Aldi berean, ez da ahaztu behar, transmisio horretan komunikabideek duten indarra (Grasa, 1988).

Eskola eremura bueltatuz, bertako diskurtsoek ere garrantzia handia hartzen dute, batez ere testu liburuen bidez transmititzen direnek (Van Dijk, 2004). Estatu Batuetako Keithek (1984 apud Morales eta Lischinsky, 2008) aipatzen zuen ikasle batek bataz beste bere bizitza akademiko guztian, 1000 liburu inguru kontsultatzen zituela. Murillo Torrecillok (2003 apud Morales eta Lischinsky, 2008) gaineratzen zuen, ikasleen laurden batek, eskoletan lantzen ziren liburuak soilik irakurtzen zituela. Hortik kanpo, beraien kabuz, nekez (Morales eta Lischinsky, 2008).

Beraz, esan daiteke, testu liburuak izaten direla edukien irakaspenerako erabiltzen diren forma nagusienak eskola instituzioetan (Quintanilla, 1996). Ez hori bakarrik, ikasleek jasotzen dituzten balore, ideia, aurreiritzi eta teoria ideologiko gehienak, testu liburuen bitartez jasotzen dituzte. Honek guztiak ideologia menperatzaile bat ekartzen du arraza arloari, genero arloari edota klase generoari erreparatuz gero. Honek, eskoletan erabiltzen diren testu eta antzeko materialak sakon aztertze beharra erakusten du (Morales eta Lischinsky, 2008).

Testu liburuak idazteko, kontzientziazio gradu handi bat behar da. Ikasleei, hezkuntza egoki bat transmititu eta egungo errealitatearen inguruko arazoei buruzko ikuspegi global bat eskaini behar zaie (Grasa, 1988). Baina testu liburuak, gizartean nagusi diren ideologia menperatzaileek diseinatzen dituzte (Van Dijk, 2004).

Botere egitura horietatik, beti esku hartu nahi izan da ezagutzaren produkzio eta orientazioan. Ideologia hauek kultura bakarraren eredua jartzen dute mahai gainean gainerako kulturen errealitatea isilaraziz edota negatiboki epaituz. Espainiako

testu liburu gehienetan, munduaren filosofia modelo bat soilik eskaintzen da. Kultura horren parte, arraza zurikoak, gizonezkoak, helduak, hiritarrak, langileak, katolikoak, klase ertainekoak eta heterosexuak izaten dira. Markatutako irizpide horretatik ateratzen den oro, hala nola emakumeak, etnia zapalduak, kolonizatu diren kulturak etab. ezkutatu egiten dira (Torres, 2008). Van Dijk egileak ere diskurtsoak polarizatzeko joera larri horren berri ematen du (Van Dijk, 2004).

XX. mendearen hasieratik, Bigarren Mundu gerra arte, arrazakeria hau, nahiko modu argian agertzen zen. Egun ordea, testuek arrazakeriaren eta ideologiaren zentsura pasa behar izaten dute eta horregatik modu leun - ezkutuago batean azaltzen da (Morales eta Lischinsky, 2008). Baina, garrantzitsua da azpimarratzea testu liburuetan lantzen diren diskurtsoaren ezaugarri asko nahiz eta ez izan era zuzen batean arrazistak, gaiaren inguruko irudi estereotipatuak eraikitzen laguntzen dutela (Van Dijk, 2004).

Van Dijkek dio, testu liburuetan zantzu arrazista hauek aztertzerik pasa direnean, gehienbat jaso dituzten ezaugarri negatiboak ondorengoak izan direla: bazterkeria; desberdintasunak vs berdintasunak; exotismoa; estereotipoak; kultura nagusiaren auto errepresentazio positiboa; arrazakeriaren ukatzea; ahotsak isilarazi edota ukatzea; testuaren eta irudiaren arteko erlazio zalantzarriak (Van Dijk, 2004).

Azken ezaugarriak testuaren eta irudiaren arteko erlazioaren berri eman du. Morales eta Lischinsky (2008) egileek gogoratzen dute, irudia ere testuaren parte dela. Bide beretik gaineratzen dute, irudiek testuak interpretatzerako orduan joera oso garrantzitsua markatzen dutela eta modu oharkabean, nahiz eta diskurtso berbalaren bidez kontrakoa adierazi nahi, talde baztertuen gaineko ideia, balore, aurreiritzi eta arau okerrak transmititzeko gaina indar duela (Morales eta Lischinsky, 2008).

Nahiz eta testuaren edukiak lehen aipatu moduan arrazakeriaren eta ideologiaren zentsura pasa behar izaten duten, irudiari ez zaio azterketa handirik egiten. Azterketa honek, askoz ere esfortzu teorikoagoa suposatzen du. Horregatik, ongi analizatuz gero, ondorioztatu daiteke irudi bisualen bitartez ere arrazismoa hauspotzen dela (Morales eta Lischinsky, 2008).

Beraz, aipatutako guztiak iradokitzen du, eskoletan erabiltzen diren material didaktiko oro, sakon aztertu behar dela. Ikuspegi berri bat sortu beharko lukete testu liburuak, kulturen arteko elkartzunean, berdintasunean, errespetuan eta antzeko baloreetan oinarritzen dena (Coelho, 2016). Horrez gain, Morales eta Lischinskyk aldarrikatzen dute irakasleen lana ere badela ikasleei modu kritikoa batean irakurtzen

irakastea. Hau da, ez soilik testua irakurtzea, baizik eta testuaren antzean dagoen esanahi hori interpretatzen irakastea (Morales eta Lischinsky, 2008).

Hitzik gutxitan esanda, kulturartekotasunean hezi behar dira ikasleak, gaur egungo gizarte kultur anitz honek islatzen duen moduan (Barquin, 2006). Horretarako, ondorengoa planteatzen du Ameliak:

Gaitasun multzo bat eskuratzeko aukeraz hitz egiten da; prestakuntza hori “balioen hezkuntzan” kokatzen da eta “Herritartasunerako Hezkuntza” (hau da, herritar arduratsu eta solidarioa izateko hezkuntza) planteamendu orokorraren barruan dago. Gatazkaren kudeaketa, gizartean parte hartze aktibo eta kritikoa, aniztasunarekiko errespetua eta estimua... dira alor horretan jorratu behar diren zenbait eduki garrantzitsu (Barquin, 2006).

### **3. LANAREN HELBURUAK**

Lana hiru atal desberdinetan banatuko denez, atal bakoitzak bere helburu propio bat izango du. Hori horrela, hiru helburu nagusi zehaztu dira:

1. Lau ikastetxetan, kulturartekotasunak, ikastetxe mailan nahiz ikasgeletan bizi duen errealitatea eta garrantzia aztertzea. Horretarako, galdetegi bat prestatu eta hiru zatitan banatu da: lehenik, ikastetxeak kulturartekotasuna lantzeko dituen baliabideak aztertuko dira; ondoren, ikasgelan kulturartekotasunaren lanketa nola kudeatzen den aztertuko da; amaitzeko, irakasleak kulturartekotasunaren inguruan jasotako formakuntzaren inguruan aztertuko da.
2. Hiru argitaletxe desberdinetako Gizarte Zientzien ikasgaietako liburuek, gainerako kulturen inguruko informazioa nola aurkezten duten aztertzea. Azterketa hori egiteko, ondorengo galdera eragilea planteatu da: nola agertzen da kulturartekotasuna testu liburuan?
3. Galdetegi eta testu liburuen azterketetan loturiko emaitzetatik abiatuta, hauetan topaturiko hutsuneei erantzuna emateko asmoz, esku hartze didaktiko baten proposamena.

### **4. METODOLOGIA**

Erabili dudan metodoari dagokionez, hiru pauso desberdin eman dira, bakoitza bere denbora tartearekin. Lehenik, galdetegi bat sortu da, kulturartekotasunak bizi duen errealitatea Tolosaldeko ikastetxeetan aztertzeko. Ondoren, galdetegi hori,

Tolosaldeko ikastetxe desberdinetan banatu da eta elkartruke horretan, ikastetxe horietan zein testu liburu erabiltzen diren jaso da. Azkenik, galdetegiaren (ikus I. eranskina) eta testu liburuen gaineko azterketa egin ondoren, kulturartekotasuna lantzeko esku hartze didaktiko bat proposatu da. Jarraian, pauso bakoitza xeheago azalduko da.

#### **4.1. Galdetegia**

Galdetegia egiteko erreferentzia desberdinak erabili dira. Zehazki, lau egile desberdinek proposatutako galderetatik abiatuta, Coelho (2016), Aretxabaleta (2018), Menéndez (2017) eta Ricardo (2013) eranskinean ikus daitekeen galdetegia osatu da (ikus I. eranskina).

Behin galdetegia amaituta, Tolosaldeko ikastetxe desberdinekin jarri da harremanetan. Harreman hori zuzeneko izan da, hau da, ikastetxe bakoitzera joan da eta bertako zuzendari / ikasketa buruarekin hitz egin da. Hizketaldi horretan, nire ikerketa eta asmoen berri adierazteaz gain, ikastetxean erabiltzen diren testu liburu desberdinen inguruan galdegin zaie.

Gauzak horrela, galdetegia egiteko hautatutako ikastetxeak ondorengoak izan dira: Ikaztegietakoko Herri Eskola; Alegiako Herri Eskola; Tolosako Laskorain Ikastola (sarreran aipatu moduan, galdetegia Ikastolatik pasa arren, ez dut erantzunik jaso eta beraz, ez dut emaitzarik biltzerik izan); Tolosako Samaniego Ikastetxea. Lehenengo hiru ikastetxeak, ezagunak ditut, izan ere bertan egin ditut eta adin bakoitzari dagozkion ikasketak. Egun bakoitzean, bi ikastetxe desberdinetara hurbildu da, lehenik Ikaztegieta eta Alegiakoetara eta ondoren Tolosako Laskorain eta Samaniegora.

Hortik astebete ingurura, berriro itzuli da ikastetxe bakoitzetik galdetegiaren emaitzak jasotzera. Galdetegia, ikusi daitekeen moduan, ez da formatu digitalean bidaltzeko prestatu. Erantzunak eskuz jaso ahal izateko prestatu dira, errazagoa egiten zitzaidalako hauen emaitzak eta ondorengo azterketak gisa horretan egitea.

Azkenik, galdetegiaren emaitzak banan – bana aztertu ondoren, emaitzen atalean topa daitekeen laburpen bat egin da. Laburpen bat egiteaz gain, emaitzak bere osotasunean ikusi ahal izateko, Excel orri bat osatu da eta emaitza hauek, Excel programak eskaintzen dituen grafika desberdinen bidez txertatu dira. (ikus II. eranskina)

#### **4.2. Testu liburuen azterketa**

Galdetegiak pasatzerakoan zuzendari / ikasketa buruarekin izandako hartu emanari esker, ikastetxe bakoitzean zein testu liburu erabiltzen diren jaso da. Erantzunak ondorengoak izan dira: Ikaztegietako Herri eskolan, testu liburuak ez dira erabiltzen, proiektuen bidezko metodologia erabiltzen delako; Alegiako eskolan, Santillana argitaletxeko liburuak erabiltzen dira (LH 3-4-5-6); Laskorain Ikastolan, Eki (bigarren zikloa) eta Txanela proiektuetan (lehen zikloa) sartuta daude eta bertako testu liburuak erabiltzen dituzte; Samaniego ikastetxean, Santillana argitaletxeko testu liburuak erabiltzen dituzte (LH 5-6).

Beraz, lau ikastetxeren testu liburuak kontuan hartuz, hiru argitaletxeren esku liburuak aztertuko dira: Santillana, Txanela eta Eki proiektuko esku liburuak. Hala ere, ez dira ikasgai guztietako esku liburuak aztertuko, Gizarte Zientziei dagozkien esku liburuak aztertuko dira.

Honen gaineko erabakia, Morales eta Lischinskyk (2008) eta Quintanilla taldeak (1996) egindako azterketari jarraiki hartu da. Izan ere, hauen iritziz, Gizarte Zientzietan agertzen dira gehienbat, nazioarte mailan sortzen diren harreman sozial, historiko, ekonomiko eta demografiak. Horrez gain, ez da ahaztu behar ikasgaiak kulturaren alor desberdinei egiten dizkien erreferentziak.

Mailari dagokienez, Gizarte Zientzietako maila guztietako testu liburuak aztertuko dira; hau da, lehen mailatik hasi eta seigarren maila artekoak. Beraz, Santillana argitaletxeko 6 liburu (ikastetxeak nahiz eta LH 1 eta 2. mailan testu liburuak ez erabili, esku liburuak aztertzeko aukera utzi dit), Txanela proiektuko 3 eta Eki proiektuko beste 3 liburu. Guztira 12.

Testu liburuen azterketa egiterakoan orokortasunetan ez galtzeko, galdera bat planteatu da eta galdera horri jarraiki egin da azterketa: nola agertzen da kulturartekotasuna? Behin analisia eginda, honen gaineko erantzunak, eskuz jaso dira. Erantzunak, laburpen batean bildu dira emaitzen atalean eta xehetasun gehiago berriz, eranskinean topa daitezke (ikus III. eranskina).

#### **4.3.Esku hartze didaktikoa**

Galdetegiaren eta testu liburuen azterketa egin ondotik, kulturartekotasunaren lanketaren zenbait hutsune topatu dira eta horri erantzuna emateko, esku hartze didaktiko bat proposatu da. Proposamena egiterakoan, egun zenbait egile desberdinek gaiaren inguruan argitaratuak dituzten dokumentuak kontuan hartu dira.

Esku hartzearen proposamena, Lehen Hezkuntzako seigarren mailarako prestatu da, nahiz eta bigarren zikloko adin desberdinetara egokitu daitekeen. Guztira zazpi saio osatu dira eta saio bakoitzak 60 minutuko iraupena izango du. Proposatutako jarduerak, ikasleei bideratuta daude eta beharrezkoa da irakasleak kulturartekotasunaren inguruan oinarri sendo bat izatea proposamena era egokian aurrera eramateko.

Proposatutako jarduerari dagokienez, hauen aukeraketa egiterako orduan zenbait irizpide hartu dira kontuan: ikasleen aurre ezagutzak; ikasleen ingurune hurbilekoak izatea; interesgarriak egitea, motibazio pizte aldera; praktikoak izatea; hausnarketara gonbidatzen duten jarduerak izatea; taldean lan egitera bultzatzen duten jarduerak izatea. Irizpide desberdin hauen bidez, ikasleek kulturartekotasunaren inguruko ikasketa esanguratsu bat barneratzea lortu nahi da.

## **5. EMAITZAK**

### **5.1. Galdetegiaren emaitzak**

Galdetegia aurrez aipatu moduan, hiru ikastetxetan pasa da. Ikastetxe hauek, Gipuzkoan daude kokatuta, zehazki Tolosaldeko eskualdean: Ikaztegietako Herri Eskola, Ikaztegitan; Alegiako Herri Eskola, Alegian; Samaniego ikastetxea, Tolosan.

Gauzak horrela, guztiak D eredukoak dira eta sare publikokoak. Ikastetxe guztietan handiena bai tamainaz eta baita ikaslez Samaniego da eta bertan aurki daiteke kultur aniztasun handiena. Ertaina, kasu honetan, Alegiako Herri Eskola izango litzateke. Hemen ikasle gutxiago egonagatik, azken urte hauetan handitu egin da kultur – aniztasuna. Txikiena berriz, Ikaztegietako Herri Eskola dugu. Aniztasunaren aldetik, sarreran aipatu moduan, bertan ikasitakoa naiz eta gertutik bizi izan dut nola ahazten joan den bai herrian eta baita ikastetxean kultur – aniztasun hori.

Behin hau esanda, galdetegietan lortutako emaitzak aztertzeraz pasako naiz. Horren aurretik, ordea, bi puntu garrantzitsu argitu behar dira. Alde batetik, galdetegia bete duten irakasleak, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik hasi eta 6. maila bitarteko tutoreak soilik izan direla. Bestetik, jarraian aurkezten diren emaitzak, laburpen bat direla. Galdetegiak bere osotasunean II. eranskinean topa daitezke.

#### **5.1.1. Ikaztegietako Herri Eskola**

Jarraian, Ikaztegietako Herri Eskolan kulturartekotasunaren inguruan pasatako galdetegiaren emaitzak aurkezten dira. Ikaztegietako kasuan, bost tutorek bete dute galdetegia (ikus II.I eranskina).

Galdetegia aurrez aipatu moduan, hiru multzotan banatzen da: eskola mailako errealitatea; ikasgelako errealitatea; jasotako formakuntza.

#### *Eskola mailako errealitatea*

Eskola mailako errealitateari buruz hitz egiterakoan, aipatu behar da galdera guztietan tutoreen erantzunak berdinak izan direla. Hauen interpretazioari dagokienez, esan beharra dago Ikaztegietako Herri Eskolan, ez dagoela programa planifikatu bat atzerriko ikasle eta gurasoen orientaziorako ezta kulturartekotasuna edota inklusioa lantzeko programarik.

Nahiz eta ez egon eskola mailan programa espezifikorik ikasle eta gurasoen orientaziorako, talde batek hartzen du bere gain ardura hori. Horrez gain, ekitaldi bereziak antolatzen dira ikastetxean aurki daitezkeen kultura guztiak ahalik eta modurik inklusiboenean hartzeko.

Bestalde, Ikaztegietan, kulturartekotasuna ez da irizpide bat ikasliburu eta antzeko materialak hautatzerako orduan. Gainera hauen hautaketan, ez dute ez ikasle ezta gurasoek ere parte hartzen.

#### *Ikasgelako errealitatea*

Ikasgelako errealitateari dagokionez, erantzunak ez dira izan hain bateratuak. Tutoreek orokorrean, ez dute ikasgelako kultura desberdinen inguruko informaziorik eta ez dakizkite ikasleen hizkuntzetako zenbait esamolde. Ikasle berri bat heldu denean, inork ez du erabili harrera planik.

Tutoreen gehiengoak, kulturartekotasuna lantzeko jarduerak prestatu izan dituzte testu liburuei jarraitu gabe. Jarduera hauek, kulturen inguruan dauden estereotipoak apurtzen laguntzen omen dute eta ikasgai bat baina gehiagotan landu daitezkeela pentsatzen dute.

Bestalde, erabiltzen diren liburu, bideo eta beste antzeko materialetan, bat datoz, kultura desberdinetako jendea ageri dela denetariko gauzak egiten esateko. Gainera, kontziente dira erabiltzen dituzten materialetan kultura nagusi bat agertzen dela. Baina, tutore gutxi batzuk ohartzen dira, material horiekin, zenbait ikasle ez direla identifikatuta sentituko. Egoera honetaz jakitun izan arren, irakasle bakar batek

egokitzen ditu jatorri ezberdinetako ikasleen beharretara bere materialak. Gainerakoek, ezer gutxi egiten dute.

### *Jasotako formakuntza*

Jasotako formakuntzari dagokionez, hiru tutorek, bai ikastetxean bai ikastetxetik kanpo kulturartekotasunaren inguruan prestatu izan diren ikastaro, jardunaldi edota prestakuntzaren batean parte hartu dute. Beste bik ez. Baina guztiek ikusten dute gaiaren inguruan hutsune bat dagoela, hau da, formakuntza behar dutela.

#### **5.1.2. Alegiako Herri Eskola**

Ondoren, Alegiako Herri Eskolan pasatako galdetegiaren erantzunak ageri dira. Alegiako Herri Eskolan, 10 tutorek bete dute galdetegia (ikus III.II eranskina).

### *Eskola mailako errealitatea*

Atal honetan aipatu beharra dago, Alegiako Herri Eskolak baduela programa planifikatu bat atzerriko ikasle eta gurasoen orientaziorako eta ikasle berriren bat heldu denean, ia denek erabili dutela. Gainera, pertsona hauen orientazioaz arduratzen den talde espezifiko bat dago.

Irakaslearen erdiek, inklusioa edota kulturartekotasuna lantzeko programak ezagutzen dituzte eta beste erdiek erdizka. Baina bat datoz esateko, ekitaldi bereziak antolatzen direla ikastetxeko kultura desberdinak ahalik eta modurik inklusiboenean hartzeko.

Kulturartekotasuna, ordea, ez da irizpide bat edo erdizka da irizpide zortzi irakaslerentzako testuliburuak hautatzerako orduan eta hauen aukeraketan, guraso eta ikasleek ez dute parte hartzen.

### *Ikasgelako errealitatea*

Ikasgelako ikasleen kulturen inguruan erdizka edo informatuta daude zazpi irakasle eta zortzi erdizka edo badakizkitez, ikasleen hizkuntzetako zenbait esamolde. Gauza bera gertatzen da kulturartekotasunarekin lotutako jarduerak prestatzeko garaian, bederatzi irakaslek, horietatik hiruk erdizka bada ere, antolatzen dituzte. Gainera, sortzen dituzten jarduera eta material hauek orokorrean, kulturen inguruan dauden estereotipoak apurtzen laguntzeaz gain, jatorri askotako jendea ageri da denetariko gauzak egiten.



Bestalde, tutore guztiak ohartzen dira erabiltzen dituzten materialetan kultura batzuen nagusitasuna agertzen dela, baina horietatik erdiak soilik konturatzen dira, zenbait ikasle, ez direla sentituko identifikatuta erabiltzen dituzten materialekin. Horregatik, orokorrean, kulturartekotasunarekin lotutako edukiak, ez dituzte ohiko ikasliburuaren bitartez irakasten eta zortzi irakaslek, horietatik lauk erdizka, materiala hori jatorri ezberdinetako ikasleen beharretara egokitzen dute.

#### *Jasotako formakuntza*

Kulturartekotasunaren inguruan jasotako formakuntzari erreparatuz gero, tutoreen erdia bai ikastetxean eta bai ikastetxetik kanpo antolatzen diren ikastaro, jardunaldi edo formakuntza batera joan da baina beste tutoreen erdia ez. Hala ere, bi tutorek soilik ikusten dute bere burua formatuta gai honen inguruan, gainerakoek ez.

### **5.1.3. Tolosako Samaniego ikastetxea**

Jarraian, Tolosako Samaniego ikastetxeko tutoreen erantzunak aurkezten dira. Guztira, 14 tutoreen erantzunak jaso dira (ikus II.III. eranskina).

#### *Eskola mailako errealitatea*

Eskola mailako errealitateari erreparatuz gero, azpimarratu behar da, Tolosako Samaniego ikastetxeak baduela programa planifikatu bat atzerriko ikasle eta gurasoen harrera eta orientaziorako, tutoreen gehiengoak noizbait erabili duena. Gainera, ikasle eta guraso horiez arduratzen den talde espezifiko bat dago antolatua.

Irakaslearen gehiengoak, ikastetxeak, kulturartekotasuna edota inklusioa lantzeko dauzkan programak ezagutzen ditu. Horrez gain, ikastetxe mailan ekitaldi bereziak antolatzen dira eskolako kultura guztiak ahalik eta modurik inklusiboenean hartzeko, baina hala moduz.

Bestalde, Samaniego ikastetxean, lau tutorek baiezkoa erantzunagatik, kulturartekotasuna ez da irizpide bat ikasliburu eta antzeko materialak hautatzerako orduan. Gainera hauen aukeraketan, ikasle eta gurasoek ez dute parte hartzen.

#### *Ikasgelako errealitatea*

Tutoreen gehiengoak, ikasgelako ikasleen hizkuntzetako zenbait esamolde ez jakinagatik, beraien kulturen inguruan informatuta egoten dira. Aldi berean, erdizka bada ere, gehiengoak kulturartekotasuna lantzeko jarduerak prestatzen dituzte eta jarduera hauek, kultura desberdinen inguruan dauden estereotipoak apurtzen

laguntzen dute. Gainera, jarduera eta material hauetan, jatorri ezberdinetako jendea aurkitu daiteke denetariko gauzak egiten.

Bestalde, tutore guztiak bat datoz azpimarratzean, erabiltzen dituzten material desberdinetan kultura batzuen nagusitasuna agertzen dela. Hala ere, ez dira guztiz ohartzeko zenbait ikasle, ez direla sentituko identifikatuta erabiltzen dituzten materialekin. Honen aurrean, kulturartekotasunarekin lotura duten edukiak, ez dituzte ohiko ikasliburuen bitartez irakasten eta eduki horiek, jatorri ezberdinetako ikasleen behar eta errealitatera egokitzen dituzte.

### *Jasotako formakuntza*

Kulturartekotasunaren inguruan jasotako formakuntza kontuan hartuz gero, ikusi daiteke, tutoreak orokorrean ikastetxean antolatzen diren ikastaro, jardunaldi edo formakuntzaren batera joan direla. Ikastaro, jardunaldi edo formakuntza horiek ikastetxetik kanpo antolatzen badira, ez da berdina gertatzen, horietara tutoreen gutxiengoa joaten da. Beraz, irakasleen gehiengoak azpimarratzen du gaiaren inguruan jaso duten formazioa ez dela nahikoa.

## **5.2. Testu liburuen azterketaren emaitzak**

### **5.2.1. Santillana argitaletxeko testu liburuak**

Santillana argitaletxeko liburuen azterketa, eskuz eginda, testu liburu fisikoak aurrean izanda. Santillana argitaletxeko testu liburuek, ikaslea kokatzen dute beraien ikaskuntza prozesuaren erdigunean. Era berean, ikaskuntza prozesu horretan geroz eta paper aktiboagoa izatera bultzatze dute. Gainera, ikasleen garapen intelektuala eta pertsonalaz arduratzen dira, gizarte honen eraikuntzan parte hartu dezaten. Informazio gehiago, <https://santillana.com/es/nuestras-senas-de-identidad/> web orrialdean.

Gauzak horrela, 1. mailatik hasi eta 6. maila bitarteko testu liburuak aztertu dira ondorengo galdera eragileari jarraituz: nola agertzen da kulturartekotasuna? Azterketa, Gizarte Zientzietako testu liburuaren gainean egin da.

Santillana argitaletxeko liburuak, bi gai nagusitan bereizten dira: alde batetik, geografiaren arloa lantzen da; beste aldetik, historiaren arloa. Geografiaren atalari dagokionez, maila ezberdinak aztertzerakoan, gaiak errepikatzen doazela ikusi da. Esaterako, klimak, erliebea edota ura gaiak, maila dezentetan topa daitezke. Historiaren arloan berriz, gaiak ez dira errepikatzen, historiako garai desberdinak

lantzen doaz Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik aurrera (lehen zikloan ez da askorik aztertzen).

Jarraian aztertutakoaren laburpen bat ageri da. Esan bezala, laburpena bi arlo nagusiren bueltan egingo da, Geografia eta Historia. Xehetasun gehiago, amaierako eranskinean topatu daitezke. Bertan, maila bakoitzeko liburua gaizgai aztertuta aurkezten da (ikus III.I eranskina).

## **Geografia**

Santillana argitaletxeko liburuetan, geografiari dagozkion edukiak errepikatzen doaz, lehen mailatik hasi eta seigarren maila bitarte. Orokorrean, edukiak berak ez dira aldatzen, baina bai bertan agertzen den informazioa. Hau da, informazioa sakonduz doa mailatik mailara.

Aipatu beharra dago, liburu bakoitzean 9 gai desberdin lantzen direla eta horietatik 6 normalean geografiari buruzkoak direla. Bada, liburu bakoitzeko 6 gai horietatik, gai bakarreko azpi atal bat edo bitan soilik topatu dira kulturartekotasunaren inguruko erreferentziak. Beraz, esan daiteke, oinarritzapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak jasotako ezaugarrietatik, bazterkeriarena azpimarratu behar dela gorritz. Ez da apenas beste kulturen inguruko informaziorik aurkitzen.

Behin hau argituta, kulturartekotasunaren inguruko erreferentziak zein gaitan topatu diren esatera pasako da: **Biztanleria, Lurraren irudikapena eta Europar Batasuneko, Espainiar Estatuko eta Euskadiko erakundeak.**

**Biztanleriaren** gaian, seigarren, bosgarren eta laugarren mailetako testu liburuetan, migrazioari buruzko aipamena ageri da orrialde gutxitan. Bertan, nagusiki migrazioak zer diren jasotzen da, immigrazioa eta emigrazioa desberdinez. Bada, hiru mailetako liburuetan, Morales eta Lischinskyk (2008) aipatutako ezaugarria identifikatu daiteke: immigrazioa eta emigrazioa desberdin tratatzeko joera.

Immigrazioa aztertzen denean, azken urte hauetan, Europa mailan gorakada nabari dela jasotzen da, baina ez da aipatzen gorakada hori azaltzen duen inongo arrazoirik. Aldi berean, Van Dijk (2004) esan moduan, ez da aipatzen, immigrazio horren hartzaile diren herrialdeek lortzen dituzten etekin ekonomikoaren inguruko berririk. Bestalde, emigrazioa tratatzen denean, emigrazio hori justifikatzen duten arrazoiak ageri dira. Besteak beste krisi ekonomikoa. Beraz, testu liburuen arabera eta Van Dijk (2004) esandakoak gogora ekarriz, ez da berdina guk beste herrialde batzuetara immigratzea edo besteek gure herrialdetara immigratzea.

**Lurraren irudikapenaren** gaia, bosgarren, laugarren eta hirugarren mailako testu liburuetan topa daiteke. Bertan, planisferio fisikoa eta politikoak zer diren, beraien ezaugarri nagusiak eta oinarritzko informazioa jasotzen dira. Hori guztia munduko mapen bitartez lagunduta islatzen da. Planisferio fisikoan, ozeanoak, ibaiak eta mendikateak topa daitezke. Planisferio politikoan berriz, kontinenteak eta bertako herrialdeak. Munduari buruzko informazioa agertu arren, bitxia egiten da; izan ere, nekez bilatu daiteke, Euskadi, Espainia edota Europa ez den beste herrialde/lurraldetako informaziorik liburuetan. Coelhok (2016) dioen curriculum eurozentrikoaren ideia nabaria da liburuetan.

**Europar Batasuneko, Espainiar Estatuako eta Euskadiko erakunde eta lurraldetasun** gaia, laugarren, bosgarren eta seigarren mailako testu liburuetan topa daiteke. Erakundeei dagokienez, orokorrean, zeintzuk diren, legediak, oinarritzko ezaugarriak eta betetzen dituzten funtzioak azaltzen dira. Lurralde antolamenduan, berriz, Europaren kasuan, zein herrialdek osatzen duten Europar Batasuna azaltzen da, mapak testu laguntzaile bezala erabiliz. Espainiar Estatuaren eta Euskadiren lurralde antolamendua aldiz, Autonomia Erkidego eta Probintzien osaketan inguruko informazioa ematera mugatzen da. Hauek ere, mapak lagunduta aurkezten dira.

Gai hauetan, nabarmentzekoa da Quintanilla taldeak 1996. urtean ikertutakoa. Bertan jasotzen da, Espainiaren lurralde antolamenduari buruz hitz egiterakoan, garaiko testu liburuak Espainiar Estatu, zein autonomia erkidego eta probintziek osatzen zuten azaltzera mugatzen zirela. Hau da, autonomia erkidego eta probintzia desberdinetan zeuden kultur-aniztasun, bizimodu, hizkuntza edota ohitura desberdinak ezkutatu edo azaletik lantzen saiatzen ziren. Bada, gaur egun, oraindik ere Quintanilla taldeak esandakoak bere horretan jarraitzen du. Gainera, ez nuke Espainiar Estatura soilik mugatuko berak aipatutako ezaugarria. Europar Batasuneko eta Euskadiren inguruko kultur-aniztasun, bizimodu, ohitura eta hizkuntzak ere, ez daude adierazita liburuetan. Zer esanik ez mundu mailan.

Bestalde, nahiz eta kulturartekotasunari ez egin erreferentzia zuzenik, aipatu nahiko nuke, maila desberdinetan, **lan sektore ezberdinen** inguruko informazioa aurkezten dela. Bertan, zenbat sektore dauden, zeintzuk diren eta hauen ezaugarri nagusienak jasotzen dira. Bada, atal hauetan, Van Dijk (2004) eta Morales eta Lischinsky (2008) egileek aipatutako ezaugarriak ere identifikatu daitezke. Kasu hauetan, ikasleei ez zaie esaten etorkinen gehiengoak zein sektoretan lan egiten duen, ezta herrialde garatuek, etorkinek sortzen duten esku lan merkea behar dutela ekonomikoki hazten joateko.

## Historia

Historiari dagokionean, liburuetako gaiak ez dira errepikatzen geografian bezala. Ikasleak garai historiko desberdinak aztertzen doaz maila desberdinetan. Lehen zikloan oso gutxi lantzen da historia, baina bigarren ziklotik aurrera, askoz ere gehiago lantzen hasten dira. Esaterako, laugarren mailan, **Historiaurrea eta Antzinaroa** lantzen hasten dira; bosgarren mailan, **Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Espainia XVII. eta XVIII. mendeetan**; seigarren mailan **Aro garaikidea eta Espainia eta Europar Batasuna**.

Liburu bakoitzean 9 gai desberdin lantzen badira, horietatik 3 historiari buruzkoak dira. Gauzak horrela, hiru gai horietatik, bi gaietako azpi atal bat edo bitan soilik topatu dira kulturartekotasunaren inguruko erreferentziak. Beraz, geografia arloaren antzera, historian ere, beste kulturen inguruko informazioa, oso orrialde gutxitan topatu daiteke. Nabarmendu behar da, gainera, historiaren inguruko pasarteak, mendebaldeko kultura nagusiaren ikuspegitik azalduak aurkezten direla.

Behin hau esanda, kulturartekotasunaren edota beste kulturen inguruko erreferentziak zein gaitan topatu diren aztertzeraz pasako da.

Laugarren mailan, **Historiaurrean eta Antzinaroan** topa daitezke erreferentziak. **Historiaurrean**, kontatzen den guztitik, aipamen txiki bat egiten zaio garai haietako pinturari. Aipamen hori, Espainiar Estatutuan aurki daitezkeen haitzuloetako pinturretara mugatzen da. Antzinaroa berriz, erromatarren aurreko herrien kontaketaekin hasten da: iberiarrak eta zeltak, greziarrak, feniziarrek eta kartagotarrak. Zibilizazio hauen inguruko azalpen oso laburrak aurki daitezke. Azalpen hauetatik, arreta gehien deitzen duen ideia zibilizazio hauek salerosketa eta trukera etorri izana eta ondoren penintsulan koloniak sortu izana. Gainera ez da erabiltzen konkista hitzik inongo momentutan.

**Antzinaroarekin** jarraituz, erromatarren garaiak aztertzeraz pasatzen da liburua. Bertan azaltzen da erromatarrek pixkanaka konkistatzen eta hedatzen joan zirela penintsulan barrena. Horrekin batera, I. mendean, erlijio berri bat hasi zen hedatzen Erromatar Inperioan: kristautasuna, Jesus Nazaretakoak eta haren jarraitzaileek aditzera ematen zuten. Erromatarrek bere hizkuntza ere zabaldu zuten, latina. Liburuan, ordea, ez da topatu inongo momentutan kristautasuna zer den azaltzen duen edukirik. Informazioa aipamena soilik egitera mugatzen da. Bestalde, garai horretako kulturaren alorra ere lantzen da. Hau, ordea, oraindik ere Espainiar Estatuan ikusgai

dauden eraikin, eskultura, pintura eta mosaiko garrantzitsuenen aipamenera mugatzen da.

Bosgarren mailan, **Espainia Erdi aroan, Espainia Aro modernoaren hasieran eta Espainia XVII. eta XVIII. mendeetan** gaiak lantzen dira. **Erdi Aroari** dagokionez, Bisigodoen erresuma, Musulmanen konkista, Al Andalus eta Kristau Erresumak atalak aztertzen dira. Hemen batez ere, azaletik, musulmanen eta kristauen artean eman ziren aginte borroken inguruko informazioa azaltzen da. Informazio horretan, musulmanekin konkista hitza erabiltzen da baina ez kristauekin.

Izenburuetatik hasita, bereizketa nabari da Bisigodoen Erresumaren eta musulmanen konkistaren artean. Teorian, bi herriak etorri ziren kanpotik baina bati erresuma deitzen zaio eta besteari konkista. Gainera, Bisigodoak iberiar penintsula ezarri omen ziren baina musulmanak, okupatu egin omen zuten lurraldea. Arrazakeria bistakoa da eta hori, ez dela agertu beharko zenaren egiazko informazio erdirik ere azaltzen.

Bestalde, Bizitza Al Aldalusen izeneko atalean, Islamari buruz hitz egiten da. Islama oso estereotipatua agertzen da, derrigorrez bete behar dituzten bost mandamenduekin. Gainera, beraiek kulturaren eta artearen inguruan egindako ekarpenak, bitxikeria moduan agertzen dira. Adibide batzuk esatearren, aipatzen da jatorri arabiarra duten zenbait hitz oraindik ere erabiltzen ditugula: Alkate edo Alkandora. Ezer gehitzen ez duen informazioa. Bestalde, Kristau Erresumen inguruan eskaintzen den informazioa, zabalagoa da. Beraien bizimodua eta gizarte antolaketa deskribatzen dira. Hala ere, oraindik ez da azalpenik ematen kristau /kristautasunaren inguruan. Kultura eta artean egindako ekarpenak, ganora handiagoz azaltzen dira baina informazioa garaiko eraikin, margolan eta eskultura entzutetsuenetara mugatzen da.

**Espainia Aro Modernoaren hasieran** gaian, batez ere Espainiar Estatuaren kolonialismo eta inperialismo garaien berri ematen da, baina komeni den ikuspuntutik. Hau da, aurrerapen eta aurkikuntzen ikuspegitik. Bertan, besteak beste, Amerikaren aurkikuntza edota Espainiar inperioaren inguruan hitz egiten da. Hala ere, oso gutxitan topa daitezke konkista edota kolonizazio hitzak eta are gutxiago bertako biztanleei egindako sarraskiak. Hemen, Van Dijk (2004) eta Torres (2008) egileek oso ondo jasotzen duten kolonialismo garaien zuriketaren ezaugarria topa daiteke. Oso azaletik eta modu xumean kontatzen da historiaren zati hau, informazio garrantzitsua ezkutatuz. Izan ere, lehen aipatu moduan, betiko historia kontatzen zaie haurrei baina ez zaie kontatzen aurkikuntza eta aurrerapen horien izenean beste herrialdeetan

egindako inbasio, indarrezko ebaspen eta sarraskiak (Van Dijk, 2004) eta (Torres, 2008).

Bosgarren mailako, testu liburuen azterketarekin amaitzeko, **Espainia XVII. eta XVIII. mendeetan** gaian, berriro, inperioen inguruan hitz egiten denean, aurrez Van Dijk (2004) eta Torres (2008) egileek aipaturiko kolonialismo garaien zuriketaren ezaugarria topatu daiteke. Izan ere, bertan, detaile guztiekin kontaktzen baita, erregealdi bakoitzak nola galtzen joan zen nagusigoa gerren ondorioz. Bestalde, artea eta kulturari dagokionean, Barrokoaren eta Urrezko mendearen inguruan hitz egiten denean, berriz, ematen den informazioa, arkitektura, pintura, eskultura eta literaturara soilik mugatzen da. Barrokoan, nazioarteko artisten aipamenak jasotzen diren arren, Urrezko mendean, Espainiar Estatukoak soilik agertzen dira.

Seigarren mailan, **Aro Garaikidea: Espainia eta Euskadin XIX. , XX. eta XXI. mendeetan eta Espainia eta Europar Batasuna** gaiak lantzen dira. **Aro Garaikideari** dagokionean, erreferentzia gutxi topatu dira kulturartekotasunaren inguruan. Aipamenetako bat, XIX. mendekoa da. Hau da, Espainia pixkanaka Amerikan zituen koloniak galtzen joan zela. Berriro, aurrez Van Dijk (2004) eta Torres (2008) egileek jasotako ezaugarria topatu daiteke. Beste aipamen bat XX. mendean dator. Bertan, Francoren diktaduraren garaian, labur bada ere, kulturak zentsura bizi izan zuela aipatzen da. Besteak beste, liburu, film edota antzezlanetan.

Horrez gain, artea eta kulturaren alorra ere lantzen da, Aro Garaikideko, XIX. , XX. eta XXI. mendeetan. Betiko legez, agertzen den informazioa laburra eta eskasa izateaz gain, arkitektura, eskultura, pintura eta literatura mugatzen da. Protagonisten izenak ere jasotzen dira, baina soilik Estatu Espainiarrekoenak.

Azken gaian, **Espainia eta Europar Batasunarenean**, Quintanilla taldeak 1996. urtean ikertutako eta geografiaren atalean jasotako ezaugarria aurkitu daiteke; izan ere, Espainia eta EB-ren inguruan ematen den informazioa, gehienbat, lurralde antolamenduaren ingurukoa baita. Ez da aipatzen bai Europak eta baita Espainiar estatuak dituzten kultur-aniztasun, bizimodu, ohitura edota hizkuntzen aberastasuna. Ildo beretik jarraituz, azpimarratu nahiko nuke, Europar Batasunaren inguruan hitz egiten denean liburuko zatiren batean, erronka desberdinak dituela jasotzen dela eta horietako bat, kultur-aniztasuna sustatzea dela EB osatzen duten herrialdeen artean.

Amaitzeko, aurrez oinarritapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak aipatzen zituen beste kulturen inguruko irudikapen negatiboetatik, ondorengoak identifikatu daitezke Santillana argitaletxeko liburuetan: bazterkeria eta ahotsak isilarazi edota

ukatzea, oso informazio gutxi agertzen delako beste kulturen inguruan; estereotipoak, islamari buruz hitz egiterakoan; kultura nagusiaren auto errepresentazio positiboa, inmigrazioa eta emigrazioari buruz hitz egiterakoan; arrazakeriaren ukatzea, kolonialismo garaietan. Horrez gain, Coelhoren (2016) curriculum eurozentrikoaren ideia ere azpimarratu behar da.

### 5.2.2. Eki Proiektuko testu liburuak

Eki proiektuko testu liburuen azterketa, internet bidez eginda, izan ere, Eki proiektua eskuragarria dago eta interneten. Eki proiektua, Ikastolen Elkartek Euskal Curriculumaren garapenaren baitan eskaintzen duen ikasmateriala da. Azken urtetan, Ostadar edota Txanela proiektuak ordezkatzeko joan da. Proiektuan bertan hiru zehaztapen – maila eraberritu bereizten dira: lehenengo mailan, Oinarrizko eta Derrigorrezko Hezkuntza osorako ikaslearen irteera-profil orokorra definitzen da; bigarren zehaztapen mailan, arlo bakoitzean oinarrizko ikaslearen irteera- profil espezifikoa; hirugarren mailan, ikasturte bakoitzean erabili ahalko diren unitate didaktikoak proposatzen dira. Informazio gehiago: <https://www.ikastola.eus/ikasmaterialak/eki> web orrialdean.

Webgunean, ikasgai eta maila desberdinetako materiala aurkitu daiteke, jarduerak buru direlarik. Gure kasuan, Lehen Hezkuntzako 4. 5. eta 6. mailetako Ingurunea ikasgaia aztertu da. Bertan, ordea, Gizarte Zientziak ez ezik, Naturaren Zientziak ere jorratzen dira. Beraz, tentu handiagorekin egin da azterketa.

Eki proiektuko liburuak, hiru zati desberdinetan banatzen dira, hiru hilabete bakoitzean, zati horietako bat lantzen delarik. Jarraian egindako azterketaren laburpen bat aurkezten da. Azterketa zehatzagoa, amaierako eranskinean topatu daiteke (ikus III.II eranskina).

Seigarren mailari dagokionean, bi hiru hilabetetan topatu dira kulturartekotasunarekin lotura duten erreferentziak: **Hobetu dezakegu gure bizitza** izenekoan eta **etorkizuna eraiki daiteke?** deiturikoan. **Hobetu dezakegu gure bizitza** atalean, Gizarte Zientziei dagokienez, Euskal Herria Senegalgo herrialdearekin konparatzen da. Konparaketa horri hasiera emateko, bideo egoki bat azaltzen da. Bertan, hemengo ikasleak eta hangoak anitasunean, jolas ezberdinak ageri dira egiten. Ondoren, jarduerekin, ordea, hasten da desegokitasuna.

Jardueretan, Van Dijk (2004) egileak aipaturiko diskurtsoak polarizatzearen ezaugarria identifikatu daiteke. Izan ere, etengabekoak dira ezaugarri dikotonomikoak;



besteak beste, lehen mundua vs hirugarren mundua eta aberastasuna vs pobrezia. Jardueren izenburuak ere deigarriak dira, hala nola Senegalgo eskola eta Senegalgo osasun sistema. Bertan, ezaugarri negatiboak soilik eskaintzen zaizkie ikasleei. Besteak beste eskolaratze tasa edota zerbitzuen mugak. Ematen du hemen dena ongi doala eta ez dagoela arazorik. Baina bai, hemengo hezkuntza sistemak eta osasungintzak ere badu zer hobetua.

Torres (2008) egileak aipatu moduan, atal honetan garbi ikusten da ikasleei mendebaldeko kultura nagusiaren ideologia transmititzen zaiela. Hobeagoak garela, aberatsagoak, idealak eta zortedunak kultura honen parte izateagatik. Honek guztiak, Van Dijk (2004) zioen bezala, irudi desegoki eta estereotipatu bat eraikitzen laguntzen die ikasleei. Kasu honetan, irudi hori eraikitzeke arriskua dago Senegalen inguruan.

**Etorkizuna eraiki daiteke?** atalean, Gizarte Zientziei dagokienez, garai historiko ezberdinak lantzen dira Historiaurretik hasi eta gaur egun arte. Historiaren kontaketa nahiko klasikoa da eta Mendebaldeko kultura nagusiaren ikuspegitik kontatzen da. Hemen batez ere azpimarratzekoa da, zibilizazio desberdinen berri ematen denean, besteak beste Mesopotamia, Egipto, Grezia edota Erroma, estereotipatuak irudikatzen direla hauek, batez ere arropa eta jarduera / lanen arloari erreparatuz gero.

Bosgarren mailari dagokionez, hiru hilabete bakarrean topatu da kulturaren inguruko erreferentzia txiki bat. Zehazki, **Bizitzak mila kolore** izenekoan. Bertan, bideo baten bitartez, azaletik, Idiazabalgo gaztaren egite prozesua azaltzen da: ardiak, gazta, artzaintza eta lehen sektorea. Horrez gain, Santillana liburuetan topatu antzera, hemen ere sektore ezberdinei buruz hitz egiten denean, Van Dijk (2004) eta Morales eta Lischinsky (2008) egileek aipatutako ezaugarria identifikatu daiteke. Hau da, ikasleei ez zaie azaltzen etorkinen gehiengoak zein sektoretan lan egiten duen, ezta beraiei esker lortzen duten etekin ekonomikoa.

Laugarren mailari dagokionez, bosgarrenaren antzera, hiru hilabete bakarrean topatu dira kulturartekotasunaren inguruko erreferentziak. **Ibilian- ibilian** atalean, alde batetik, ozeanoak, kontinenteak, munduko klimak eta munduko bizidunak aztertzen dira. Batez ere, bideoen bitartez lantzen dira eta oinarrizko informazioa agertzen da, askorik sakondu gabe. Hala ere, egokia da eskaintzen den informazioa.

Bestalde, historian famatu bihurtu diren esploratzaileak ere aztertu beharko dituzte ikasleek. Ez da kasualitatea, esploratzaile hauek guztiak zuriak, kultura nagusikoak eta ia denak gizonezkoak izatea. Morales eta Lischinsky (2008) esan

moduan, dirudienez, beste kultura eta arrazetako pertsonak ez dute ezer garrantzizkorik egin. Gainera, esploratzaile bezala aurkezten dira, baina horietako batzuk kolonizatzaileak izan dira. Hemen ere, Santillana Argitaletxeko liburuetan ikusi moduan, ikasleei ezkutatu egiten zaie esplorazioaren izenean, herrialde horietan egindako sarraskiak (Van Dijk 2004) eta (Torres, 2008).

Amaitzeko, Eki proiektuko testu liburuak aztertu ondotik, aurrez oinarritzapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak aipatzen zituen beste kulturen inguruko irudikapen negatiboetatik, ondorengoak identifikatu daitezke: bazterkeria eta ahotsak isilarazi edota ukatzea, oso orrialde gutxitan egiten zaizkielako erreferentziak beste kulturei; desberdintasunak vs berdintasunak, Euskal Herria, Senegalgo edozein ezaugarriekin konparatzean; exotismoa, Senegalgo kulturaren alderdi batzuk, arropak kasu, aipatzerakoan; estereotipoak, Senegalgo bizileku eta bizimoduari buruz hitz egiten denean; kultura nagusiaren auto errepresentazio positiboa, gure kulturarena kasu honetan, zentzurik gabeko alderaketak egiterako garaian; arrazakeriaren ukatzea, kolonialismo garaia azaletik lantzerakoan.

### **5.2.3. Txanela proiektuko testu liburuak**

Txanela proiektuko esku liburuak ezin izan dira fisikoki lortu eta internet bidez egin da beraien azterketa. Txanela proiektua, Ikastolen Elkarteak Lehen Hezkuntzan edukien lanketarako erabiltzen duen ikasmaterialetako bat da. Haur Hezkuntzako Urtxintxa proiektuaren jarraipena eskaintzen du proiektu honek. Modu berean, bi helburu nagusi ditu proiektuak: Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren etapan arteko zubi lana egitea; Lehen Hezkuntzako ezagutzaren oinarriak finkatzea. Informazio gehiago: <https://www.ikastola.eus/ikasmaterialak/txanela> web orrialdean.

Hau esanik, Lehen Hezkuntzako 1. 2. eta 3. Mailako testu liburuk aztertu dira betiko galdera eragileari jarraituz: nola agertzen da kulturartekotasuna? Hemen bi puntu azpimarratu behar dira: batetik, ikaslearen liburuko material globalizatua aztertu dela; bestetik, Ingurunea edo Gizarte Zientzien ikasgaia, Txanela izeneko ikasgaiak ordezkatzeko duela. Beraz, hauen gaineko azterketa egin da.

Hau esanda, aipatu behar da maila bakoitzak ikasturtean zehar zazpi bat gai desberdin lantzen dituela. Gai horietatik batek, maila guztietan, ikasturtean egindakoa berrikusten du. Beraz, gai hau ez da lanean jaso. Orain arte egin bezala, jarraian aurkezten den azterketa, laburpen bat besterik ez da. Xehetasun gehiago, amaierako eranskinean topatu daitezke (ikus III.III. eranskina).

Hirugarren mailako testu liburuei dagokienez, kulturartekotasunarekin lotutako erreferentzia zuzenak, bi gaietan topatu dira: **Egipto! Nilo ibaiaren oparia! eta Xangai Xian Xi, txinatarrekin ederki!**

**Egipto! Nilo ibaiaren oparia!** gaien, antzinako Egipto lantzen dute ikasleek. Zehazki, antzinako Egiptoren ondorengo alderdiak jorratzen dituzte: kokapena, munduko mapa batek lagundurik; garai haietako biztanleen bizimodua; hezkuntza eta hizkuntza, idazkera hieroglifikotik hasita idazkera hieratikora bitarte; gizarte – antolaketa; Egiptoko jainkoak eta eraikin nagusiak.

Kulturartekotasunari dagokionez, kulturaren alderdi tipikoak lantzen dituzte ikasleek. Hala ere esan beharra dago, hauen inguruan eskaintzen den informazioa egokia dela. Hau da, ez da arrazakeria edota beste kultura gutxiesteko joerarik topatu. Hobetzekotan, irudien kontua legoke. Izan ere, hauek, marrazkien bidez irudikatzen dira eta nahiko zaharkituak egoteaz gain, arropak, estereotipatuak aurkezten dira.

**Xangai Xian Xi, txinatarrekin ederki!** izeneko gaien, Txina lantzen dute ikasleek. Hasteko, beraien kokapenaren inguruan jarduten dira eta ondoren, Txina, bi garai Historikotan banatzen da: antzinako Txina eta gaur egungo Txina. Antzinako Txinari dagokionez, lehenik, bere historia aztertzen da, garai historiko ezberdinetan Txinan boterea izan duten Dinastia ezberdinak aurkeztuz. Jarraian, asmatzaile handiak izandakoak direla jasotzen da eta beraien asmakizunetako batzuk, inprenta eta papera esaterako, deskribatzen dira. Amaitzeko, Txinan hitz egiten diren hizkuntza ezberdinak jasotzen dira, beraien idazkera aztertuz.

Bestalde, egungo Txinan, demografia, ibai eta mendi nagusienak jorratzen hasten dira. Ondoren, sukaldaritza eta osasuna (akupuntura eta sendabelarrak) aztertzen dira. Amaitzeko, dantzatzen den artea (Tai Chia), janzkera eta makillajea lantzen dira. Azken atal hau, nahiko estereotipatua agertzen da. Esaterako, Tai Chia, bitxikeria moduan aurkezten da. Arropak berriz, tradizionalak dira eta ematen du oraindik horrela jantzita ibiltzen direla. Egoera honek, Van Dijkek (2004) aipatutako gaiaren inguruko irudikapen estereotipatua eraikitzen lagundu dezake.

Esan beharra dago, orokorrean, Txinaren inguruan aurkezten den oinarrizko informazioa egokia dela. Azken atala aparte utzita, ez da aurkitu estereotiporik edota beraien kultura gutxiesteko joerarik. Berriz ere, hobetzeko, irudien kontua legoke. Izan ere, marrazkien bidez irudikatuta agertzen dira eta gainera, gehienak jantzi tradizionalekin.

Bigarren mailako testu liburuei dagokienez, kulturartekotasunarekin loturiko erreferentziak oso azalekoak dira. Aipagarriena, **Boga – Boga Marinela** izeneko gaien aurkitzen da. Bertan, alde batetik, gure arbasoek balea ehizatzen zutenaren aipamen oso labur bat egiten da. Baina aipamen hutsean geratzen da, ez da gehiagorik sakontzen. Bestalde, itsasoko bidaiak lantzen direnean, lau nabigatzaileen izenak jasotzen dira: Cristobal Colon, Vasco de Gama, Fernando Magallanes eta Andres Urdaneta. Beste behin, kolonialismo garaia ezkutatu, izen hauek zientziaren aurrerapen eta aurkikuntzarekin lotzen direla aztertu da. Izan ere, liburuan pertsonai hauek egindako aurkikuntzak soilik jasotzen dira baina ez da aurkitu beste herrialdeetan egindako inbasio, indarrezko ebaspen eta sarraskiak (Van Dijk, 2004) eta (Torres, 2008).

Gainerako gaietan oso erreferentzia laburrak eta azalekoak topatu dira. Orrialde erdi edo batekoak gehienez. Gai hauetan nabarmenena, Coelhoren (2016) curriculum eurozentrikoaren ideia errepikatzen dela da. Gai gehientsuenetan, aztergai den gaiaren lanketa egiten denean, Euskal Herriko egoeraren kontaketa soilik mugatzen da. Beste herrialdeei, ez zaie jaramonik egiten. Salbuespena, gai batean aurkitu da. Bertan bi orrialde eskasetan munduko kontinenteak eta Europako herrialdeak kokatuta ageri dira mapen laguntzaz. Bestalde, beste gai batean, hizkuntza desberdinak lantzen dira hitz jakinekin eta aurreraxeago, Indioen eta Afrikako tribuen irudi estereotipatuak topatu dira, gerripeko eta apaingarri xelebreekin.

Lehen mailako testu liburuei dagokienean, gai batean soilik topatu dira kulturartekotasunarekin loturiko erreferentziak, **Greziatik Erromara** izenekoan. Bertan, antzinako Grezia eta Erroma aztertzen dituzte ikasleek. Greziari dagokionez, kokapena, garai hartako bizimodua, Miroren diskoboloa eta Greziako kondairak (Troia zaldia, Midas erregea, Atalanta eta urrezko sagarrak eta Pigmalion eta Galatea) lantzen dituzte. Erromatarrei buruz ere nahiko antzekoa ikasten dute. Zehazki: erromatar inperioaren kokapena, Romulo eta Remoren artelana, erromatarren bizimodua, erromatarren eraikuntza nagusiak eta erromatarren garaiko hiriak gure inguruan.

Bi ataletan ikusi eta aztertu da, ez dela edukirik apenas lantzen. Ikasleari, azaleko informazioa eskaintzen zaio, sakondu gabekoa. Horren ondorioz, ikasleek informazio urria jasotzen dute. Izan ere, informazioaren gehiengoa, irudien bidez ematen da eta idatziz egiten bada, aipamen hutsean geratzen da. Gainera, irudi hauek, marrazkien bidez irudikatuta agertzen dira eta nahiko estereotipatuta.

Txanela proiektuko liburuen azterketak amaituta, aurrez oinarritapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak aipatzen zituen beste kulturen inguruko irudikapen negatiboetatik, ondorengoak identifikatu daitezke: bazterkeria eta ahotsak isilarazi edota ukatzea, beste kulturen inguruan egiten diren aipamen urriengatik; exotismoa, Tai Chia; estereotipoak, marrazkien bidez irudikatutako irudietan; arrazakeriaren ukatzea, kolonialismo garaiak.

#### **5.2.4. Irudien analisisa**

Irudiei dagokienez, aipatu behar da ez dela ia beste kulturetako pertsonarik agertzen hiru argitaletxetako liburuetan. Argitaletxe bakoitzak irudiak plazaratzeko modu desberdina du. Hori horrela, labur, argitaletxe bakoitzean azterturikoa kontatzera pasako naiz:

Santillana argitaletxean azterturiko irudiak dira egokienak. Bertan, gaiarekin erlazionaturiko irudiak soilik agertzen dira. Oso pertsona gutxi topa daitezke lantzen diren gai desberdinetan. Hori bai, pertsonaren bat agertzen bada, arraza zurikoa eta kultura nagusikoa da.

Eki proiektuak, irudiak plazaratzeko duen modua desberdina da Santillanakoarekin alderatuz gero. Hemen, askoz ere pertsona gehiago topa daitezke liburuetan eta nabarmena da, ia denak arraza zurikoak eta kultura nagusikoak direla. Bestalde, irudiei buruz bilatu dudan desegokitasun handiena bertan topatu dut. Euskal Herria eta Senegalen arteko konparaketa egiten denean, garatuta eta garatu gabe dauden herrialdeen argazkiak aurkitu daitezke.

Txanela proiektuko testu liburuetako irudiak, antzekotasunak erakusten dituzte Eki proiektukoekin. Hemen ere, pertsona asko ateratzen dira, ia beti arraza zurikoak eta kultura nagusikoak. Txanela proiektuan arreta deitu didan gauzetako bat, beste kulturen inguruan hitz egiten denean, Egipto edo Txina esaterako, pertsona hauen argazkiak marrazki bidez irudikatuta plazaratzen direla.

Amaitzeko, oinarritapen teorikoan esandakoa berriz azpimarratuz, garrantzitsua da irudiak testuan hartzen duen indarrak jabetzea (Morales eta Lischinsky, 2008). Ez hori bakarrik, hiru argitaletxetako testu liburuetan aztertu da kultura nagusikoak ez diren pertsonak, Van Dijkek (2004) esango lukeen moduan, baztertirik daudela eta batzuetan, estereotipatuta ageri direla. Honek, gaiaren inguruko irudi estereotipatua eraikitzen lagundu diezaioke ikasleari eta kasurik okerreanean, arrazismoaren hauspotzea (Van Dijk, 2014) eta (Morales eta Lischinsky, 2008).

### 5.3. Esku hartze didaktikoa

Galdetegien eta testu liburuen azterketetan jasotako emaitzetatik abiatuta, jarraian aurkezten den esku hartzea proposatzen da. Azterketa horietan zenbait hutsune topatu dira eta esku hartze honen bitartez, hutsune horiek betetzea lortu nahi da. Horretarako, ikasleak bilakatuko dira protagonista. Zehazki, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat prestatu da esku hartzea, nahiz eta bigarren zikloko beste mailalara egokitu daitekeen. Proposamena aurrera eramateko, ezinbestekoa izango da irakasleak kulturartekotasunaren inguruan ongi formatuta eta informatuta egotea.

Guztira zazpi saio proposatu dira, 60 minutukoak. Saioak prestatzerako orduan, kontuan hartu dira beste zenbait egilek gaiaren inguruan argitaratuak dituzten jarduerak. Egile horiek proposatutako jardueretatik abiatuta, jarraian aurkezten den esku hartzea osatu da. Aipatu behar da, ez dela aurrera eramateko aukerarik izan. Helburuei dagokienez, honako hauek lortu nahi dira:

- Ikasleek kulturartekotasunaren ezaugarriak ikasi, ikasitakoa balioetsi eta praktikan jartzea.
- Kulturartekotasun balioetan hezten ikastea.
- Beraien nahiz inguru hurbileko pertsonen jarrerak aztertu eta jarrera horietan errefortzu positiboak eragitea.
- Modu zuzenean nahiz zeharka jasotzen den informazioa kritikoki aztertzeo gaitasunak garatzea.
- Munduko herrialde desberdinen kulturaren alderdi eta ezaugarri desberdinak aztertu eta balioestea.
- Ikasgelan dauden kultura eta ama hizkuntzak ezagutu, eta hauek une oro presente izatea.
- Ikasgela inklusibo bat sortzea, kultur-aniztasuna modu positibo batean baloratuko duena.
- Ikasgelako talde izaera eta kohesioa sendotzea.

#### Saioak

- **1.SAIOA:** kulturartekotasunean murgilduz

- **Helburuak:**

-Ikasleen aurre – ezagutzak identifikatzea.

-Ikasleei esku – hartzean ibiliko diren oinarritzko kontzeptuen hurbilpen eta azalpena.

- **Aurkezpena (5min)**

Ikasleei esku hartzearen nondik – norakoak aurkeztuko zaizkie. Bost saio hauetan zer landuko den, zergatik landuko den eta zertarako izango zaien baliagarria azalduko zaie.

- **Galdetegia (20min)**

ikasleek banaka eranskinean (ikus IV. eranskina) aurkitu daitekeen galdetegia beteko dute.

- **Oinarrizko kontzeptuak ezagutzuz (15min)**

Jarduera honetan, ikasleen aurre ezagutzak jarriko dira martxan. Horretarako, esku hartzean zehar erabiliko diren kontzeptu nagusien inguruan hausnartu beharko dute talde txikitan. Landuko diren kontzeptuak ondorengoak izango dira: kultura; kultur - aniztasuna; kulturartekotasuna; arrazakeria. Kontzeptu hauek beraientzat zer esanahi duten azaldu beharko dute. Behin kontzeptuak talde txikitan hausnartuta, beraien aurre - ezagutzak gainerako ikaskideen aurrean plazaratu beharko dituzte. Amaitzeko, irakasleak, beraien aurre ezagutzetatik abiatuta, ezagutza horiek osatuko ditu.

- **Esperimentua aztertuz (15min)**

Ikasleek 90eko hamarkadan grabaturiko esperimentu soziologiko bat (*begi marroiak eta beltzak*) ikusiko dute. Behin amaituta, talde handian hausnartu beharko dute, irakasleak planteaturiko galderetatik abiatuta: *Zer ikusi duzue? Zer gertatu da? Zein kontzepturekin lotuko zenukete ikusitakoa? Zergatik? Inoiz bizi/ikusi duzue horrelakorik? Zer egin duzue?*

- **Amaiera (5min)**

Talde handian, landutako gaiaren inguruko kezkek, zalantzak eta iritziak partekatzeko aukera egongo da. Saio ixteko, ikasleek egunero – egunero, kutxa batera, saioan zehar ikasitako ezagutza bat edota arreta deitu dien ezaugarri bat sartu beharko dute papertxo batean idatzita.

- **2. SAIOA:** jasotzen dugun informazioa aztertzen

---

- **Helburuak:**

-Aurreiritzi eta estereotipoak zer diren identifikatzen laguntzea eta hauen erabileraren inguruko hausnarketara bultzatzea.

-Ikasleei iristen zaien informazioa modu kritiko batean aztertzen irakastea

- **Aurkezpena (5 min)**

Lehenengo bost minutuak, landuko den gaiaren inguruan hitz egiteko erabiliko dira. Batez ere, estereotipoak eta aurreiritziak zer diren, nola sortzen diren eta zer eragiten duten landuko da.

- **Irudiak aztertzen** (20min)

Ikasleei, irudi desberdinak emango zaizkie eta irudi horien gaineko analisia egin beharko dute binaka (Ikus IV. eranskina). Hauen analisia amaitzean, talde handian, hauen gaineko azterketa egingo da.

- **Telefono hautsia** (5min)

Ikasleak telefono hautsia izeneko jolasean ibiliko dira. Horretarako lehenik, ikasle guztiak borobilean eserita jarriko dira eta belarriz belarri, irakasleak esandako testua pasatzen joango dira. Testua iristen zaion azkeneko ikasleari, ahots ozenez, zer iritsi zaion kontatu beharko du. Ondoren ikasleek talde handian, jolas hau zergatik egin den eta zer erlazio duen gaiarekin aztertu beharko dute.

- **Ematen diguten informazioa aztertzen** (25min)

Ikasleak lau talde txikitan bilduko dira eta talde bakoitzari informazio jakin bat (ikus IV. eranskina) emango zaio: egunkariko berri bat; ipuin bat (*ahatetxo itsusia*); bideoa labur bat (*panpin zuriaren esperimntua*); kanta baten letra (Bastidako eskola). Informazioa jasotzen dutenean, azterketari ekin beharko diote.

Irakasleak azterketa hori egiteko galdera laguntzaileak emango dizkie: *Zein informazio mota egokitu zaizue aztertzea? Zer kontatzen du informazioak? Zer aurkitu daiteke bertan? Ados edo desados zaudete bertan agertzen denarekin? Zergatik?*

Azterketa amaitzen dutenean, materiala taldez aldatuko dute, ahalik eta talde guztiek material guztia aztertzen duten arte. Behin azterketak amaitzen direnean, taldeka, beraiek jasotakoa partekatu beharko dute besteen aurrean.

- **Amaiera** (5min)

Talde handian, landutako gaiaren inguruko kezak, zalantzak, iritziak partekatzeko aukera egongo da. Horrez gain, aurreko egunean egin bezala, kutxa batera, saioan zehar ikasitako ezagutza bat edota arreta deitu dien ezaugarriren bat sartu beharko dute papertxo batean idatzita.

- **3. SAIOA:** pertsona erreferenteak, historiak ahaztuak edo baztertuak?

---

- **Helburuak:**

-Baztertuak edo ahaztuak izan diren pertsonai ezagunen (Angela deavis, Nelson



Mandela, Rosa Parks eta Martin Luther King) historietatik ikasi eta honen gaineko hausnarketa egitea.

-Ikasgela ikasleen ingurune hurbil bilakatzea.

- **Aurkezpena (5min)**

Gaurko saioan, mundu mailan zein pertsonai ezagun ezagutzen dituzten aztertuko dute ikasleek. Baita, baztertuak edota ahaztuak izan diren pertsonai famatuak ere. Horrekin batera, irakasleak egingo diren ekintza desberdinen berri emango die ikasleei.

- **Pertsonai ezagunak aztertuz (5 min)**

Talde handian lurrean eserita, irakasleak zein pertsonai ezagun ezagutzen dituzten galdetuko diete ikasleei. Gutxi gora behera, bakoitzak bat esandakoan amaituko da.

Ondoren irakasleak, hauen gaineko azterketa egingo du, batez ere azal kolorea erreferentziatzat hartuta. Jarraian, ondorengo galdera planteatuko die ikasleei: *ezagutzen al duzue futbolaria edota aktorea ez den arraza beltzeko pertsonai ezagunik?* Ezagutzen badute norbait, pertsona horren inguruan hitz egingo dute eta bestela hurrengo jarduerara pasako dira.

- **Arraza kolore beltza duten pertsona ezagunekin zer gertatu da? ( 20min)**

Ikasleak talde txikitan jarriko dira eta irakasleak ondoren aurkitu daitezkeen arraza beltzeko pertsonai ezagun baten argazkia eta izen – abizenak emango dizkie: Angela deavis, Nelson Mandela, Rosa Parks eta Martin Luther King.

Ikasleek hauen inguruko informazioa begiratuko dute interneten, ondoren planteatzen diren galderei jarraiki: *Zein da egokitu zaizuen pertsonaia? Ezagutzen zenuten? Nongoa da/ zen? Zein kulturatakoa da? Zergatik bilakatu da ospetsu bertan? Jakingo al zenuke esaten zergatik ezagutzen duten zuen inguru hurbilean edo zergatik ez duten ezagutzen?*

Galdera hauek behin erantzunda dituztela, beraiei egokitutako pertsonaia aurkeztuko diete gainerako ikaskideei galderak erreferentzia moduan hartuz.

- **Bakoitzaren erreferenteak ezagutuz (25 min)**

Ikasle bakoitzak miresten / erreferentetzat duen pertsona batean pentsatu beharko du eta ondoren, pertsona hori, gainerako ikaskideen aurrean aurkeztu. Horretarako, pertsona horren gaineko informazioa bilatzen utziko zaio ikasle bakoitzari. Nahi duten informazioa aurkezteko aukera izango dute, baina gutxienez ondorengo galderak erantzun beharko dituzte: *Zein da miresten duzun pertsona hori? Zergatik aukeratu duzu? Zer ekarpen egin dizu pertsona honek?* Informazioa, paper batean apuntatuko dute.

\*Garrantzitsua izango da, aurkezpena egitearekin batera, pertsonai horren argazkia

(marrazkia egiteko aukera utzi ere) inprimatzea irakasleak.

Aurkezpen guztiak amaituta daudenean, osatu duten fitxa / kartulina, gelako paretan itsatsiko dute.

- **Amaiera (5min)**

Talde handian, landutako gaiaren eta ikusitako pertsonaien inguruko kezka, zalantzak edota iritziak partekatzeko aukera egongo da. Gainera, aurreko egunetan bezala, kutxa batera, saioan zehar ikasitako ezagutza bat edota arreta deitu dien ezaugarriren bat sartu beharko dute papertxo batean idatzita.

- **4.SAIOA:** munduko hizkuntzak ezagutzen

- **Helburuak:**

- Munduko txoko desberdinetan erabiltzen diren hizkuntzen berri jakitea.
- Ikasgelako ama hizkuntzak ezagutu eta ikastetxean beraien presentzia bermatzea.

- **Aurkezpena (5min)**

Gaurko saioan, irakasleak beste kulturetako hizkuntzak aztertuko dituztela azalduko die hurrei eta bereziki, ama hizkuntza euskara edo gaztelania ez duten ikasleak bilakatuko direla protagonista.

- **Munduko hizkuntzak aztertzen (20 min)**

Ikasleak, talde txikitan elkartuko dira \* eta bakoitzari, kontinente bat esleituko zaio. Ikasleen egin beharra, ordenagailuen bidez, egokitutako kontinente horretan zein hizkuntza (nagusienak) erabiltzen diren aztertzea izango da. Horretarako, ondorengo galderei erantzun beharko diete ikasleek: *zein kontinente egokitu zaizu? Zenbat biztanle bizi dira? Zein hizkuntza dira gehien erabiltzen direnak?* Bilaketa egin ondoren, beste taldeei azalduko dizkie ahoz egindako bilaketen nondik – norakoak.

\*Ama hizkuntza euskara edo gaztelania ez duten ikasleak, beraien ama hizkuntzaren inguruko aurkezpena prestatuko dute, ondorengo galderei jarraiki: *Zein herrialde/lurraldetan erabiltzen zenuten? Ba al da inguruan hizkuntza berdina erabiltzen duen herrialde / lurralderik? Etxean ama hizkuntza erabiltzen al duzue? Zertan ezberdintzen direla esango zenuke zure ama hizkuntza eta euskara / gaztelania? Gustuko duzun beste zerbait gehitu nahi al duzu zure ama hizkuntzaren inguruan?*

- **Ikastetxeko ohar – seinaleak itzultzen (30min)**

Ikasleak talde handian, irakaslearen gidaritzapean, ikastetxeko ohar eta seinale

nagusiak zein hizkuntzetan dauden aztertuko dute. Euskaraz eta gaztelaniaz soilik egonez gero, klasean dauden beste ama hizkuntzetara itzuliko dituzte, ama hizkuntza euskara edo gaztelania ez duten ikasleen laguntzarekin.

- **Amaiera** (5 min)

Talde handian, landutako gaiaren inguruko kezak, zalantzak, iritziak partekatzeko aukera egongo da eta aurreko egunen antzera, kutxa batera, saioan zehar ikasitako ezagutza bat edota arreta deitu dien ezaugarri bat sartu beharko dute papertxo batean idatzita.

- **5. SAIOA: mundua ezagutuz I**

- **Helburuak**

-Munduko txoko eta txoko horien kulturaren alderdi desberdinak ezagutzea.

- **Aurkezpena** (5min)

Gaurko saioan, irakasleak beste herrialde edota probintzietako kulturen alderdi desberdinak landuko direla azalduko die ikasleei. Horrez gain, lanketa horretarako egingo diren ekintzen berri ere emango zaie.

- **Mundua ezagutuz** (30min)

Ikasle bakoitzari, herrialde edota probintzia bat egokituko zaio eta ondorengo ezaugarriak aztertu beharko ditu internet bidez:

*-Kokapena, non aurkitzen den herrialdea eta beste zein herrialderekin egiten duten muga; Herrialdea inguratzen duten ozeano edota itsasoak; Urtaroak eta ordutegiak (aldaketak/eguna eta gaua; Zenbat biztanle bizi diren; Nola deitzen zaie bertako herritarrei?; Hizkuntza nagusienak; Ohiturak; Sinesmenak; Ospakizunak; Janari ezagunak (janari horiek zergatik diren ezagun aztertu beharko dute); Musika; Artista ezagunak; Futbolaria edota aktorea ez den pertsonai ezagun baten deskribapen laburra; Arreta deitu dizun ezaugarri bat.*

- **Mundua azalduz** (20min)

Bilaketa amaitzean, ikasle bakoitzak aztertutako ezaugarriei jarraituz, egokitu zaien herrialde edota probintziaren laburpen txiki bat eskainiko die gainerakoei.

- **Amaiera** (5 min)

Talde handian, landutako gaiaren inguruko kezak, zalantzak, iritziak partekatzeko aukera egongo da eta aurreko egunen antzera, kutxa batera, saioan zehar ikasitako

ezagutza bat edota arreta deitu dien ezaugarri bat sartu beharko dute papertxo batean idatzita.

- **6. SAIOA:** mundua ezagutz II

- **Helburuak**

-Herralde edota probintzietako kulturen inguruan ikasitako ezagutzak martxan jartzea.

- **Aurkezpena** (5min)

Gaurko saioak, aurreko saioan beste herrialde edota probintzietako kulturen inguruan ikasitakoa gogorarazteko balioko duela azalduko zaie ikasleei. Jarraian, memoria hori aktibatzeke erabiliko diren ekintzen berri ere emango zaie.

- **Zenbat ikasi duzu?** (20 min)

Irakasleak, ikasle bakoitzak aurreko egunean kulturen inguruan aztertutako ezaugarri desberdinak kontuan hartuz, Kahoot bat osatuko du. Kahoot horretan, probintzia edota herrialde bakoitzaren ezaugarriekin lotutako galderak egongo dira eta ikasleek, galdera horien erantzun egokiak gogoratu beharko dituzte.

- **Triviala sortzen** (25min)

Talde txikitik edo bakarka, entzundako galderei jarraituz edota galdera berriak planteatuz, norbere etxekoekin edota familiakoekin kulturartekotasuna lantzeko triviala prestatuko dute ikasleek. Hori aurrera eramateko, irakasleak, erabiliko den materiala prest izan beharko du.

- **Amaiera** (5 min)

Talde handian, landutako gaiaren inguruko kezak, zalantzak, iritziak partekatzeko aukera egongo da eta aurreko egunen antzera, kutxa batera, saioan zehar ikasitako ezagutza bat edota arreta deitu dien ezaugarri bat sartu beharko dute papertxo batean idatzita.

- **7. SAIOA:** kulturartekotasuna presente

- **Helburuak:**

-Egun hauetan ikasitakoa jendartean partekatzea.

-Ikasgelako hormak ahalik modurik inklusiboenean atontzea.

- **Aurkezpena (5min)**

Kulturartekotasunarekin lotutako azken klasea dela gogora ekarriko da eta bertan batez ere, egun hauetan ikasitakoa gogoratu, berrikusi eta partekatu da.

- **Kutxaren irekiera (15min)**

Irakasleak egunero saio amaieran idazten joan diren papertxoak kutxatik aterako ditu eta banan-bana joango da irakurtzen. Horrez gain, papertxoetan idatzita datorrenaren inguruko iruzkinen bat gehituko du eta nahiz eta hauek anonimoak izan, norbaitek papertxoaren inguruan zerbait gaineratu nahi badu, besteekin partekatzeko aukera emango zaio.

- **Murala (40 min)**

Kulturartekotasunaren gaiari amaiera emateko, irakasleak paper handi batzuk ekarriko ditu eta ikasleek bertan, gaiarekin erlazionatutako edozein jakintza jartzeko aukera izango dute: hitzak, esaldiak, marrazkiak, pertsonaiak ... . Amaieran, denen artean, klaseko hormetan itsatsiko dute murala.

## 6. ONDORIOAK

Ondorioei dagokienean, desberdindu egingo dira testu liburuen azterketatik ateratakoak eta galdetegiaren bitartez lortutakoak. Izan ere, ezin dira modu berdinean tratatu bi planteamendu eta lan egiteko modu desberdin.

Testu liburuen azterketetatik ateratako emaitzek, oinarriztapen teorikoan jaso diren egileek planteaturiko ideiak baieztatzen dituzte. Guztira hiru argitaletxetako testu liburua aztertu dira: 12 liburu; 90 bat gai; 1000 orritik gora. Bada, hiru argitaletxetako testu liburuetan kulturartekotasunaren inguruan topatu den informazioa hutsaren hurrengo da. Oso gutxi aurkitu da eta gainera, topatu denetan, azaletik lantzen da. Beraz, Torresek (2008) esan moduan, baieztatu egiten da hiru argitaletxetako testu liburuetan munduaren filosofia modelo bat soilik eskaintzen zaiela ikasleei. Modelo horren protagonista noski, kultura nagusikoak dira.

Ildo beretik jarraituz, dudarik gabe, kultura nagusiaz hitz egiten ari garenean, gainerako kulturak aparte uzten ari gara. Edo hobeto esanda, baztertuta. Azterturiko hamabi testu liburuetan gehien errepikatu den ezaugarria izan da bazterkeria, Van

Dijkek (2004) oso ongi jasotakoa; kultura nagusikoak ez direnekiko bazterkeria. Honekin eskutik emanda, Van Dijk (2004) aipaturiko ahotsak isilaraztearen edo ukatzearen ezaugarria doa. Hau da, herrialde, leku edota inguru horretan nagusiak ez diren kulturak, ez dira agertzen edo agertzen badira, oso modu xumean lantzen dira.

Van Dijkek (2004) aipatu eta oinarritapen teorikoan jasotako ezaugarri hori soilik ez da izan topaturiko ezaugarri bakarra. Ezaugarri gehiago topatu dira eta guztiak ez badira ia denak. Nahiz eta testu liburuen mailak aldatzen joan eta argitaletxeak, gidoi bera errepikatu da ia testu liburuz-testu liburu. Izan ere, Van Dijkek (2004) ezaugarriak errepikatuz joan dira.

Hori horrela, bazterkeriaz aparte, hiru argitaletxetako eta maila desberdinetako testu liburuetan, arrazakeriaren ukatzea ageri da zenbait pasartetan (Van Dijk, 2004). Batez ere, Amerikaren aurkikuntzaren berri ematen denean, garai horietan Espainiako kolonizatzaileek herri horietan egindako sarraskien inguruko berririk ez topatu. Soilik, hauek egindako aurkikuntza eta aurkikuntza horiek ekarritako aurrerapenak ageri dira. Ezaugarri hau oso nabarmen identifikatu eta ikusi da nola errepikatzen joan den.

Horrez gainera, oso erraz identifikatu daitekeen beste ezaugarri bat, Coelhok (2016) aipaturiko curriculum eurozentrikoaren ideia da. Hemen ikusi da, besteak beste herrialdeak, klimak edota paisaiak aztertu direnean eta gai hauei buruzko adibideak jarri direnean, ia denak Europara, Espainiara edota Euskal Herrira mugatu direla. Batez ere, hiru argitaletxetatik joera nabarmenena, Santillana argitaletxeko liburuetan dator. Erakustera ematen die ikasleei, mundua Euskadin hasi, Espainian jarraitu eta European amaitzen dela.

Bestalde, beste kulturen inguruko informazioa topatu denean, lehen aipatu moduan, oso urria eta azalekoa izan da. Nabarmendu behar da, ez dela espresuki idatzitako testu arrazistatik topatu baina kulturaren arloren bat beti agertu izan dela estereotipatua. Esaterako, jantziak. Honek, Van Dijkek (2004) oso ongi jaso zuen moduan, gaiaren inguruko irudikapen estereotipatuaren ezaugarria eraikitzen laguntzen die ikasleei. Azken batean, arazo gehiengo gainerako herrialde eta kulturei buruz ematen den ikuspegi mugatutik sortzen da (Van Dijk, 2004). Honen adibide esanguratsuena, Eki proiektuan topatu daitekeen Euskal Herriaren eta Senegalen herrialdearen arteko konparaketarena da.

Ez da ahaztu behar, Morales eta Lischinsky (2008) egileek aipatu bezala, testu liburuetan informazioa modu bisualean ere ematen dela. Irudiek ere informazioa eskaintzen dute, nahiz eta hau modu oharkabeago batean jaso. Gauzak horrela,

Txanela eta Eki Proiektuko testu liburuetan azertu diren irudien gehiengoan, arraza zuriko eta kultur nagusiko pertsonaiak dira protagonista. Santillanan, irudiak askoz ere hobekiago landuta daude eta gehienbat, jorratzen ari diren gaiekin erlazonaturik datoz. Hala ere, pertsonaren bat agertzen bada, arraza zurikoa eta kultura nagusikoa da. Topatu denaren arabera, ondorioztatu daiteke, irudien bitartez ere kultura nagusikoak ez direnak baztertu egiten direla eta batzuetan, kultura hauetako pertsonak estereotipaturik aurkezten direla.

Guzti hau esan ondoren, atera daitekeen ondorio nagusia, hiru argitaletxetako testu liburuak ez daudela ongi prestatuak kulturartekotasunaren lanketa aurrera eramateko. Amelia Barquinek emandako informazioak (2009) eta Ikuspegiko datuek erakusten dute geroz eta gizarte kultur anitzago batean bizi garela eta kultur-aniztasun hori, ez da inongo momentutan islatuta topatu. Beraz, materiala behar da, baina ez edonolakoa: egungo kultur – aniztasuna modu egokian ikasleei irakatsiko dien materiala behar da, gezurrik eta isiltasunik gabekoa; kultur-aniztasunaren gaineko benetako hausnarketara bultzatuko duen materiala; kultur-aniztasuna onartzera soilik mugatuko ez den materiala (Quintanilla, 1996). Kulturen arteko elkartasunean, berdintasunean eta errespetuan oinarrituko den materiala behar da (Coelho, 2016).

Galdetegi dagokienez, hauen gaineko emaitzen hausnarketa egin ondoren, kulturartekotasunari ematen zaion garrantzia ikastetxe guztietan ez dela berdina ikertu da. Hori horrela, esan daiteke beti ere galdetegien emaitzak oinarri bezala hartuta, garrantzia gutxien ikaztegietako Herri Eskolan antzeman dela. Aldiz, Tolosako Samaniego Ikastetxean eta Alegiako Herri Eskolan, kulturartekotasunari garrantzi handiagoa ematen zaio. Ondorio horietara iristeko, ezinbestekoa izan da galdetegia erantzun duten tutoreen ikastetxeak, hiru, beraien artean konparatzea. Konparaketa hori, galdetegia osatzen duten hiru atalekin egin da eta jarraian, atal bakoitzean ikastetxeen artean egin diren alderaketa horien ondorioak aurkezten dira:

Eskola mailako errealitateari buruz hitz egiten denean, ondorio nahiko garbiak atera daitezke. Ikaztegietako Herri Eskolak kenduta, Alegiako eta Tolosako Samaniego ikastetxeek, programa planifikatu bat dute atzerriko ikasle eta gurasoen orientaziorako. Hala ere, esan behar da ikasle eta guraso horien orientazioaz arduratzen den talde espezifiko bat dagoela ikastetxe guztietan. Beste behin, Ikaztegietako Herri Eskola kenduta, Alegiako eta Tolosako Samaniego ikastetxeetako tutoreen gehiengoak, ezagutzen ditu kulturartekotasuna edota inklusioa lantzeko dauzkan programa ezberdinak.

Bestalde, hiru ikastetxeetan ekitaldi bereziak planifikatu arren eskolako kultura guztiak ahalik eta modurik inklusiboenean hartzeko, kulturartekotasuna ez da inon irizpide ikasliburuak eta beste baliabide batzuk hautatzerako garaian. Horrez gain, inongo ikastetxetan gurasoek ez dute parte hartzen ikasliburu edota beste baliabideen aukeraketan.

Ikasgelako errealitateari erreparatuz gero, ondorioak ez dira hain bateratuak. Ikaztegietako Herri Eskolako tutoreak kenduta, Alegiako Herri eskolakoak eta Tolosako Samaniego Ikastetxeak, informatuta daude ikasgelako kulturen inguruan. Ikasleen hizkuntzetako zenbait esamolde, ordea, Alegiako Herri Eskolako tutoreek dakizkite. Halaber, hiru ikastetxetako tutoreen gehiengoak, kulturartekotasuna lantzeko jarduerak antolatzen dituzte eta jarduera hauek, kultura desberdinen inguruan dauden estereotipoak apurtzen laguntzen dute.

Era berean, hiru ikastetxetako tutoreen gehiengoa kontziente da erabiltzen diren ohiko materialetan kultura batzuen nagusitasuna agertzen dela; baina hiru ikastetxetako oso tutore gutxi ohartzen dira zenbait ikasle ez direla sentituko identifikatuta erabiltzen dituzten materialekin. Hori dela eta, hiru ikastetxetako tutoreen gehiengoak, kulturartekotasunarekin loturiko edukiak ez dituzte ohiko testu liburuen bitartez irakasten; material hori tutoreen gehiengoak, Ikaztegietako Herri Eskolakoek kenduta, jatorri ezberdinetako ikasleen beharretara egokitzen dute.

Jasotako formakuntzari dagokionez, ondorio garbiagoak atera dira. Ikaztegietako eta Alegiako ikastetxeetako tutoreen erdia gutxienez joan izan da inoiz bai ikastetxean bai ikastetxetik kanpo kulturartekotasuna lantzeko antolatu diren ikastaro, jardunaldi edo formakuntzaren batera. Tolosako Samaniego ikastetxean aldiz, kulturartekotasuna lantzeko formakuntzak ikastetxetik kanpoko antolatzen direnean, ikastetxean bertan ez bezala, tutoreen gutxiengoa joan da. Hala ere, hiru ikastetxetako tutoreen gehiengoak azpimarratzen dute kulturartekotasunaren inguruan jaso duten formazioa ez dela nahikoa.

## **7. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK**

Behin lana egin, irakurri, zuzendu eta ongi aztertuta, badira zenbait atal edota aspektu etorkizunean hobetzea interesgarria izango liratekeenak.

Lanaren ikerketan pisu handiena hartu duen eta ikerketa lerro nagusi izan den testu liburuen azterketa, sakonki aztertzeko aukera izan arren, bere mugak dituela ikusi da. Izan ere, Gizarte Zientzien edo Ingurunearen arloa soilik aztertu da. Honek, ikasgai bateko testu liburuak aztertzea soilik suposatu du. Hortik kanpoko ikasgaietako testu



liburuak ez dira aztertu. Beraz, testu liburuetan kulturartekotasunaren inguruko informazioa topatzeko aukera txikitu egin da. Aproposena, azterketa bere osotasunean egiteko, beste ikasgaietako testu liburuak ere aztertzea izango litzateke.

Azterketa are osoago bat burutzeko, beste ikasgaiak kontuan hartzeaz gain, ezinbestekoa izango litzateke beste argitaletxetako testu liburu gehiago ere aztertzea. Azken batean, hiru argitaletxetako testu liburuak aztertu dira eta nahi ala ez ni bizi naizen inguruko errealitate eta esparru mugatu bat erakusten dute. Ziurrenik, ikastetxe gehiagotan ere erabiliko dira testu liburu hauek baina ez da hori egiaztatzen duten daturik bildu. Dena den, jasota geratzen da etorkizun baterako argitaletxe gehiagoren testu liburuak aztertzearen beharra.

Horrez gain, testu liburuetan kulturen inguruan idatzita dagoena soilik aztertzeko denbora egon da. Hau da, ondoren ez da behatzerik izan ea irakasleek eduki horiek nola irakasten dituzten. Izan ere, edukiak desegokiak edota estereotipatuak egonagatik ere, irakasle on batek diskurtso egoki bat plazaratuz, testu liburuetan datorren mezua aldatzeko aukera dago eta.

Galdetegien bitartez, ikastetxeek kulturartekotasunaren inguruan bizi duten errealitatea aztertu da. Galdetegietan ere hutsuneak topatu dira. Batetik, COVID-19ak sorturiko egoera ezegonkorraren ondorioz, nahi baina ikastetxe gutxiagotan pasa da galdetegia. Horrek, lagina txikia izatea ekarri du eta zailtasunak egon dira gaiaren inguruko ikuspegi orokorragoa lortzerako orduan. Bestetik, galdetegien erantzunetan, zintzotasuna ezin izan da bermatu. Hau da, erantzun irregularrak emateko aukera egon da. Hori ekiditeko, egokiena galdetegia bete behar zuten irakasleekin zuzeneko hartu-emana izan eta hartu - eman horretatik galdera -erantzunak jasotzea izango litzateke. Gainera, elkarrizketek beti laguntzen dute bizi den errealitate zehatzagoaren berri izaten.

Zintzotasun horren lekukoetako bat, galdetegian, ikasgelako errealitatearen atalean jasotzen den galdera bat da. Galdera horretan, kulturartekotasunarekin loturiko edukiak testu liburuak jarraituz irakasten dituzten galdetu da eta ia denek ezezkoa erantzun dute. Bestelako materialak erabiliz irakasten dituztela kulturartekotasunarekin loturiko edukiak. Material horiek, ordea, ez da aztertzeko aukerarik izan eta ondorioz, ez da behatu kulturartekotasuna lantzeko erabiltzen dituzten material alternatibo horiek egokiak diren ala ez.

Azkenik, aipatu berri diren hutsuneez jakitun eta hauei erantzuna eman asmoz, testu liburuen gainean egindako azterketa eta galdetegien emaitzetatik abiatuta, esku

hartze didaktiko baten proposamena luzatu da. Egindako proposamena, martxan jartzeko moduan egonagatik, airean geratu den susmoa dut. Izan ere, ez da aukerarik izan aurrera eramateko eta kolokan geratu da eduki lezakeen eraginkortasuna. Horregatik, nahi ala ez, azken batean proposamen hutsal batean geratu da.

## 8. ERREFERENTZIAK

Aierdi, X. (2018). En pos de un futuro razonable. In Moreno Márquez, G. (koord.) *El proceso de integración del colectivo inmigrante en Euskadi*. Bilbao, Ikuspegi. 265-271.

Aretxabaleta, I. (2018). *Kulturartekotasuna, eskola baten behaketa*. Webgune honetatik berreskuratua:  
[https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/28604/GRAL\\_Aretxabaleta%2C\\_Irati.pdf?sequence=3&isAllowed=y](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/28604/GRAL_Aretxabaleta%2C_Irati.pdf?sequence=3&isAllowed=y)

Aula Intercultural. Webgune honetatik berreskuratua: <https://aulaintercultural.org/>

Barquin, A. (2006). Kulturartekotasuna eskolan. *Jakingarriak*, 58, 12-13 or. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.mondragon.edu/documents/20182/61440/jakingarriak-58.pdf/c01be50b-6f28-43c8-a614-66d2e9b239a8>.

Barquin, A. (2009). Etorकिनен seme – alabak eskolan. Zer aldatzen ari da? *Hik hasi* 143, 29-32. orr.

Coelho, E. (2016). *Eskola kulturantzunetan irakastea eta ikastea*. UPV/EHU. Bilbo.

Eitb. (2019). *Bastidako ikastetxean arrazakeriaren aurkako abestia sortu dute*. Webgune honetatik berreskuratua:  
<https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/bideoak/osoak/6178435/bideoa-bastidako-herri-ikastetxean-arrazakeriaren-aurkako-abesti-sortu-dute/>

Ekigunea LH 4 [Internet]. Ekigunea.eus. 2020. Webgune honetatik berreskuratua:  
<https://www.ekigunea.eus/lh/lh4/>

Ekigunea LH 5 [Internet]. Ekigunea.eus. 2020. Webgune honetatik berreskuratua:  
<https://www.ekigunea.eus/lh/lh5/>

Ekigunea LH 6 [Internet]. Ekigunea.eus. 2020. Webgune honetatik berreskuratua:

<https://www.ekigunea.eus/lh/lh6/>

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua. (2013). *Zurumuruak desegiten*. Webgune honetatik berreskuratua: <https://egk.eus/eu/zurumuruak-desegiten/>

Gimeno, R. (2017). *Diferentes pero iguales: una educación intercultural en las aulas de educación*. Webgune honetatik berreskuratua: [http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/168698/TFG\\_2017\\_Gimeno\\_SalafrancaRebeca.pdf?sequence=1](http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/168698/TFG_2017_Gimeno_SalafrancaRebeca.pdf?sequence=1)

Gizarte zientziak, 1 Lehen Hezkuntza (2015). Etxebarri, [Bizkaia]: Zubia Editoriala, S.L./ Santillana Educación, S.L.

Gizarte zientziak, 2 Lehen Hezkuntza (2015). Etxebarri, [Bizkaia]: Zubia Editoriala, S.L./ Santillana Educación, S.L.

Gizarte zientziak, 3 Lehen Hezkuntza (2015). Etxebarri, [Bizkaia]: Zubia Editoriala, S.L./ Santillana Educación, S.L.

Gizarte zientziak, 4 Lehen Hezkuntza (2015). Etxebarri, [Bizkaia]: Zubia Editoriala, S.L./ Santillana Educación, S.L.

Gizarte zientziak, 5 Lehen Hezkuntza (2015). Etxebarri, [Bizkaia]: Zubia Editoriala, S.L./ Santillana Educación, S.L.

Gizarte zientziak, 6 Lehen Hezkuntza (2015). Etxebarri, [Bizkaia]: Zubia Editoriala, S.L./ Santillana Educación, S.L.

Google irudiak (1). Webgune honetatik berreskuratua:

[https://www.google.com/search?q=kenia+ciudad&tbm=isch&ved=2ahUKEwjOjcdFge3nAhUF9hoKHY\\_5DhEQ2-cCegQIABAA&oq=kenia+&gs\\_l=img.1.0.35i39j0i19i9.463963.465870..468108...1.0.0.90.487.6.....0....1..gws-wiz-img.....10..35i362i39j0i3j0i30.35J2iQGIZVg&ei=YzxVXo7QCYXsa4\\_zu4gB&bih=657&biw=1366&rlz=1C1CHBD\\_esES762ES762#imgrc=wrPoba9x\\_wV7qM](https://www.google.com/search?q=kenia+ciudad&tbm=isch&ved=2ahUKEwjOjcdFge3nAhUF9hoKHY_5DhEQ2-cCegQIABAA&oq=kenia+&gs_l=img.1.0.35i39j0i19i9.463963.465870..468108...1.0.0.90.487.6.....0....1..gws-wiz-img.....10..35i362i39j0i3j0i30.35J2iQGIZVg&ei=YzxVXo7QCYXsa4_zu4gB&bih=657&biw=1366&rlz=1C1CHBD_esES762ES762#imgrc=wrPoba9x_wV7qM)

Google irudiak (2). Webgune honetatik berreskuratua:

[https://www.google.com/search?q=chabolismo+madrid&tbm=isch&ved=2ahUKEwixkfjcg3nAhVK0RoKHW2ADS0Q2-cCegQIABAA&oq=chabolismo+madrid&gs\\_l=img.3..0i30.390920.397946..39816](https://www.google.com/search?q=chabolismo+madrid&tbm=isch&ved=2ahUKEwixkfjcg3nAhVK0RoKHW2ADS0Q2-cCegQIABAA&oq=chabolismo+madrid&gs_l=img.3..0i30.390920.397946..39816)

[3...3.0..2.143.2395.28j2.....0....1..gws-wiz-  
img....10..35i39j0i8i30j35i362i39j0i3j0i19j0i30i19.EJHO-  
a66buc&ei=IDxVXrH3Esqia-  
2AtugC&bih=657&biw=1366&rlz=1C1CHBD esES762ES762#imgrc=O-  
9dA 4hFLmNdM](https://www.google.com/search?q=3...3.0..2.143.2395.28j2.....0....1..gws-wiz-img....10..35i39j0i8i30j35i362i39j0i3j0i19j0i30i19.EJHO-a66buc&ei=IDxVXrH3Esqia-2AtugC&bih=657&biw=1366&rlz=1C1CHBD esES762ES762#imgrc=O-9dA 4hFLmNdM)

Google irudiak (3). Webgune honetatik berreskuratua:

[https://www.google.com/search?q=vertedero&tbm=isch&ved=2ahUKEwiCq-  
XXhO3nAhVHHBoKHcC1DysQ2-  
cCeqQIABAA&oq=vertedero&gs\\_l=img.3..35i39j0i19i9.31013.32454..32917...1.0.  
.0.128.751.8j1.....0....1..gws-wiz-  
img....10..35i362i39.LYBYi sSx8Y&ei=rj9VXoKcMse4aMDrvtqC&bih=657&biw=  
1366&rlz=1C1CHBD esES762ES762#imgrc=3STpXV7YKYZCJM](https://www.google.com/search?q=vertedero&tbm=isch&ved=2ahUKEwiCq-XXhO3nAhVHHBoKHcC1DysQ2-cCeqQIABAA&oq=vertedero&gs_l=img.3..35i39j0i19i9.31013.32454..32917...1.0..0.128.751.8j1.....0....1..gws-wiz-img....10..35i362i39.LYBYi sSx8Y&ei=rj9VXoKcMse4aMDrvtqC&bih=657&biw=1366&rlz=1C1CHBD esES762ES762#imgrc=3STpXV7YKYZCJM)

Google irudiak (4). Webgune honetatik berreskuratua:

[https://www.google.com/search?q=calle+de+sudrafica&tbm=isch&ved=2ahUKEw  
jAw vehe3nAhVTLxoKHfeFD70Q2-  
cCeqQIABAA&oq=calle+de+sudrafica&gs\\_l=img.3...35650.41396..41588...0.0..0.  
151](https://www.google.com/search?q=calle+de+sudrafica&tbm=isch&ved=2ahUKEwjAw vehe3nAhVTLxoKHfeFD70Q2-cCeqQIABAA&oq=calle+de+sudrafica&gs_l=img.3...35650.41396..41588...0.0..0.151)

Google irudiak (5). Webgune honetatik berreskuratua:

[https://www.google.es/search?q=blancos+jugando+al+futbol&tbm=isch&ved=2ah  
UKEwivhYnah-3nAhVDHBoKHTdSDuAQ2-  
cCeqQIABAA&oq=blancos+jugando+al+futbol&gs\\_l=img.12...0.0..253832...0.0..0  
.0.0.....0.....gws-wiz-img.u6roQgsXtbY&ei=2EJVXq-  
5N8O4aLekuYAO&authuser=0&bih=657&biw=1366&hl=eu](https://www.google.es/search?q=blancos+jugando+al+futbol&tbm=isch&ved=2ahUKEwivhYnah-3nAhVDHBoKHTdSDuAQ2-cCeqQIABAA&oq=blancos+jugando+al+futbol&gs_l=img.12...0.0..253832...0.0..0.0.0.....0.....gws-wiz-img.u6roQgsXtbY&ei=2EJVXq-5N8O4aLekuYAO&authuser=0&bih=657&biw=1366&hl=eu)

Grasa, R. (1988). Racismo en los libros infantiles y juveniles. *En cuadernos de pedadogía*, 163, 93-97.or.

Ikastolen Elkarte [Internet]. Ikastola.eus. 2020. Webgune honetatik berreskuratua:

<https://www.ikastola.eus/ikasmaterialak/txanela>

Ikastolen Elkarte [Internet]. Ikastola.eus. 2020.Webgune honetatik berreskuratua:

<https://www.ikastola.eus/ikasmaterialak/eki>

Ikuspegi (1). *Jatorri atzerritarreko biztanleriaren eta biztanleria osoaren bilakaera EAEn eta lurralde historikoetan*. 1998-2019. Webgune honetatik berreskuratua:

[https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/castellano/evolucion/2019/Evolucion  
\\_extranj\\_total\\_2019EUS.pdf](https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/castellano/evolucion/2019/Evolucion_extranj_total_2019EUS.pdf)

- Ikuspegi (2). *EAEko eskualdeak eta beren jatorri atzeritarreko biztanleriaren portzentajea*. 2019. urtea. Webgune honetatik berreskuratua:  
[https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/euskera/2019/Comarcas\\_extranj\\_2019eus.pdf](https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/euskera/2019/Comarcas_extranj_2019eus.pdf)
- Ikuspegi (3). *Immigrazioa eskualdearen eta nazionalitatearen arabera*. 2003. urtea. Webgune honetatik berreskuratua:  
<https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/euskera/PV-comarcas-nacionalidadEusk.pdf>
- Informativos (2012). *Viral campaña “ Racismo en México”*. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.youtube.com/watch?v=5bYmtq2fGmY>
- Menéndez, A. (2017). *Percepción del profesorado acerca de la diversidad cultural de las aulas asturianas: el caso del CP. Narciso Sánchez de Olloniego*. Webgune honetatik berreskuratua:  
[http://digibuo.uniovi.es/dspace/bitstream/10651/43779/3/TFM\\_AndreaMenendezGarcia.pdf](http://digibuo.uniovi.es/dspace/bitstream/10651/43779/3/TFM_AndreaMenendezGarcia.pdf)
- Morales, A. eta Lischinsky, O. (2008). Discriminación a través de las ilustraciones de libros de texto de Educación Secundaria Obligatoria en España. *Discurso&Sociedad*, 2(1), 115-152 or. Webgune honetatik berreskuratua:  
<http://www.dissoc.org/ediciones/v02n01/DS2%281%29Morales%20&%20Lischinsky.pdf>
- Quintanilla, E. (1996). La fabricación del consentimiento: libros de texto y diversidad cultural. *Materiales para una educación antirracista*. Talasa, Madrid.
- Ricardo, C. (2013). *Formación y Desarrollo de la Competencia Intercultural en Ambientes Virtuales de Aprendizaje*. Webgune honetatik berreskuratua:  
[http://e-spacio.uned.es/fez/eserv/tesisuned:Educacion-Ctricardo/Documento\\_2.pdf](http://e-spacio.uned.es/fez/eserv/tesisuned:Educacion-Ctricardo/Documento_2.pdf)
- Ruíz, A . (2015). Formación multicultural en el aula de primaria. Webgune honetatik berreskuratua: [https://biblioteca.unirioja.es/tfe\\_e/TFE001194.pdf](https://biblioteca.unirioja.es/tfe_e/TFE001194.pdf)
- Santillana. *Nuestras Señas de Identidad* [Internet]. Webgune honetatik berreskuratua:  
<https://santillana.com/es/nuestras-senas-de-identidad/>

- Torres J. (2008). Diversidad cultural y contenidos escolares. *Revista de educación*, 345, 83-110 or. Webgune honetatik berreskuratua: [https://www.researchgate.net/publication/28200103\\_Diversidad\\_cultural\\_y\\_contenidos\\_escolares](https://www.researchgate.net/publication/28200103_Diversidad_cultural_y_contenidos_escolares)
- Txanela LH 1 | BlinkLearning [Internet]. Blinklearning.com. 2020. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.blinklearning.com/LMS/busqueda.php?&teacher=1>
- Txanela LH 2 | BlinkLearning [Internet]. Blinklearning.com. 2020. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.blinklearning.com/LMS/busqueda.php?&teacher=1>
- Txanela LH 3 | BlinkLearning [Internet]. Blinklearning.com. 2020. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.blinklearning.com/LMS/busqueda.php?&teacher=1>
- Van Dijk T. A. (2004). Racismo, discurso y libros de texto. *Capitel*. Webgune honetatik berreskuratua: <http://www.iaeu.es/etextos/registro.php?url=Li9jb250ZW5pZG9zLnBocD9pZF90ZXh0bz03>
- Villa, R. Cruz Roja Española (2009). *Cuaderno de actividades: una propuesta para trabajar la interculturalidad*. Webgune honetatik berreskuratua: <https://aulaintercultural.org/2013/02/27/una-propuesta-para-trabajar-la-interculturalidad-cuaderno-de-actividades/>

## 9. ERANSKINAK

### I. ERANSKINA: GALDETEGIA

Galdetegi honen bitartez ikastetxe eta ikasgeletan kulturartekotasunak bizi duen errealitatea aztertu nahi da. Horregatik, jarraian aurkezten diren galderetan **ez da iritzia eman behar**, ikastetxe eta ikasgeletako errealitatea irudikatu behar da. Planteatzen diren galderen erantzunak lau motatakoak izango dira: 0, 1 ,2 , 3 edo 4. Garrantzitsua da, galderak zintzotasunez erantzutea.

Galdetegian hiru zati desberdindu dira: lehen galderak eskola mailakoak izango dira; bigarren zatiko galderak ikasgelako errealitatea edukiko dute oinarri; azken galderak, kulturartekotasunaren inguruan jasotako formakuntzari buruzkoak izango dira.

*Markatu x batez zure erantzuna: 0 ez da inondik - inora betetzen; 1 ez da betetzen; 2 erdizka betetzen da; 3 betetzen da; 4 erabat betetzen da.*

#### Eskola mailako errealitatea

1. Bada programa planifikatu bat atzerriko ikasle eta gurasoak hartzeko eta orientatzeko.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

2. Ikasle eta guraso horien harreraz eta orientazioaz arduratzen den talde espezifiko bat dago ikastetxean.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

3. Talde (talderen bat arduratzen bada) edo eskolak kulturartekotasuna edota inklusioa lantzeko dauzkan programa ezberdinak ezagutzen ditut.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

4. Ekitaldi bereziak planifikatzen dira eskolako kultura guztiak ahalik eta modurik inklusiboenean hartzeko, guztiei trataera eta garrantzia berdina emanez.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

5. Kulturartekotasuna irizpide bat da ikasliburuak eta beste baliabide batzuk hautatu eta ebaluatzeko prozesuan.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

6. Ikasliburu edota beste baliabideen hautaketan ikasle eta gurasoek parte hartzen dute.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

### **Ikasgelako errealitatea**

7. Irakasleak ezagunak ditu ikasleen hizkuntzetako zenbait esamolde.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

8. Ikasgelako ikasleen kultura guztien inguruan informatuta nago.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

9. Ikasle berri bat heldu denean eskolako harrera plana erabili izan dut.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

10. Ikasgai espezifiko batean soilik aztertzen dira munduko kulturak.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

11. Ikasleekin kulturartekotasuna lantzeko jarduerak prestatu izan ditut.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

12. Kulturartekotasunarekin lotutako edukiak testu liburuei jarraituz irakasten ditut.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

13. Erabiltzen diren liburu, bideo eta beste materialetan jatorri askotako jendea ageri da denetariko gauzak egiten.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

14. Kontziente naiz erabiltzen ditudan materialetan kultura batzuen nagusitasuna agertzen dela beste batzuen gainetik.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

15. Ohartzen naiz zenbait ikasle ez direla identifikatuta sentituko erabiltzen ditudan materialekin.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

16. Erabiltzen ditudan materialek kulturen inguruan dauden estereotipoak apurtzen laguntzen dute.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

17. Klasean ditudan jatorri ezberdinetako ikasleen beharrak identifikatu eta materiala errealitate horretara egokitzen dut.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

### **Jasotako formakuntza**

18. Eskolak kulturartekotasunaren inguruan prestatu izan duen ikastaro, jardunaldi edo formakuntzaren batean parte hartu dut.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

19. Eskolatik kanpo kulturartekotasunaren inguruan prestatu izan diren ikastaro, jardunaldi edo formakuntzetan parte hartu dut.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---

20. Uste dut irakasle bezala kulturartekotasuna lantzeko dudan formazioa nahikoa dela.

0	1	2	3	4
---	---	---	---	---


## **II. Ikastetxe desberdinetako galdetegiaren emaitzak**

### **II.I Ikaztegietako Herri Eskola**


A) Eskola mailako errealitatea




## 1. Bada programa planifikatu bat atzerriko gurasoak hartzeko eta orientzeko




## 2. Ikasle eta guraso horien harreraz eta orientazioaz arduratzen den talde espezifiko bat dago




### 3. Talde (talderen bat arduratzen abda) edo eskolak kulturartekotasuna edota inklusioa lantzeko dauzkan programa ezberdinak ezagutzen ditut




### 4. Ekitaldi bereziak plafikatzen dira eskolako kultura guztiak ahalik eta modurik inklusiboenean hartzeko, guztiei tratera eta garrantzia berdina emanez



### 5. Kulturartekotasuna irizpide bat da ikasliburuak eta beste baliabide batzuk hautatu eta ebaluatzeko prozesuan




### 6. Ikasliburu edota beste baliabideen hautaketan ikasle eta gurasoak parte hartzen dute




B) Ikasgelako errealitatea


### 7. Ezagunak ditut ikasleen hizkuntzetako zenbait esamolde




### 8. Ikasgelako ikasleen kultura guztien inguruan informatuta nago




### 9. Ikasle berri bat heldu denean eskolako harrera plana erabili izan dut




### 10. Ikasgai espezifiko batean soilik aztertzen dira munduko kulturak




### 11. Ikasleekin kulturartekotasuna lantzeko jarduerak prestatu izan ditut




### 12. Kulturartekotasunarekin lotutako edukiak testu liburuei jarraituz irakasten ditut




### 13. Erabiltzen diren liburu, bideo eta beste materialetan jatorri askotako jendea ageri da denetariko gauzak egiten




### 14. Kontziente naiz erabiltzen ditudan materialetan kultura batzuen nagusitasuna agertzen dela beste batzuen gainetik



### 15. Ohartzen naiz zenbait ikasle ez direla identifikatuta sentituko erabiltzen ditudan materialekin




### 16. Erabiltzen ditudan materialek kulturen inguruan dauden estereotipoak apurtzen laguntzen dute






**17. Klasean ditudan jatorri ezberdinetako ikasleen beharrak identifikatu eta materiala errealitate horretara egokitzen dut.**




C) Jasotako formakuntza


**18. Eskolak kulturartekotasunaren inguruan prestatu izan diren ikastaro, jardunaldi edo formakuntzetan parte hartu dut**



### 19. Eskolatik kanpo kulturartekotasunaren inguruan prestatu izan diren ikastaro, jardunaldi edo formakuntzetan parte hartu dut





### 20. Uste dut irakasle bezala kulturartekotasuna lantzeko dudan formazioa nahikoa dela




## II.II Alegiako Herri Eskola


### A) Eskola mailako errealitatea




### 3. Talde (talderen bat arduratzen bada) edo eskolak kulturartekotasuna edota inklusioa lantzeko dauzkan programa ezberdinak ezagutzen ditut




### 4. Ekitaldi bereziak planifikatzen dira eskolako kultura guztiak ahalik eta modurik inklusiboenean hartzeko, guztiei trataera eta garrantzia berdina emanez





### 5. Kulturartekotasuna irizpide bat da ikasliburuak eta beste baliabide batzuk hautatu eta ebaluatzeko prozesuan




### 6. Ikasliburu edota beste baliabideen hautaketan ikasle eta gurasoek parte hartzen dute




B) Ikasgelako errealitatea




### 9. Ikasle berri bat heldu denean eskolako harrera plana erabili izan dut




### 10. Ikasgai espezifiko batean soilik aztertzen dira munduko kulturak



## 11. Ikasleekin kulturartekotasuna lantzeko jarduerak prestatu izan ditut




## 12. Kulturartekotasunarekin lotutako edukiak testu liburuei jarraituz irakasten ditut







### 13. Erabiltzen diren liburu, bideo eta beste materialetan jatorri askotako jendea ageri da denetariko gauzak egiten




### 14. Kontziente naiz erabiltzen ditudan materialetan kultura batzuen nagusitasuna agertzen dela beste batzuen gainetik




### 15. Ohartzen naiz zenbait ikasle ez direla identifikatuta sentituko erabiltzen ditudan materialekin



### 16. Erabiltzen ditudan materialek kulturen inguruan dauden estereotipoak apurtzen laguntzen dute




### 17. Klasean ditudan jatorri ezberdinetako ikasleen beharrak identifikatu eta materiala errealitate horretara egokitzen dut




C) Jasotako formakuntza


### 18. Eskolak kulturartekotasunaren inguruan prestatu izan duen ikastaro, jardunaldi edo formakuntzaren batean parte hartu dut



**19. Eskolatik kanpo kulturartekotasunaren inguruan prestatu izan diren ikastaro, jardunaldi edo formakuntzetan parte hartu dut**





**20. Uste dut irakasle bezala kulturartekotasuna lantzeko dudan formazioa nahikoa dela**




## II.III Tolosako Samaniero ikastetxea


### A) Eskola mailako errealitatea




### 3. Talde (talderen bat arduratzen bada) edo eskolak kulturartekotasuna edota inklusioa lantzeko dauzkan programa ezberdinak ezagutzen ditut




### 4. Ekitaldi bereziak planifikatzen dira eskolako kultura guztiak ahalik eta modurik inklusiboenean hartzeko, guztiei trataera eta garrantzia berdina emanez





### 5. Kulturartekotasuna irizpide bat da ikasliburuak eta beste baliabide batzuk hautatu eta ebaluatzeko prozesuan



### 6. Ikasliburu edota beste baliabideen hautaketan ikasle eta gurasoek parte hartzen dute




B) Ikasgelako errealitatea







### 9. Ikasle berri bat heldu denean eskolako harrera plana erabili izan dut




### 10. Ikasgai espezifiko batean soilik aztertzen dira munduko kulturak




### 11. Ikasleekin kulturartekotasuna lantzeko jarduerak prestatu izan ditut




### 12. Kulturartekotasunarekin lotutako edukiak testu liburuei jarraituz irakasten ditut




### 13. Erabiltzen diren liburu, bideo eta beste materialetan jatorri askotako jendea ageri da denetariko gauzak egiten




### 14. Kontziente naiz erabiltzen ditudan materialetan kultura batzuen nagusitasuna agertzen dela beste batzuen gainetik




### 15. Ohartzen naiz zenbait ikasle ez direla identifikatuta sentituko erabiltzen ditudan materialekin



### 16. Erabiltzen ditudan materialek kulturen inguruan dauden estereotipoak apurtzen laguntzen dute




### 17. Klasean ditudan jatorri ezberdinetako ikasleen beharrak identifikatu eta materiala errealitate horretara egokitzen dut




C) Jasotako formakuntza


### 18. Eskolak kulturartekotasunaren inguruan prestatu izan duen ikastaro, jardunaldi edo formakuntzaren batean parte hartu dut



### 19. Eskolatik kanpo kulturartekotasunaren inguruan prestatu izan diren ikastaro, jardunaldi edo formakuntzetan parte hartu dut



### 20. Uste dut irakasle bezala kulturartekotasuna lantzeko dudan formazioa nahikoa dela



### III. ERANSKINA: argitaletxe desberdinetako testu liburuen azterketak osorik

#### III.I Santillana argitaletxeko testu liburuak

Santillana argitaletxeko liburuen azterketa egiteko ere metodo bera erabili da. 6. mailatik hasi eta 1. maila bitarteko testu liburuak aztertu dira ondorengo galdera eragileari jarraituz: nola agertzen da kulturartekotasuna?

Santillana argitaletxearen kasuan, Gizarte Zientziak eta Natura Zientziak, bi liburu desberdinetan agertzen dira. Horregatik, Gizarte Zientzietako testu liburuak aztertzea erabaki da.

#### Seigarren mailako testu liburua

Seigarren mailako testu liburuan, bi gai nagusi daude: **geografia eta historia**. Horietako bakoitzean, gai desberdinak lantzen dira. **Geografiaren kasuan, erliebea, urak eta klimak, jarduera ekonomikoa, biztanleria eta gizakiaren eragina ingurumenean**. Horiek denak, Europa, Espainia eta Euskadiren ikuspegitik. **Historian** aldiz, **Aro Garaikidea Espainia eta Euskadin eta Europar batasuna** lantzen dira.

Hasieran, geografiaren alorrean murgiltzeko, **erliebea** lantzen da, Europa mailatik hasi, Espainiar Estatuarekin jarraitu eta Euskadirekin amaitzeko. Erliebeari dagokionean, ez da kulturetektotasunaren inguruko erreferentzia zuzenik ikusi. Gehienbat, erliebea eta mendiak zerk osatzen duten eta hauek non kokatzen diren aipatzen da. Horretarako, mapa desberdinak erabiltzen dira. Gainera, informazioa hiztegi teknikoaren bitartez aurkezten da. Kulturartekotasuna lantzeko aukera izan arren, ez da bilatu erreferentziarik.

**Urak eta klimak** gaian, Europa mailako, Espainia mailako eta Euskadi mailako urak lehenik eta klimak eta landaredia ondoren aztertzen dira. Uraren kasuan, beraien ibai nagusiak, zein isurialde dituzten eta hauen inguruko ezaugarriak. Klimari dagokionez, klima bakoitza zein herrialde eta lurraldetan topatu daitekeen eta bertako landaredia. Hemen ere ez da aurkitu kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik.

**Jarduera ekonomikoaren gaian**, jarduera ekonomikoaren beraren ezaugarriak, enpresa motak, publizitatea eta diruaren inguruan hitz egiten da. Beste behin, ez da kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik topatu.

**Biztanleriaren** gaian, Europa, Espainia eta Euskadi aztertzen dira hurrenez hurren. Bertan, biztanleriaren inguruko ezaugarri orokorrak (bizi itzaropena, jaiotza tasak...) aurkitu daitezke. Horrez gain, lehen sektorea, bigarren sektorea eta hirugarren sektorea ere aztertuko dira. Gai honen inguruan, ikasleei oinarrizko informazioa eta ezaugarri orokorrak aipatzen zaizkie. Beraz, kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik ez da aurkitu.

Labur bada ere, migrazioen inguruko aipamen oso labur bat egiten da. Laburra izan arren, esanguratsua dena. Immigrazioari dagokionez, azken urte hauetan European gorakada nabari dela aipatzen da. Ez du ematen, ordea, horren inguruko arrazoirik, ezta herrialde hartzaileek eskuratzen dituzten etekinei buruz ere (Van Dijk, 2004). Gainera, immigrazioaren ondorioen inguruan mintzatzen da; hala nola biztanleriaren hazkundera.

Paragrafo bat beherago, oso lerro gutxitan, Espainiako emigrazioa azken urteetan ere goraka doala aipatzen du. Hemen ordea, arrazoia aipatzen du: krisi ekonomikoa. Beraz, Morales eta Lischinskyk (2008) esan moduan, immigrazioa eta emigrazioa, desberdin erakusteko joera ageri da.

Geografia arloarekin amaitzeko, **Gizakiaren eragina ingurumenean** atalean, garapen iraunkorra, ingurumen arazoak, klima aldaketa eta kutsadura bezalako informazioa aztertu eta lantzen dira. Hemen ere, ez da aurkitu kulturartekotasunarekin lotutako informaziorik.

Jarraian, Historiari dagozkion arloak aztertzer pasako da. Historian zehazki, Aro garaikidea XIX, XX eta XXI. mendeetan Espainia eta Euskadin eta Espainia eta Europar Batasuna gaiak lantzen dira.

Historiaren zatiari hasiera, **Aro garaikidea: Espainia eta Euskadin XIX. mendean** gaiak ematen dio. Espainiar Estatuko eta Euskadiko historia kontatzen da, modu klasiko batean. Besteak beste honako puntuak jorratzen dira: Independentzia gerra; Fernando VII; Elisabet II. a; Berrezarkuntza; Industria iraultza. Bertan ez da topatu kulturartekotasunaren erreferentziarik. Aipamen bat egitekotan, Espainiak 1898. urtetik aurrera Amerikan zituen kolonia guztiak galtzen joan zenekoa egingo nuke. Van Dijkek (2004) zioen moduan, Historiaren zati kolonialista azaletik lantzen da.

Hala ere, kulturak behingoz badu bere lekua liburu honetan. Kasu honetan, Artea eta Kultura XIX. mendean puntua jorratzen da. Bi orrialde eskasetan, arkitektura, eskultura, pintura eta literaturari begirada azkar bat ematen zaio. Bertan, eskaintzen den informazioa oso orokorra da eta garai horretan estatu espainiarrean, arlo



bakoitzean nabarmentzen ziren protagonisten izen-abizen eta lanak soilik jasotzen dira.

Historiaren jarraituz, ondorengo gaia, **Aro garaikidea: Espainia eta Euskadin XX. eta XXI. mendeetan** da. Bertan, aurreko azterketan ikusitakoaren antzeko ezaugarriak identifikatu daitezke. Orokorrean, Espainiako eta Euskadiko historiaren kontaketa labur bat egiten da, Bigarren errepublikatik hasi eta gaur egun arte. Bertan, azpimarragarria da, labur bada ere, diktaduraren garaian kulturek orokorrean zentsura bizi izan zuela aipatzen dela. Besteak beste, liburu, film edota antzezlanek.

Horrez gain, aurreko atalaren antzera, kulturak ere badu bere leku propioa. Kasu honetan, **Artea eta Kultura XX. mendean eta gaur egun** izena hartzen du. Baina, tamalez, aurrekoan aztertutako joera bera errepikatzen da. Hau da, pintura, eskultura, arkitektura eta literatura alorrak jorratzen dira azaletik, soilik protagonisten izen – abizenak eta obra-lan nagusienak bilduz. Noski, bestetan egin bezala, hauek estatu espainiarrekoak dira.

Amaitzeko, **Espainia eta Europar batasuna gaian**, Espainiako antolamendu politikoa, Espainiako lurralde antolamendua (udalerrria, probintzia eta autonomia erkidegoa), Europar Batasunaren eraketa eta Espainia Europar Batasunean gaiak lantzen dira. Hemen ere, ez da aurkitu kulturartekotasunaren inguruko informaziorik. Orokorrean, bakoitzaren osaketa eta ezaugarrien inguruan mintzatzen da. Quintanilla taldeak (1996) ikertutakorekin bat etorriz, autonomia erkidegoen atalak, bertan egon daitezkeen kultur aberastasunen inguruko berriak eman zitezkeen arren ez da horrelakorik aurkitu.

Bestalde, arreta deitu didan gauzetako bat ondorengoa izan da; atal batean Europar Batasunak dituen erronkak plazaratzen dira eta horietako bat, kultur-aniztasuna sustatzea dela Europar Batasuna osatzen duten herrialdeetan.

Amaitzeko, seigarren mailako testu liburua aztertu ondotik, aurrez oinarritzapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak aipatzen zituen beste kulturen inguruko irudikapen negatiboetatik, ondorengoak identifikatu daitezke: bazterkeria eta ahotsak isilarazi edota ukatzea, oso orrialde gutxitan egiten zaizkielako erreferentziak beste kulturei; arrazakeriaren ukatzea, kolonialismo garaia azaletik lantzerakoan; desberdintasunak, immigrazioa eta emigrazioa azaltzerakoan. Ezaugarri hauei, Coelhok (2016) aipaturiko curriculum eurozentrikoaren ideia gehitu behar zaio.

**Bosgarren mailako testu liburua**

Seigarren mailako testu liburuan bezalaxe, bosgarren mailan ere bi gai nagusitan banatzen da testu liburua: **geografia eta historia**. **Geografiaren kasuan, lurra eta unibertsoa; lurraren irudikapena; atmosfera eta klima; Espainiako paisaiak; Espainiako, Euskadiko eta Europar Batasuneko erakundeak; Espainiako, Euskadiko eta Europako biztanleria** gaiak lantzen dira. **Historian** berriz, **Espainia Erdi Aroan; Espainia Aro modernoaren hasieran; Espainia XVII. eta XVIII. Mendeetan** gaiak lantzen dira.

Geografiaren arloarekin hasteko, **lurra eta unibertsoa** aztertu da. Gai nagusiak, unibertsoa, eguzki sistema eta lurraren geruzak dira. Bertan, hauen inguruko informazio zientifikoa eta berau osatzen dute elementuak identifikatu daitezke. Ez da topatu kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik.

Bestalde, lurraren eta ilargiaren higadura gaia ere tratatzen da. Besteak beste, urtaroak eta egunak-gauak kontzeptuen inguruan jarduten da. Honek, beste kulturekin harremantzako aukera eman arren, ez da horrelakorik bilatu.

**Lurra irudikatzea** gaian, lurraren irudikapena eta lurrean lekuak kokatzeko oinarritzko elementu eta tresnen inguruan hitz egiten da. Horrez gain, planisferio fisiko eta politikoaren inguruko edukiak ere aurkitu daitezke. Azken hauetan, modu xume batean bada ere, kultura lantzen da. Izan ere, kontinente bakoitzaren oinarritzko informazioa (mendi eta ibai nagusiak; zenbat herrialdek osatzen duten eta bertako populazioa) ematen baita.

Horri munduko mapa fisiko nahiz politikoak gehitu behar zaizkio. Gainera, atlasaren erabilpena ere ikasten da jardueren bitartez. Beraz, azaletik bada ere, Euskadi, Espainia edota Europa ez den beste herrialdetako informazioa bereganatu dezakete ikasleek.

**Atmosfera eta klima** gaian, atmosfera, eguraldia eta klima aztertzeko tresna, osagai eta faktoreak ageri dira. Horrez gain, Espainian aurkitu daitezkeen klima desberdinak ere lantzen dira, besteak beste, klima mediterraniarra, klima subtropikala, klima ozeanikoa eta goi-mendietako klima. Hemen batez ere, hauei buruzko ezaugarri orokorrak eta hauen kokapena jorratzen dira mapen laguntzaz. Euskadiko klima ere aztertzen da, baina mundua bertan amaitzen dela dirudi. Gainerako txokoetako klimak ez dira ageri.

**Espainiako paisaiak** atalean, Espainiako erliebea eta Espainiako urak aztertzen dira. Hauetan, mendikate eta ibai nagusienak zeintzuk diren eta hauen kokalekua mapen laguntzaz agertzen da. Horrez gain, Espainiako paisaia eraldatuak,

nekazaritza eta industria- paisaiak eta Espainiako hiri eta turismo paisaiak ere lantzen dira. Hauek ere, hirien osaketa eta mapen bidezko kokapenera mugatzen dira. Gainera, Espainiar estatua soilik jorratzen da.

**Espainiako, Euskadiko eta Europar Batasuneko erakundeak** gaian, Espainiako lurraldea, Espainiako Konstituzioa eta Espainia, Euskadi eta Europar Batasuneko erakundeak lantzen dira. Baita euroaren eremua ere. Erakundeei dagokionez, lurralde bakoitzean zein erakunde dauden, hauek zein funtzio betetzen dituzten eta hauen inguruko deskribapena ageri da.

Hemen nabarmentzekoa da, Espainiako lurraldeen atalean, lurralde antolamenduaren inguruan mintzatzen denean, autonomia erkidego eta probintzia desberdinak zeintzuk diren esatera mugatzen dela soilik testu liburua. Mapa bat ere ageri da, testu laguntzaile bezala. Quintanilla taldeak 1996. urtean ikertutakoarekin bat etorritz, ez da bilatu autonomia erkidego eta probintzia desberdinetan dauden kultur-aniztasun, hizkuntza edota ohitura desberdinen inguruko berririk.

**Espainiako, Euskadiko eta Europako biztanleria** gaian, Espainiako eta Europako biztanleria, Migrazioak Espainian eta Europako biztanleriaren ezaugarriak tratatzen dira. Ikerketarekin lotura duen puntura joz, migrazioak Espainian atala nabarmenduko nuke. Bertan, emigrazioa eta immigrazioa desberdintzen dira. Alde batetik, Espainian garai desberdinetan eman ziren barne nahiz kanpo emigrazioak aipatzen dira labur eta bestalde, immigrazioa.

Seigarren mailako testu liburuaren antzera eta Morales eta Lischinskyk (2008) esan moduan, immigrazioa eta emigrazioa, desberdin erakusteko joera ageri da. Batez ere arrazoietan. Emigrazioan, arrazoa zehatzak ematen dira baina ez immigrazioaren inguruan. Gainera, immigrazioa tratatzen duen puntuaren izenburua ere deigarria da: "Espainia, immigrazioaren helmuga".

Aurrerago, Europako migrazioa ere lantzen da. Eskaintzen den edukia laburra da eta seigarren mailako testu liburuaren berdina. Hemen, batez ere immigrazioan jartzen da fokua. Bertan aipatzen da, azken urte hauetan Europan gora egin duela. Baina Van Dijkek (2004) aipatu moduan, ez da aurkezten horren inguruko arrazoirik; ezta herrialde hartzaileek immigrazioaren inguruan dituzten behar eta eskuratzen dituzten etekinen inguruko berriak. Gainera, berriro, immigrazioaren ondorioen inguruan mintzatzen da.

Jarraian, **Historiaren** barnean sartzen diren gaiak aztertzerako pasako da: **Espainia Erdi Aroan, Espainia Aro Modernoaren hasieran eta Espainia XVII. eta XVIII. mendeetan.**

**Espainia Erdi Aroaren gaian**, Bisigodoen erresuma eta musulmanen konkista, bizitza eta kultura Al Andalusen, Kristau Erresumak, Bizimodua kristau – hirietan, Artea kristau erresumetan alorrak tratatzen dira. Atal honetan, beste kultura batzuk agertu eta hauei buruz hitz egin arren, ez da behar bezalako tratamendurik egiten.

Hasteko, bisigodoen Erresuma eta Musulmanen konkista, orri bakar batean agertzen dira. Oso gaineratik azaltzen da garai horretan jazotakoa eta gainera, ikasleei, ez zaie erreferentzia handirik ematen zeintzuk ziren hauek. Horrez gain, izenburuetatik hasita, bereizketa nabari da Bisigodoen Erresumaren eta musulmanen konkistaren artean. Teorian, bi herriak etorri ziren kanpotik baina bati erresuma deitzen zaio eta besteari konkista. Gainera, Bisigodoak iberiar penintsula ezarri omen ziren baina musulmanak, okupatu egin omen zuten lurraldea. Arrazakeria bistakoa da.

Bizitza eta kultura Al Andalusen arloan, Erlijioari buruz hitz egiten da: Islama. Labur, zer den deskribatzen da eta beraiek, derrigorrez bete behar dituzten bost mandamenduak ageri dira. Nahiko estereotipatua agertzen da zati hau. Gainera, egindako ekarpenen inguruan hitz egiten da, batez ere, kulturaren eta artearen alorrean. Ekarpene hauek ordea, bitxikeria moduan islatzen dira.

Kristau-erresumak zatian, erresumaren sorreraren berri ematen da. Oso gaineratik azaltzen dira, kristau eta musulmanen artean izandako aginte borrokak. Informazioa, distorsionatuta ageri da eta ez da esaten zeintzuk eta zein ziren erlijio bakoitzaren kide.

Atal honekin amaitzeko, garai horretako arteari buruzko aipamen laburrak ageri dira: arte erromanikoa eta arte gotikoa. Bien edukiak, modu bereberean agertzen dira islatuta. Batez ere, eraikin, margolan eta eskulturretan jartzen da fokua. Gehiagorik ez da azaltzen.

**Espainia Aro Modernoaren hasieran** gaia, Aro Modernoaren azalpenarekin hasten da. Ondoren, Amerikaren aurkikuntzaren inguruan jarduten du. Jarraian, errege-erregina katolikoak aztertzen dira. Horrez gain, Espainiar inperioa XVI. mendean ere lantzen da eta amaieran, Amerikaren konkista eta konolinizazioaren berri ematen du.

Amerikaren aurkikuntza atalean, aurrekoetako joera bera errepikatzen dela aztertu da. Hau da, Van Dijk (2004) eta Torres (2008) aipatzen zuten, historiaren zati kolonialista, oso modu xumean agertzen dela. Gainera, Kristobal Kolonen figura zuritu eta goratzeko ere erabiltzen da. Hala ere, atal honetan, izenburu batek deitzen du arreta: “Amerikaren aurkikuntzak izandako ondorioak”. Eduki honetan, aurkikuntzaren ondorio positiboak soilik agertzen dira, izandako ondorio negatiboak ezkutatu. Paternalismoaren ideia (Torres, 2008) ere ageri da eta guk, beraien aurrerapenean laguntzaile bilakatu ginela.

Amerikaren gaiarekin jarraituz, aurrerago Amerikaren konkista eta kolonizazioa atala lantzen da. Zati hau, Kolon iritsi aurretiko herriez mintzo da. Zehazki, Maiak, Aztekak eta Inkak agertzen dira. Herri hauen inguruko informazioa, bi lerrotan agertzen da. Ia ezer eta gainera, ez da inongo momentutan erabiltzen konkista eta kolonizazio kontzepturik. Beraz, izenburuko konkista eta kolonizazioa, ez dira ezertan geratzen.

Atal hauez gain, beste erreferentzia deigarri bat, Espainiar Inperioan dator. Bertan, Karlos I.a eta Felipe II.ari buruzko informazioa agertzen da. Gehienbat, deskribapena egiten da eta berriro, pertsonai hauen zuriketa egin nahia nabari da. Hala ere, deigarriena ez da hori. Deigarriena, munduko mapa bat da. Munduko mapan, bi pertsonai hauek zituzten “ondasunak” ageri dira herrialde desberdinetan. Maparen azpian, Espainiar Inperioa izenburua dator. Ondasun horiek ez dira zehazten zeintzuk diren ezta nola lortu diren. Ondasunak izatetik baino, konkista eta kolonizaziotik gertuago daude.

Liburuko azken gaietan, **Espainia XVII. eta XVIII. mendeetan deiturikoan**, XVII. mendea Espainian, Inperioaren krisialdia, barrokoa eta Urrezko Mendea eta Borboiak atalak jorratzen dira. Gaia hauen historia deskribatzen ari diren bitartean, kulturaren inguruko erreferentziaren bat agertzen da.

Esaterako, Inperioaren krisialdia zatian, Felipe III. erregealdia kontatzen den bitartean, azaltzen da, nola moriskoak kanporatu ziren inperiotik. Moriskoak, kristau bihurtzera bihurtutako musulmanak omen ziren eta hauek, ohiturak ez aldatzegatik, kanporatuak izan ziren. Azalpen laburra ematen zaio, ordea, ikasleei.

Horrez gain, Barrokoa eta Urrezko Mendearen gaietan, kulturaren inguruko erreferentziak nabarmenagoak bilatu daitezke. Bi gaietan, hau da, Barrokoa eta Urrezko Mendean, kultura lau zatitan bereizten da. Bereizketa mota hau, seigarren mailako testu liburuaren berdina da. Zehazki, Arkitektura, Pintura, Eskultura eta Literatura alorrak aurki daitezke. Bietan ematen zaion trataera ordea, azalekoa da.

Soilik, garai haietako artista garrantzitsuenak eta beraien lanak daude. Agertzen diren artistak, barrokoan internazionalak diren arren, Urrezko Mendean Espainiar Estatura mugatzen dira.

Azkenik, Bosgarren mailako testu liburuak aztertu ondoren, aurrez oinarritapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak aipatzen zituen beste kulturen inguruko irudikapen negatiboetatik, ondorengoak identifikatu daitezke: bazterkeria eta ahotsak isilarazi edota ukatzea, oso orrialde gutxitan egiten zaizkielako erreferentziak beste kulturei; desberdintasunak immigrazioa eta emigrazioaren berri ematerakoan; exotismoa, Islamak egindako ekarpenei buruz hitz egiterakoan; estereotipoak, Islama irudikatzerako orduan; arrazakeriaren ukatzea, kolonialismo garaiak azaletik lantzerakoan. Horrez gain, Coelhok (2016) azpimarraturiko curriculum eurozentrikoaren ideia.

### **Laugarren mailako testu liburua**

Laugarren mailako testu liburuan ere bi gai nagusi bereizten dira: **geografia eta historia. Geografiaren kasuan, harriak eta erliebea, eguraldia eta klima, urak, pasaia motak, Espainiako eta Europako lurraldea eta biztanleria eta ekonomia – jarduerak** atalak jorratzen dira. **Historian** aldiz, **Historiaurrea** , **Antzinaroa: erromatarren aurreko herriak eta Antzinaroa: erromatarren garaia** gaiak aztertzen dira.

Gaietan murgildu aurretik, errotazio eta translazio higidurak eta planisferioak (fisikoa eta politikoa) zer diren azaltzen da. Azalpen labur bat soilik ematen da mapen laguntzaz. Ez zaio erreferentziarik egiten kulturartekotasunari.

Lehenengo gaian, **Harriak eta erliebeak** deiturikoan, lehenik, lurrazalaren atalak lantzen dira. Ondoren, Harriak eta mineralen azalpenetara egiten da jauzi. Azkenik, Espainiako erliebea aztertzen da. Gai honetan, ez da aurkitu kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik, nahiz eta erliebeen lanketak, hori ahalbidetu.

**Eguraldia eta klima gaian**, Eguraldia, lurreko klimak eta Espainiako klimak lantzen dira. Eguraldiari dagokion zatian, ez da agertzen kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik. Bai ordea, munduko eta Espainiako klimetan.

Munduko klimaren atala aztertuz gero, mapa baten laguntzaz, kontinente ezberdinetan aurkitu daitezkeen klimen inguruko azalpen labur bat bilatu daiteke.

Horrez gain, mapa bera, zona desberdinen arabera banatuta dago. Honi esker, kontinenteak, zein zonatan dauden antzeman daitezke.

Espainiako klimaren atalak ere, mapa bat dauka eta bertan, autonomia erkidego bakoitzari dagokion klima agertzen da irudikatuta. Noski, klimen oinarrizko ezaugarriak ere deskribatzen dira.

**Urak** gaian, hidrosfera, kontinenteetako urak, “Espainiako ibaiak, Kantauri isurialdea”, “isurialde atlantikoa eta isurialde mediterranearra” atalak bereizten dira. Gai guzti hauetan, ezaugarri orokorren inguruko deskribapen bat etortzen da, erreferentzia zuzenik egin gabe kulturartekotasunari.

Hala ere, Espainiako Ibaiak. Kantauri isurialdean zatian, ibaiak, mapa batean agertzen dira irudikatuta eta ibai bakoitza, zein autonomia erkidegotan dagoen bereiz daiteke. Gauza bera gertatzen da, “isurialde atlantikoa eta mediterranearra” atalean. Ibai bakoitza zein isurialdetara doan azaltzeaz gain, non aurkitu daitekeen topatu daiteke.

**Paisaia motak** gaian, paisaiak, Espainiako paisaiak eta Espainiako beste paisaia batzuk atalak lantzen dira. Orokorrean, pasaiak zer diren, zein ezaugarriak osatzen dituzten eta zeintzuk bereizten diren azaltzen da. Horrez gain, Espainiako paisaien kasuan, mapak ere ageri da hauen kokapena jakiteko. Hauek izan daiteke, zeharka bada ere, aurkitu daitekeen kulturartekotasunaren inguruko erreferentzia bakarrak.

**Espainiako eta Europako lurraldea** gaian, Espainia European, Espainiako lurralde antolamendua eta nola gobernatzen den Espainia zatiak aztertzen dira. Kulturartekotasunari dagokionez, azaleko bi erreferentzia bilatu daitezke.

Alde batetik, Espainia European deritzon zatian, EB inguruan hitz egiten da. Bertan, mapa bat topatu daiteke eta mapa horretan, EB osatzen duten herrialde guztiak ageri dira.

Bestalde, Espainiaren lurralde antolamenduari dagokionean, mapa baten laguntzaz, Espainia osatzen duten autonomia erkidego eta probintziak aurkitu daitezke, xehetasun gehiagorik gabe. Orrialde horretako iskin batean ordea eta bi lerrotan, Espainiako kultur - aniztasuna deritzon paragrafo bat dago. Bertan, autonomia erkidego bakoitzak, bere tradizio, festa eta hizkuntzak izan ditzakeela aipatzen da. Baina beste behin, Quintanilla taldeak 1996. urtean ikertutakoarekin bat etorritik,

probintzia desberdinetan dauden kultur-aniztasun, hizkuntza edota ohitura desberdinen inguruko informazio eskasa ageri da.

**Biztanleria eta ekonomia – jarduerak** gaian, Nola aztertzen den biztanleria, nola banatzen den biztanleria eta lan sektore desberdinak aztertzen dira. Hemendik aipagarriena, jada, migrazioen berri ematen hasten zaiela ikasleei. Zer diren migrazioak, immigrante eta emigrante kontzeptuen esanahiak. Labur azaltzen zaizkie. Gainera, immigrazioaren zergatien buruz mintzo da paragrafo txiki bat baina bertan arrazoi azalenenekoak ematen dira.

Bestalde, lan sektoreei buruz hitz egiterakoan, oro har, deskribatu egiten dira eta hauen ezaugarri batzuk gaineratik aipatu. Ez zaie hurrei azaltzen ordea zein taldek egiten duen lan bakoitzean. Izan ere, Van Dijkek (2004) esan moduan, ikasleei ez zaie azaltzen, etorkinen gehiengoak guk egin nahi ez ditugun lanak egiten dituztela.

Jarraian, Historiari dagozkion gaiak aztertuko dira. Hala nola: **Historiaurrea, Antzinaroa: erromatarren aurreko herriak** eta **Antzinaroa: erromatarren garaia**.

**Historiaurrea** gaian, paleolitoa, neolitoa, metal aroa eta artea historiaurrean alorrak lantzen dira. Bertan gehienbat, garai bakoitzaren oinarriko ezaugarriak eta deskribapen orokorrak jasotzen dira. Artea historiaurrean atalean ordea, garai horretako kulturaren alor bati egiten zaio erreferentzia: pinturari. Azalpen egoki bat jasotzen da haitzuloen margoketen inguruan. Gainera, labar pintura hauek (haitzuloetako margoketak) iberiar penintsulan non aurkitu daitezkeen aipatzen da. Tartean, Ekain haitzuloaren berri ematen da. Azalpena, ordea, Iberiar penintsulara soilik mugatzen da.

**Antzinaroa: erromatarren aurreko herriak** atalean, iberiarrak eta zeltak, greziarrak, feniziarak eta kartagotarrak gaiak lantzen dira. Guztietan ere, nahiko informazio antzekoa aurkitu daiteke. Orokorrean, non bizi ziren erakusten da mapa baten laguntzaz. Honen ondotik, zertara etorri ziren azaltzen da. Normalean, gehienak truke eta salerosketa etortzen omen ziren. Eginkizun horietatik abiatuta, koloniak sortzen omen zituzten eta bertako bizimoduaren deskribapen orokor bat jasotzen da. Baita oinarriko ezaugarriena ere. Horrez gain, bi esalditan, zibilizazio bat zer zen azaltzen zaie ikasleei. Atal honetan, aipagarria da, ez dela inongo momentutan erabiltzen konkista hitzik.

**Antzinaroa: erromatarren garaia** atalean, erromatarren konkista, hiriak eta landa-eremuak Hispanian, bizimodua Hispanian eta erromatarren ondarea alorrak jorratzen dira. Hasieran, erromatar inperioa zein lurraldek osatzen zuten aipatzen da



eta nola hedatzen joan zen konkista hori. Guzti horren irudikapen eta kokapena, mapa batek laguntzen du. Ondoren Hispania nola konkistatu zuten azaltzen da; sortutako hirien eta landa – eremuen deskribapen orokor bat eginez. Jarraian, bertako biztanleria nola bizi zen deskribatzen da. Hemendik aipagarriena, Hispaniarren bizimodua deskribatzean, arropen kontua da. Emakumeen erabiltzen zuten jantzi-tako bat, beloa zela azaltzen da. Horrek ematen du arreta gehien. Baina ez da honen inguruko azalpen gehigarririk agertzen.

Bestalde, erromatar ondarea deituriko alorrean, iberiar penintsulako biztanleak pixkanaka – pixkanaka erromatarren ohituretara nola egokitzen joan ziren aipatzen da. Alde batetik, erlijioa eta kulturaren inguruko edukiak eta bestetik, Hispano – Erromatar arteren inguruko edukiak azaltzen zaizkie ikasleei.

Erljioa eta kulturari dagokionean, apurka, kristautasuna nagusitzen joan zela jasotzen da Hispanian. Horrekin batera, I. mendean, erlijio berri bat hasi zen hedatzen Erromatar Inperioan: kristautasuna, Jesus Nazaretekoak eta haren jarraitzaileek aditzera ematen zuten. Erromatarrek bere hizkuntza ere zabaldu zuten, latina. Aipamen honetatik aparte, ez da azalpen gehiagorik ematen Kristautasunaren inguruan. Bestalde, azpimarratu behar da, Euskara izan zela bizirik iraun zuen hizkuntza bakarra jasotzen dela erromatarren aurreko hizkuntzetatik.

Hispano – erromatarren artea aztertzean, Espainian gaur egun oraindik ere ikusi daitezkeen erromatar garaiko zenbait eraikin, eskultura, pintura eta mosaiko garrantzitsuren informazioa jasotzen da, gehiagorik sakondu gabe.

Amaitzeko, aurrez oinarritapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak aipatzen zituen beste kulturen inguruko irudikapen negatiboetatik, ondorengoak identifikatu daitezke: bazterkeria eta ahotsak isilarazi edota ukatzea, beste kulturen inguruko informaziorik apenas ez delako agertzen; desberdintasunak, immigrazioa eta emigrazioari buruz hitz egiterakoan. Horrez gain, Coelhoren (2016) curriculum eurozentrikoaren ideia ere azpimarratu behar da.

### **Hirugarren mailako testu liburua**

Hirugarren mailako testu liburuan batez ere geografia lantzen da. Gairen batean historia aztertzen da baina oro har, geografia da hizpide nagusi. **Geografiari dagokionez, Nolako da lurra ? Lurra irudikatzea, Airea eta atmosfera, Ura lurrean, paisaiak, biztanlegunea eta udala, eta fabriketako eta zerbitzuetako lanak** gaiak aztertzen dira. **Historian** berriz, gai bakarra jorratzen da: **denboran zehar**.

Geografiaren atalaren azterketarekin hasteko, **nolako da lurra ?** deituriko gaian, eguzki – sistema eta lurra, lurraren higadurak eta lurra bera jorratzen dira. Ez da aurkitu kulturartekotasunarekin lotutako erreferentziarik, nahiz eta lurraren higadurak atalak hori ahalbideratu. Hau da, beste zenbaitetan aipatu moduan, eguna eta gaua eta urtaro desberdinak aztertzen direnean, hauen inguruko azalpenak soilik ematen dira. Ezta ikusten, ordea, lurraren txoko desberdinetan, eguna eta gaua eta urtaroak ere desberdinak izan daitezkeela.

**Lurra irudikatzea** gaian, nola irudikatzen da lurra? Ozeanoak eta kontinenteak eta orientazioa lantzen dira. Erreferentzia txikiak aurkitu daitezke kulturartekotasunaren inguruan. Esaterako, nola irudikatzen da lurra deiturikoan, mapak desberdinak daudela erakusten zaie ikasleei eta baita hauen gaineko irakurketa. Bestalde, Ozeanoak eta kontinenteak arloan ikusi daiteke kulturartekotasun gehixeago. Hemen, Ozeanoak eta kontinenteak agertzen diren mapak jasotzen dira eta hauek zeintzuk diren azaltzen dira. Labur bada ere, kokapenaren inguruko informazioa eskaintzen zaie ikasleei. Gehiagorik ezta azaltzen.

**Airea eta atmosfera gaian**, Airearen eta atmosfera, Fenomeno atmosferikoak, Eguraldia eta klima eta Airearen kutsadura atalak lantzen dira. Gai guzti hauetan, kontzeptu bakoitza zer den eta honen inguruko oinarritzko ezaugarriak deskribatzen dira, erreferentzia zuzenik egin gabe kulturartekotasunari.

**Ura lurrean** deituriko gaian, ura eta haren egoerak, uraren zikloa, ura paisaietan, nolakoak dira ibaiak eta pertsonak eta ura arloak jorratzen dira. Ez da kulturartekotasunari erreferentziarik egiten dion edukirik topatu. Bertan, orokorrean arloa bakoitza zer den, zein elementuk osatzen duten eta hauen oinarritzko ezaugarriak aztertzen dituzte ikasleek.

**Paisaiak gaian**, Harriak eta mineralak, erliebe formak, paisaia naturalak eta eraldatutakoak eta pasaien zainketa arloak aztertzen dituzte ikasleek. Hemen ere ez da topatu kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik. Ataletan orokorrean, kontzeptu bakoitza zer den, zein elementuk osatzen duten, zein mota dauden eta hauen oinarritzko ezaugarriak lantzen dira.

**Biztanlegunea eta udala** atalean, Herriak eta hiriak, herrien eta hirien gobernuak eta udal zerbitzuak lantzen dira. Eduki hauetan batez ere, zer diren, nolakoak diren, zenbat mota dauden eta hauen ezaugarri nagusiak biltzen dira. Atal honetan, hasiera – hasierako irakurgaiak soilik egiten zaio erreferentzia kulturartekotasunari. Bertan, herrien senidetzearen inguruan hitz egiten da. Zenbait

herri eta hirik erabiltzen duten tresna bat dela aipatzen da, jendartearen harremanak estutu eta kultura desberdinak partekatzeko balio duena.

**Naturan lanean** atalean, lana, Landare - produktuak lortzeko lanak eta animalia produktuak lortzeko lanak gaiak jorratzen dira. Hemen ere ez da kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik topatu. Gehienbat, edukietan, gai bakoitza zer den, nola egiten den, sailkapen desberdinak eta ezaugarri orokorrak lantzen dira.

**Fabriketako eta zerbitzuetako lanak** gaian, bigarren sektoreko lanak, industria produktuak, hirugarren sektorea, garraioa, merkataritza eta turismoa atalak tratatzen dira. Ez da kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik topatu. Gehienbat, atal bakoitzaren deskribapena jasotzen da. Hau da, zer den, zerk osatzen duten, mota desberdinak eta oinarrizko ezaugarriak biltzen dira.

**Denboran zehar** gaian, Denbora neurtzea, Nola ezagutzen dugun iragana, Tokiko iragana gogoan eta Denborak aurrera egiten du herrian atalak lantzen dira. Gai honetan, apurka – apurka historiaren arloan murgiltzen hasten dira ikasleak. Atal hauetako edukietan, historiaren inguruko oinarrizko informazioa eta ezaugarri nagusienak topatu daitezke. Bertan, kulturartekotasunaren inguruko bi erreferentzia ere agertzen dira.

Alde batetik, denbora neurtzea atalean zenbaki erromatarrak aztertzen dira. Historian maiz erabiltzen direla aipatzen da baina ez da azaltzen hauen jatorriari buruzko informaziorik. Bestalde, tokiko iragana gogoan atalean, monumentuen, jaien eta folkloreak inguruan hitz egiten da. Oso azaletik aztertzen dira honen inguruko edukiak eta deskribapen bat jasotzen da zer diren, mota desberdinak eta oinarrizko ezaugarriak biltzen dituen. Adibideak, ordea, Euskal Herrira mugatzen dira.

Azkenik, aurrez oinarritapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak aipatzen zituen beste kulturen inguruko irudikapen negatiboetatik, ondorengoak identifikatu dira hirugarren mailako testu liburuan: bazterkeria eta ahotsak isilarazi edota ukatzea, ez delako apenas beste kulturen inguruko erreferentziarik egiten. Bestalde, Coelhoren (2016) curriculum eurozentrikoaren ideia ere azpimarratu behar da.

### **Bigarren mailako testu liburua**

Bigarren mailako testu liburuan, hirugarren mailakoen antzera, geografiaren inguruko edukiak dira nagusi. Oraingoan ere, historiaren atal bat aurkitu daiteke baina orokorrean geografia aztertzen dute ikasleek. **Geografiari dagokionez, Biztanleguneetan bizi gara, Denok lanera, Komunikatu egiten gara, Ura eta Aire,**

**Zer eguraldi egiten du? Paisaiari behatzea, Lurra ezagutzen dugu eta unibertsoa aztertzen dugu gaiak lantzen dira. Historian** berriz, Denboraren joana atal soilik aztertzen da.

**Biztanleguneetan** gaian, Herriak eta Hiriak, Udala eta Elkarrekin bizi gara atalak lantzen dituzte ikasleek. Ez da aurkitu kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik. Batez ere, zer den, zerk osatzen duten eta ezaugarri nagusienak aipatzera mugatzen dira edukiak. Hala ere, badago atal bat irakurgai moduan, haurren eskubideak izenekoa. Bertan, haurrek oinarrizko eskubide batzuk izan behar dituztela jasotzen da, eta oso azaletik bada ere, aipatzen da, haur guztien eskubideak ez direla betetzen.

**Denok lanera** gaian, Lehengaiak eta produktu landuak, Naturako lanak, Fabriketako eta lantegietako lanak eta Zerbitzuak ematen dituzten lanak atalak jorratzen dira. Orokorrean, zer diren, zeintzuk osatzen dituzten eta ezaugarri nagusienak aipatzen dira edukietan. Ez da aurkitu kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik.

**Komunikatu egiten gara** atalean, Garraiobideak, Bide hezkuntza, Komunikabideak eta Teknologia berriak gaiak tratatzen dira. Bertan agertzen diren edukiak, zer diren, zenbat dauden eta hauen oinarrizko ezaugarriak aipatzera mugatzen dira. Berriro ere, ez da aurkitu kulturartekotasunarekin lotutako erreferentziarik.

Jarraian, gaietatik aparte lantzen den atal bat dago eta atal horretan, herri-kultura da hizpide. Bertan, oso informazio laburra eta azalekoa eskaintzen zaie ikasleei, herriko jaien, musika eta dantzaren, eskulangintzaren eta jaki tipikoen inguruan. Herri kultura, gai horietara soilik mugatzen dela dirudi eta gainera, hauen inguruan aurkezten diren edukiak, nahiko estereotipatuta agertzen dira.

**Ura eta airea** gaian, uraren egoerak, ura naturan, izaki bizidunok ura behar dugu eta honelakoa da airea atalak aztertzen dira. Atal bakoitzean agertzen diren edukiak, kontzeptuak zer diren, zerez osatzen diren eta ezaugarri orokorrak azaltzera mugatzen dira. Beste behin, ez da topatu kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik.

**Zer eguraldi egiten du?** gaian, tenperatura, haizea eta euria, nola aztertzen da eguraldia? eta Eguraldia eta klima alorrak jorratzen dira. Orokorrean, edukietan, oinarrizko informazioa aurkitu daiteke, batez ere zer den eta zein ezaugarri osatzen

duten jakinarazten duena. Hemen ere ez da topatu kulturartekotasunarekin lotutako erreferentziarik.

**Paisaiari behatzea** deituriko gaian, Paisaia aldatu egin da, Barnealdeko paisaiak, Kostaldeko paisaiak eta Ibaiak paisaian atalak bereizten dira. Edukiak, oinarrizko ezaugarriak azaltzera mugatzen dira: zer den, zerk osatzen duten eta ezaugarri nagusienak. Ez da bilatu kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik.

**Lurra ezagutzen dugu** gaian, honelakoa da lurra, ozeanoak eta kontinenteak, harriak eta mineralak eta orientatu egiten gara atalak lantzen dira. Orokorrean jorratzen diren edukiak, oinarrizko informazioa azaltzera mugatzen dira. Hau da, zer den atal bakoitza, zerk osatzen duten eta zein ezaugarri diren nagusienak. Gai honetan, Ozeanoak eta kontinenteak atalean egiten da kulturartekotasunari erreferentzia. Oso azalekoa bada ere, mapa baten bidez, ozeano eta kontinente bakoitza non dagoen aurkezten zaie ikasleei, informazio gehigarri batekin.

**Unibertsoa aztertzen dugu gaian**, izarrak eta planetak, eguzki – sistema, lurra eta eguzkia eta ilargia atalak jorratzen dira. Nagusiki, atal bakoitzean agertzen diren edukiek, kontzeptu bakoitza zer den, zein ezaugarri osatzen duten eta hauen oinarrizko informazioa eskaintzen dute. Gai honetan, ez da aurkitu kulturartekotasunarekin erlazionaturiko erreferentziarik.

Bigarren mailako testu liburuaren azterketarekin amaitzeko, historiaren arlora egingo da jauzi. Zehazki, **denboraren joana** gaia tratatuko da. Bertan, Iragana, oraina eta etorkizuna, denbora neurtzea, aldaketak denboraren joanarekin eta iraganeko oroitzapenak atalak bereizten dira. Edukiak, oinarrizko informazioa eta ezaugarri garrantzitsuenak aipatzera mugatzen dira. Gai honetan, iraganeko oroitzapenak atalean aurkitu daiteke kulturartekotasunaren inguruko erreferentzia labur bat.

Bertan, denboraren joanarekin herrietan aldatzen diren eraikin, ohitura eta museoen inguruko aipamen bat egiten da. Horiek denak, herriko historiaren zati bilakatzeaz gain, denborak aurrera jarraitzen duela frogatzeko tresna direla azpimarratzen da.

Amaitzeko, aurrez oinarriztapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak aipatzen zituen beste kulturen inguruko irudikapen negatiboetatik, ondorengoak identifikatu daitezke: bazterkeria eta ahotsak isilarazi edota ukatzea, beste kulturen inguruko informaziorik ez delako apenas agertzen; estereotipoak, herri kulturaren inguruan hitz egitean. Horrez gain, Coelhoren (2016) curriculum eurozentrikoaren ideia ere azpimarratu behar da.

## **Lehen mailako testu liburua**

Lehen mailako testu liburua, besteekin alderatuz gero sinpleagoa da. Lantzen diren gaietan, eduki gutxi aurkitu daitezke eta gehienbat, marrazki eta irudiak agertzen dira testu laguntzaile modura. Hau esanik, zein gai aztertzen diren ikustera pasako da: Jaiak ospatzen ditugu, Auzoa ezagutzen dugu, Honelakoa da nire herria, Bidaia egingo dugu, Airea eta ura, Natura ezagutzen dugu eta Lurra, gure planeta.

**Jaiak ospatzen ditugu** gaian, hasiera batean, Gabonen inguruan hitz egiten da eta ondoren, beste jai batzuk aipatzen dira. Esan bezala, apenas dago edukirik eta eduki horiek, jai bakoitza zertan oinarritzen den azaltzera mugatzen dira. Arreta deitzen duena ondoregoa da: Gabonak eta bestelako jaiak, euskal kulturatik daudela azalduta. Hau da, ematen du hemen bakarrik ospatzen direla jai horiek. Gainera, hemengo jantzi tradizionalak ageri dira eta nahiko tipifikatuta azaltzen da informazioa. Izan ere, alkandoren, soinekoen, blusen, atorren, abarken, txapelen eta trikitixen argazkiak etengabekoak dira

**Auzoa ezagutzen dugu** gaian, auzoen ezaugarriak, zer aurkitu daitekeen bertan eta bide seinaleak aztertzen dira. Beraz, ez dago kulturartekotasunarekin lotura duen edukirik.

**Honelakoa da nire herria** gaian, herri eta hirien ezaugarri desberdinak eta bertako jendartearen bizimodua aztertzen dira. Hemen ere ez da topatu kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik.

**Bidaia egingo dugu** gaian, garraibide eta komunikabide desberdinen inguruan hitz egiten da. Zer diren, zenbat mota dauden eta hauen ezaugarri nagusiak jasotzen dira. Ez dago kulturartekotasunarekin lotutako edukirik.

**Airea eta ura** gaian, airearen eta uraren oinarritzko informazioa aurkezten zaie ikasleei: zerez osatuta dagoen bakoitza eta zein egoeretan aurkitu daitezkeen. Beste behin, ez da topatu kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik.

**Natura ezagutzen dugu** gaian, eguraldia, urtaroak eta paisaiak aztertzen dira. Edukiak, zer diren, zeintzuk osatzen dituzten eta beraien ezaugarriak aipatzera mugatzen dira. Ez da aurkitu kulturartekotasunarekin erlazionaturiko erreferentziarik.

**Lurra gure planeta** gaian, lurra eta eguzkiaren, eguna eta gauaren, ilargia eta izarren eta egutegiaren inguruan hitz egiten da. Bertan agertzen den informazioa, oinarritzko edukietara mugatzen da: zer diren, zein ezaugarri dituzten eta funtsezko

funtzioak. Hemen ere ez da aurkitu kulturartekotasunarekin erlazionaturiko informaziorik.

Santillana argialetxeko testu liburuen azterketarekin amaitzeko, aurrez oinarritzapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak aipatzen zituen beste kulturen inguruko irudikapen negatiboetatik, ondorengoak identifikatu daitezke lehengo mailako testu liburuan: bazterkeria eta ahotsak isilarazi edota ukatzea, beste kulturen inguruko berririk ez delako agertzen; estereotipoak, Gabonak direla eta hemengo kulturak sasoi horretan erabiltzen dituen jantzi tipikoen inguruan hitz egin eta irudikatzerako orduan. Horrez gain, Coelhoren (2016) curriculum eurozentrikoaren ideia ere azpimarratu behar da.

### III.II Eki proiektuko testu liburuak

Eki proiektuko esku liburuen azterketa internet bidez egin da, sarean baitaude eta eskuragarria, lehen mailatik hasi eta seigarren bitarteko testu liburuak, jarduerak buru direlarik. Kasu honetan, lehen aipatu moduan, Gizarte Zientzietakoak aztertuko dira. Hala ere, Eki proiektuan, Ingurunea, Gizarte eta Naturaren Zientziak hartzen dute izen ofiziala.

Behin hau esanda, aipatu behar da, **6. mailan** hiru zatitan banatzen dela liburua. Zati horiek, hiru izenburu desberdin hartzen dituzte: **mundua aldatzen ikusi dut; hobetu dezakegu gure bizitza? etorkizuna eraiki daiteke?**

Lehen zatian, **mundua aldatzen ikusi dut** Naturaren Zientziak lantzen dira gehienbat, lurra, bere sorrera, plaken tektonika, kontinenteak eta urteetan zehar gizakiak bertan egindako kalteak. Ez zaio erreferentzia zuzenik egiten kulturartekotasunari.

Bigarren zatian, **hobetu dezakegu gure bizitza?** izenekoan topatu daitezke ikertzen ari naizenaren inguruko erreferentzien gehiengoa. Hala ere, bi zati desberdintzen direla aipatu beharra dago: alde batetik, Gizarte Zientziak gure kultura Senegalgoarekin konparatuz; bestetik, Natura Zientziak, Giza Gorputza eta honen funtzioak. Guk lehenengo zatian jarriko dugu fokua, Gizarte Zientzietakoan.

Aipatu moduan, konparaketa bat egiten da gure herriaren eta Senegalgo herriaren artean. Tartean, jarduera ugari agertzen dira, konparaketa hori gorpuzten dutenak. Baina jarduerekin hasi aurretik bideo bat dago gaiaren aurkezpen modura. Bideoa egokia da eta beste kulturekiko anaitasun giroa ikus daiteke.

Desegokitasuna ordea jarduerekin batera hasten da. Jarduerak berehala jartzen dute mahi gainean dikotonomia bat: lehen mundua vs hirugarren mundua; aberastasuna vs pobrezia. Van Dijk (2004) egileak aipatzen zuen diskurtsoak polarizatzeko joeraren ezaugarria topatu daiteke. Jarduera hauetan, ez da imajinazio handirik behar herrialde bakoitzari zein toki egokitzen zaion antzemateko.

Jardueren izenburuak ere deigarriak dira. Senegalgo eskola, Senegalgo osasun sistema, Senegal: ura edangarri bihurtzen ... izenburuek bakarrik salatzen dute ondoren etorriko den edukia. Gainera, ikasleei bi herrialdeen arteko konparaketak egiteko errazten zaizkien eskemetan, etengabe aipatzen da informazioa iturri fidagarrietatik lortzeko. Kontraesanetan erortzen da liburu bera, izan ere, beraiek ematen duten informazioa zalantzarria baita eta.

Atal honetako jardueren bitartez garbi ikusten da ikasleei kultura nagusi baten ideologia transmititzen zaiela (Torres, 2008). Kultura hegemoniko nagusi bat, hirugarren munduko herrialde pobre baten ondoan. Gehiago eta hobeagoak garela erakuste zaie, idealak, hemengo arazoak ezkutatu. Eta gainera, gaiaren inguruko guztizko irudi estereotipatua eraikitzen laguntzen die haurrei (Van Dijk, 2004).

Informazio desitxuratu guzti honen artean, ñabardura txiki bat dago. Bertan, Senegalgo kulturaren berri ematen duen informazio urria agertzen da webgunearen iskin batean. Honekin batera, herrialdearen inguruko informazio orokorra ikus daiteke. Jarduera hau ordea, salbuespena da.

Bestalde irudien kontua dago. Irudiak ere testuaren parte dira eta hori gogorazten du gainera Eki proiektuko esku liburuak. Irudien kontuan, jarduera bakar baten izenburuarekin azaldu daiteke hauen gaineko irakurketa: herrialde garatuen eta garatu bidean dauden herrialdeei buruzko argazkiak. Noski, argazkiak erabat estereotipatuta agertzen dira eta Senegalgo herriaren miseriak erakusten ditu "filtrorik" gabe. Ondoren gainera, garatua edo garatu gabea dagoen erantzun behar da.

Horrez gain, orokorrean, senegaldarren argazkietan, beraien bizimodutik hasita erabiltzen dituzten arropak arte, estereotipoak bata bestearen atzetik agertzen dira. Dena pobrezia, garatzeke dauden lurrak, txabolak ... gabeziak besterik ez dira aurkitzen.

Laburbilduz, zati honetan kulturari egiten zaizkion erreferentziak, konparaketa bidezkoak dira baina egiten diren konparaketa horiek oso anbiguoak dira, interpretazio eta imajinaziorako bide zabalegia utziz.



Hirugarren zatian, **etorkizuna eraiki daiteke?** deiturikoan, hemen ere nagusi Naturaren Zientziak dira. Historiaren garai desberdinak kontaktzen ditu, paleolitikotik hasita gaur egun arte. Bertan, batez ere, garai bakoitzeko asmakizunen inguruan jarduten da. Orokorrean, nahiko klasikoa dela esan daiteke historiaren kontaketa. Horri, gehituko nioke, historia pertsona zurien ikuspuntutik joratu eta kontaktzen dela. Hemen ñabardura txiki bat egingo nuke ordea, izan ere, zibilizazio desberdinen inguruan hitz egiten baita. Zehazki, Mesopotamia, Egipto eta Grezia.

Zibilizazioen inguruan, aurrena beti bideo bat agertzen da ikasleak kokatu eta ondoren honen gaineko jarduerak egiteko. Bideo horietan bada, agertzen diren irudiak, oso estereotipatuak direla esango nuke. Batez ere, arropa eta pertsonen jarduerak/lanak deskribatzerako garaian.

Orokorrean, aurrez oinarritapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak aipatzen zituen beste kulturen inguruko irudikapen negatiboetatik, ondorengoak identifikatu daitezke: desberdintasunak vs berdintasunak, Euskal Herria Senegalekin konparatzean; exotismoa, Senegalgo kulturaren alderdiak aztertzerakoan; estereotipoak, Senegalgo arropak edota bizi diren txabolak erakustean; testuaren eta irudien desegokitasuna. Honi, nahiz eta ez erabili modu zuzen bat, gure kulturaren inguruko auto errepresentazio positiboa gaineratu behar zaio.

### **Bosgarren mailako testu liburua**

Seigarren mailakoaren egin antzera, kasu honetan ere esku liburu honen azterketa internet bidez egin da. Berrito, antolaketa bera ageri da, hau da, hiru zatitan agertzen da banatuta: **Bizitza jirabiran, Ikusteko behatu, behatzeko sentitu eta Bizitzak mila kolore**. Esku liburuaren izenak ere, aurrekoak bezala, Ingurunea, Gizarte eta Natuaren Zientziak izena hartzen du.

**Bizitzak jirabiran** atalean, Naturaren Zientziak lantzen dira erabat. Unibertsoaren sorreratik hasten dira eta ondoren, lurra, lurraren mugimenduak, urtaroak, landareak ... ikasten dituzte eta amaieran, herbario bat osatu beharko dute. Kulturartekotasunari, ez zaio erreferentziarik egiten. Tarte egon daiteke beste kulturei erreferentzia txiki bat egiteko, batez ere eguna – gaua eta urtaroak lantzen direnean. Baina ez da horrela gertatzen.

**Ikusteko behatu, behatzeko sentitu** atalean ere Natur Zientziak ageri dira. Animalia eta landareekin hasten dira eta erliebe desberdinekin amaitu. Beraz, atal honetan ere ez zaio kulturartekotasunari erreferentziarik egiten. Erreferentzia hori egiteko aukera badago, izan ere, jarduera batean munduko mapa bat ageri baita

kontinente desberdinekin. Jarduera honetan, kontinente bakoitza, dagokion animaliarekin lotu behar dute.

Jarduera honetatik, zuku handiagoa atera zitekeen baldin eta kultura desberdinetan zein animalia diren garrantzitsuak eta erreferenteak landuko balira. Gauza berbera egin liteke aurrerago lantzen diren landareen arloarekin ere. Baina ez dira gisa honetako jarduera modura planteatzen.

Azken atalean, **Bizitzak mila kolore** izenekoan, Naturaren Zientziak lantzen dira berriro ere bere osotasunean. Kasu honetan, materia eta honen inguruko substantzietan zentratzen dira. Horrez gain, lan sektoreei ere begirada bat ematen zaie. Hemen ordea, ez da aipatzen atzerritarren gehiengoak zein sektoretan lan egiten duen eta nola herrialde garatuek, atzerritarren sortzen duten esku lan merkea behar duten herrialde bezala aurrera egiteko. Hori ez zaie haurrei erakusten, ezta zenbateko etekin ekonomikoa ateratzen duten atzerritarren kontura (Van Dijk, 2004) eta (Morales eta Lischinsky, 2008).

Lan sektoreen barruan, Idiazabalgo gaztaren egite prozesua azaltzen duen bideo bat dago. Hemengo kulturari erreferentzia txiki bat egiten zaio: ardiak, gazta, artzaintza, lehen sektorea. Gure kultura gehiago ezagutzeko aukera izan zitekeen baina azalean geratzen den jarduera batekin ixten da.

Bosgarren mailako testu liburuen azterketarekin amaitzeko, Van Dijk (2004) aipatu eta oinarri teorikoan jaso diren beste kulturen inguruko irudikapen negatiboetatik, hauexek identifikatu daitezke: bazterkeria eta ahotsak isilarazi edota ukatzea, beste kulturen inguruko erreferentziarik ez delako agertzen.

### **Laugarren mailako testu liburua**

Aurreko bi mailako testu liburuen moduan, kasu honetan ere esku liburu honen azterketa internet bidez egin da. Antolaketan, ordea, aldaketa bat ageri da eta hiru zatitan agertu beharrean, lau zatitan dago banatuta: **on egin!; jolas eta jolas; ibilian-ibilian; hartu - emanetan**. Esku liburuaren izenak oraingoan ere, Ingurunea, Gizarte eta Natuaren Zientziak izena hartzen du.

**On egin** atalean, naturaren Zientziak lantzen dira erabat eta etxean sortzen diren hondakinen inguruan dihardu. Hala nola: lizuna, animalien bost erreinuak eta elikatze katea. Kulturartekotasunari ez zaio aipamenik egiten.

**Jolas eta jolas** atala ere, Natur Zientzien adarrekoa da. Kasu honetan, kotxe bat sortu beharko dute haurrek eta horrez gain, trafikoa seinale desberdinak ikasten dituzte. Atal honetan ere ez zaio erreferentzia zuzenik egiten kulturartekotasunari.

**Ibilian- ibilian** atalean soilik agertzen dira kulturartekotasunaren erreferentziak laugarren mailan. Hasieran, Natur Zientzien ikuspegitik lantzen da eta ondoren, Gizarte Zientzietara jauzi egiten da. Ikasleak, esploratzaile bihurtuko dira atal honetan.

Natura Zientzien arloan, ozeanoak, kontinenteak, munduko klimak eta munduko bizidunak aztertzen dituzte. Jardueretara sartu aurretik, gai hauen inguruko bideo bat agertzen da. Interneten, bideoak soilik daude zintzilik hauen inguruko jarduerarik gabe. Beraz, nahiz eta bideoetan agertzen denak kultura eta herrialde desberdinei erreferentzia era egokian egiten dien, ez dago ziurtatzerik kulturartekotasunari nolako trataera ematen zaion jardueretan.

Ozeanoak, kontinenteak, munduko klimak eta munduko bizidunak landu ostean, Gizarte Zientzietara pasatzen dira. Bertan, historiari egiten zaio erreferentzia eta ikasleek, mundu mailan famatuak bihurtu diren esploratzaileei buruzko bideo eta jarduerak dituzte. Zehazki, ondorengo esploratzaileak aztertu beharko dituzte: Roald Amundsen, Neil Armstrong, Charles Darwin, Juan Sebastian Elcano, Robert Falcon Scott eta Valentina Tereshkova.

Esploratzaile guzti hauek ondorengoia dute amankomunean: arraza zurikoak direla eta ia denak gizonezkoak. Berriro ikusten da historiara pertsona zuriak eta kultura nagusietakoak pasa direla. Dirudenez, beste arraza eta kulturatako pertsonak, ez dute aurkikuntza edota ikerketa garrantzizkorik egin (Morales eta Lischinsky, 2008).

Bestalde, liburuan esploratzaile modura ageri dira aurrez aipatu diren izen hauek baina ez zaie kontatzen ikasleei hauetako batzuen egia guztia. Izan ere, horietako batzuk esploratzaile baino kolonizatzaile bihurtu baitziren eta. Hemen garbi ikusten da, ikasleei ezkutatu egiten zaiela esplorazioaren izenean herrialde horietan egin ziren inbasio, indarrezko ebaspen eta sarraskiak (Van Dijk, 2004) eta (Torres, 2008).

Azkenik, **Hartu-emanetan** atala Natur Zientzien arlokoa da erabat. Bertan, animalien ugalketa, haurdunaldia, giza sexu – organoak eta pubertaroko aldaketak lantzen dira. Ez da kulturartekotasunaren inguruko erreferentziarik aurkitu.

Laugarren mailako testu liburua aztertu ondotik, orokorrean aurrez oinarritapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak beste kulturen inguruan aipatzen dituen irudikapen

negatiboetatik, ondorengoak identifikatu daitezke: bazterkeria eta ahotsak isilarazi edota ukatzea, beste kulturen inguruko berririk ez dela ematen; arrazakeriaren ukatzea, kolonialismo garaian berri ematerakoan.

### III.III Txanela proiektuko testu liburuak

Txanelari proiektuari dagokionean, Lehen Hezkuntzako 1. 2. eta 3. mailako testu liburuak aztertu dira. Azterketa, betiko galdera eragileari jarraituz egin da: Nola agertzen da kulturartekotasuna?

Txanela proiektu esku liburuak ezin izan ditut fisikoki lortu baina hauen azterketa internet bidez eginda. Zehazki ikaslearen liburuko material globalizatua aztertu da. Hemen azpimarratu behar da, Ingurunea edota Gizarte zientzien ikasgairen izena hartzen duela Txanelak eta bertan agertzen diren gai ezberdinak aztertu direla.

Orokorrean, maila bakoitzean, zortzi bat gai desberdin lantzen dira. Maila guztietako liburu bat ordea gaineratik aztertu da baina lanean ez da jaso, izan ere, kurtsuan zehar ikasitako gaien inguruko berrikusketa egiten delako.

#### Hirugarren mailako testu liburuak

Hirugarren mailako testu liburuak, zazpi gai desberdinetan banatzen dira: **Gure txoko kuttuna; Egipto! Nilo ibaiaren oparia; Urte askoan, txapela kaskoan; Xangai Xian Xi, txinatarrekin ederki!; firin- faran airea dantzan; Buruargia? Bizkorra? Zein jakintsua den natura!**

**Gure txoko kuttuna** izeneko gaietan, herria da hizpide nagusi. Zein lekutan kokatzen den zure herria Euskal Herrian, zein ezaugarri dituen, herriko auzoak, herriak eskaintzen dituen zerbitzuak eta herrian bizi direnen artean sor daitezkeen arazoak aztertzen dira. Kulturartekotasunari bi erreferentzia egiten zaizkio. Alde batetik, Teseo eta Minotauoren ipuina irakurri behar dute ikasleek (ez dago eskuragarri) eta honen inguruan planteatzen diren galderak erantzun. Beste aldetik, herriaren kokapena Euskal Herrian egin behar dutenean, Euskal Herriko mapa politikoa aztertzen da. Beste behin, Coelhok (2016) azpimarratutako curriculum eurozentrikoaren ezaugarria topatu daiteke.

**Egipto! Nilo ibaiaren oparia** gaietan, Egipto aztertzen da. Zehazki ondorengo edukiak lantzen dituzte ikasleek: kokapena, munduko maperen bitartez; bizimodua, eginkizun nagusienak laburtuz; hezkuntza eta hizkuntza, idazkera hieroglifikotik,

idazkera hieratikorako saltoa; gizarte- antolaketa, esklabuetatik hasi eta faraoiekin amaituz; jainkoak eta eraikinak, jainko nagusienak eta piramideak jasoaz.

Kulturartekotasunari erreparatuz gero, Egiptoko kulturaren alderdi nagusienak aztertzen dira, tipikoenak. Hauen inguruan eskaintzen den informazioa, ordea, egokia da, ez da arrazakeriaren edota beste kulturen gutxiespenean erortzen. Hori bai, antzinako Egiptoko kulturaren berri ematen du eta ez gaur egungoari buruz. Bestalde, hobetzekotan irudien kontua legoke. Irudiak marrazkiak dira, antzinakoak eta ondorioz ez daude eguneratuak. Irudi hauetan batez ere arrokek ematen dute arreta, nahiko estereotipatuak agertzen baitira eta.

**Urte askoan, txapela kaskoan!** gaian, burua eta garuna, gorputza, zentzumenak eta prebentzio neurriak lantzen dituzte ikasleek. Edukiak, kontzeptu bakoitza zer den, zein ezaugarri osatzen duten eta oinarritzko informazioa ematera mugatzen dira. Beraz, informazioa azalekoa dela esan daiteke eta ez da topatu kulturartekotasunarekin lotutako edukirik.

**Xangai Xian Xi, txinatarrekin ederki!** gaian, Txina aztertzen da. Lehenik, munduko mapa baten bitartez, bere kokapena erakusten da eta ondoren, Txina bi garai desberdinetan banatzen da: antzinako Txina eta gaur egungo Txina. Orokorrean, Txinako kulturaren oinarritzko informazioa agertzen da eta informazioa era egoki batean jaso dago. Beste behin, atalen batean kenduta, ez da topatu estereotiporik edota kultura gutxiesteko joerarik. Behin hau esanda, bi aro desberdinetan zein informazio aurkezten den aztertzea pasako da.

Antzinako Txinan, lehenik, bere historiaren berri ematen da eta boterea izan duten Dinastia ezberdinak lantzen dira. Ondoren, asmatzaile handiak izan direla aipatzen da liburuan eta beraiek egindako asmakizun desberdinak aurkezten dira. Besteak beste, inprenta eta papera. Amaitzeko, Txinan hitz egiten diren hizkuntza desberdinak jasotzen dira eta erabiltzen den idazkera aztertzen dute ikasleek. Atal honetan ez da topatu informazio desegokirik.

Jarraian, Gaur egungo Txina aztertzea pasatzen dira ikasleak eta hasteko, demografia, ibai eta mendi nagusiei buruzko informazioa ikasten dute. Ondoren, bertako sukaldaritza eta osasuna (akupuntura eta sendabelarrak) aztertzen dira. Azkenik, dantzatzen den artea, janzkera eta makillajea lantzen dira. Azkeneko puntu honetan topatu dira, estereotipoak. Tai Chia, bitxikeria moduan egiten den dantza bezala aurkezten da eta janzkera berriz, tipikoa, tradizionala. Ematen du, gaur egun ere denak jantzi horiekin ibiltzen direla. Gainera, irudiek ere ez dute askorik laguntzen,

izan ere, irudien gehiengoetan, jantzi tradizionalak dituzten marrazkiak ageri dira. Arriskua dago, Van Dijkek (2004) esan moduan, gaiaren inguruko irudi estereotipatua eraikitzeko.

**Firin – faran airea dantzan** izeneko atalean, laborategia, airea eta bizidunak, haizea eta airearen kutsadura lantzen dira. Bertan agertzen diren edukiak oinarritzko ezagutzak transmititzera mugatzen dira: zer den kontzeptu bakoitza, zerk osatzen duten, zein diren beraien ezaugarri nagusiak eta egun zein egoeretan topa daitezkeen. Ez da kulturartekotasunarekin lotutako informaziorik aurkitu.

**Buruargia? Bizkorra? Zein jakintsua den natura!** atalean, ekosistemak lantzen dira. Ekosistemaren barnean, animalia eta landareak aztertzen dira eta hauen bizi lekuen inguruko ezaugarriak. Kulturartekotasunari dagokion erreferentzia bat hasiera – hasieran bilatu daiteke. Bertan, ekosistema – anitz munduan izenburupenean, animalia eta paisaia ezberdinak ageri dira munduko mapa batean eta ikasleek, animalia edota paisaiak, dagokion herrialdearekin lotu behar dituzte. Hortik aurrera, ez da bilatu kulturartekotasunarekin lotutako informaziorik.

Amaitzeko, aurrez oinarritapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak aipatzen zituen beste kulturen inguruko irudikapen negatiboetatik, ondorengoak identifikatu dira: estereotipoak, Egipto edota Txinako kulturaren erabiltzen diren jantziak aipatzerako orduan; exotismoa, Tai Chia azaltzeko erabiltzen den moduagatik. Horrez gain, Coelhoren (2016) curriculum eurozentrikoaren ideia ere azpimarratu behar da.

### **Bigarren mailako testu liburuak**

Bigarren mailako testu liburuei dagokienez, zazpi gai desberdinetan tratatzen dira: **Zein txikia jaiotzen!; Nolako txabola!; Boga – boga marinela; Hamar, bederatzi, zortzi, zazpi, sei...! Makina matxuratuta! Goazen mekanikariarengana!; Gora Gutenberg! gora Marconi!; Goazen mendira!**

**Zein txikia jaiotzen atalean**, autobiografia bat egiten ikasten dute ikasleek. Autobiografia hori egiteko, beharrezkoak diren elementuak doaz pixkanaka – pixkanaka barneratzen. Elementu nagusietako bat eta protagonismo handia hartzen duena familia da. Zer den familia, zeintzuk osatzen duten eta nola osatzen den aztertzen da. Zuhaitz genealogiko bat egiten ere ikasten dute. Gai honetan, kulturartekotasunaren inguruko erreferentzia txiki bat familia motetan aurkitu daiteke. Bertan aipatzen da, azkeneko urteetan haur adoptatuen kopuruak gora egin duela eta balitekeela, haur hauetako bat herrialde desberdin batekoa izatea.

**Nolako txabola!** izeneko gaian, Erdi Aroa lantzen da. Bertan ondorengo edukiak jorratzen dira: gizartearen antolaketa; nobleziaren, kleroaren eta herri xehearen bizimodua; nola sortu ziren gaur egungo herriak. Kulturari egiten zaizkion erreferentziak, batez ere eraikinetara (gaztelu eta dorretxeetara) mugatzen dira. Gainera, Euskal Herrikoak soilik aztertzen dira. Bestalde, nola sortu ziren gaur egungo herriak izeneko edukiak aztertzen direnean, bakoitzaren herriaren inguruko ikerketa bat egitera bultzatzen ditu ikasleak, bertako sorrera, pertsonai famatuak eta eraikin nagusiak aztertzeraz gonbidatuz.

**Boga – boga Marinela!** gaian, ikasleak itsasoan murgiltzen dira. Zehazki, balea, itsasoko bidaiak, piratak eta gure itsasoko espezien inguruan hitz egiten da. Balea lantzen dutenean, zein animalia mota den, antzina balea harrapatzeko ematen ziren urratsak eta ehiza honen garrantzia aztertzen dute ikasleek. Atal honetan, gure arbasoen aipamen labur bat egiten da eta hauek, balea ehizatzeraz joaten zirela jasotzen da, gehiagorik sakondu gabe.

Ondoren, bidaiak handiekin batera, zientziaren aurrerapen eta aurkikuntza handiak etorri zirela aipatzen da liburuan eta lau nabigatzailearen izenak ematen dira: Cristobal Colon, Vasco de Gama, Fernando Magallanes eta Andres Urdaneta. Beste behin, zientzia eta aurkikuntzen izenean, kolonialismoa zurrizko ahalegina topatu daiteke. Izan ere, pertsonai hauek egin zituzten aurkikuntzak soilik jasotzen dira, ez baina herrialde horietan egin ziren inbasio, indarrezko ebaspen eta sarraskiak (Van Dijk, 2004) eta (Torres, 2008).

Gaiarekin amaitzeko, piratak eta gure itsasoan topatu daitezkeen espeziak aztertzen dira, oinarritzko ezaugarri eta informazioa aurkeztuz.

**Hamar, bederatzi, zortzi, zazpi, sei...!** atalean, unibertsoa da aztertzen den gai nagusia. Eguzkiari, eguzki – sistemari, lurrari, planetari eta ilargiari buruzko edukiak topatu daitezke. Bertan, oinarritzko informazioa agertzen da. Atal honetan, kulturartekotasunaren inguruko erreferentzia labur bat bilatu da. Bi orrialde eskasetan, lurreko kontinenteak, Europako herrialdeak eta Euskal Herriko probintziak agertzen diren mapak aztertzen dituzte ikasleak.

**Makina matxuratuta! goazen mekanikariarengana!** gaian, lana da hizpidegai. Bakoitzaren gurasoek zein lan mota egiten duten, zein produktu dauden eta hauek zein zerbitzu eskaintzen dituzten, galletak ekoizteko prozesua, produktuen etiketak, sortzen diren hondakinak eta birziklapena aztertzen dira. Edukiak, oinarritzko informazioa ematera mugatzen dira. Ez da topatu kulturartekotasunarekin loturiko erreferentziarik.

**Gora Gutenberg! gora Marconi!** gaian, komunikazioa eta komunikabideak aztertzen dituzte. Hala nola: komunikatzeko modu desberdinak, prentsa idatzia, telebista eta irrata. Bertan eskaintzen den informazioa oso orokorra da. Kulturartekotasunari erreferentziak bi momentu laburretan topatu dira. Batean, hizkuntza desberdinak aztertzen dituzte eta hizkuntza horietan hitz jakinak nola esaten diren ikasten dute ikasleek. Bestean berriz, antzinako Indioak eta Afrikako zenbait tribu nola komunikatzen ziren aztertzen da. Hemen, hauen irudiak, marrazkiz eginda beste behin, estereotipatuta ageri dira, gerripeko eta apaingarri xelebreekin.

**Azken gaian, Goazen Mendira!** izenekoan, mendira joateko ibilbide bat prestatu behar dute ikasleek. Ibilbide horretan, agertu daitezkeen eraikin, animalia eta landareen ezaugarriak biltzen ikasten dute azalpen fitxa desberdinak prestatuz. Ez da kulturartekotasunarekin loturiko edukirik topatu. Nabarmendu behar da, gaian zehar agertzen den paisaien gehiengoa, Euskal Herrikoa dela.

Hori esanik, bigarren mailako testu liburuan, aurrez oinarritapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak aipatzen zituen beste kulturen inguruko irudikapen negatiboetatik, ondorengoak identifikatu dira: bazterkeria eta ahotsak isilarazi edota ukatzea, ez delako apenas beste kulturen inguruko berririk ematen; estereotipoak, Indioen eta Afrikako tribuen irudiak erakustean; arrazakeriaren ukatzea, kolonialismo garaia azalez kontatuz. Horrez gain, Coelhoren (2016) curriculum eurozentrikoaren ideia ere azpimarratu behar da.

### **Lehen mailako testu liburuak**

Lehen mailako testu liburuek, zazpi gai desberdin aztertzen dituzte: **lupi, lehenengo mailan gaude! Sorpresa! Dinosaurioen garaiak; Lehen gizakiak; Gorputza zain dezagun! Greziatik Erromara; Naturaren sekretuak!**

**lupi lehenengo mailan gaude!** atalean, informazio orokorra agertzen da. Hau da, norbere buruaren deskribapena egiteko informazioa, gelako ikasleen argazkiak eta sinadurak biltzeko jarduera, ikasleen urtebetetzeak egutegian jasotzeko modua, klaseko ordutegia egiteko informazioa eta ardura banaketaren fitxa. Ez da topatu kulturartekotasunarekin erlazionaturiko edukirik.

**Sorpresa!** izeneko gaian, ikasle bakoitzak bere denboraren makina sortzea proposatzen da, liburuak eskaintzen dituen jarduera desberdinak eginez. Ez da kulturartekotasunarekin erlazionaturiko edukirik topatu.



**Dinosauroen garaian!** atalean, aurreko gaian sorturiko denboraren makinaren bidez, dinosauroen garaira bidatuko dute ikasleek. Bertan, dinosauriak zer ziren, dinosauro desberdinak eta hauen ezaugarri nagusiak jasotzen dira. Ez da topatu kulturartekotasunarekin erlazionaturiko edukirik.

**Lehen gizakiak gaian,** lehen gizakien inguruko informazioa aztertzen dute ikasleek. Zehazki, beraien janzkera, non bizi ziren, zer jaten zuten eta zein tresna erabiltzen zituzten. Bestalde, Euskal Herriko haitzulo garrantzitsuenak jasotzen dira, bertan agertu ziren margolan nagusiekin. Beste kulturetako informaziorik, ordea, ez da topatu.

**Gorputza zain dezagun!** gaian, gorputza eta janaria dira hizpidegai nagusi. Bertan, gorputzeko atalak, gorputzeko aparatu eta sistemak, jaki osasuntsuak eta gorputza zaintzeko edukiak ikasten dituzten ikasleek. Beste behin, ez da topatu kulturartekotasunarekin erlazionaturiko erreferentziarik.

**Greziatik Erromara** gaian, antzinako Grezia eta Erroma aztertzen dituzte ikasleek. Greziari dagokionez, bere kokapena, greziarren bizimodua, Miroren diskobola eta Greziako kondairak (Troiaiko zaldia, Midas erregea, Atalanta eta urrezko sagarrak eta Pigmalion eta Galatea) ikasten dituzte. Ez dago apenas edukirik. Ia denak marrazkiak dira eta informazioa, aipamenetara soilik mugatzen da. Ez da sakontzen eta ikasleak, azaleko informazioarekin geratzen dira. Beste behin, marrazkien bidez irudikatutako irudiak, nahiko estereotipatuak agertzen dira.

Erromatarrei buruz agertzen den informazioa bide beretik doa. Kasu honetan, erromatar inperioaren kokapena, Romulo eta Remoren artelana, erromatarren bizimodua, erromatarren eraikuntza nagusiak eta erromatarren garaiko hiriak gure inguruan (mapa bidez adierazita) aztertzen dituzte ikasleek. Berrito, eskaintzen den informazioa oso azalean geratzen da. Izan ere, edukiak oso laburrak dira eta ia dena, marrazkien bidez aurkezten baita. Informazioren bat agertzen bada, greziarren antzera, aipamenean soilik geratzen da.

**Azken gaian, Naturaren sekretuak!** izenekoan, natura da aztergai nagusi. Bertan, naturan dauden izaki bizidunak eta izaki bizigabeak aztertzen dira. Behin hauen inguruko jakintzak eskuratzen dituztenean, liburuak inguruko parke batera irteera egitea proposatze du. Irteera horretan, izaki bizidun nahiz bizigabeen inguruan ikasitakoak jaso beharko dituzte ikasleek. Ez da topatu kulturartekotasunarekin loturiko erreferentziarik.

Txanela proiektuko testu liburuen azterketarekin amaitzeko, aurrez oinarritzapen teorikoan Van Dijk (2004) egileak aipatzen zituen beste kulturen inguruko irudikapen negatiboetatik, ondorengoak identifikatu dira lehen mailako testu liburuan: bazterkeria eta ahotsak isilarazi edota ukatzea, beste kulturen inguruko informaziorik ez delako agertzen; estereotipoak, Greziako eta Erromako irudietan. Horrez gain, Coelhoren (2016) curriculum eurozentrikoaren ideia ere azpimarratu behar da.

#### **IV. ERANSKINA: Saio bakoitza aurrera eramateko beharko den informazio eta materiala**

##### 1. Saioa

#### **GALDETEGIA 20 min**

Ikasleek banaka jarraian aurkezten diren galderari erantzun beharko diete:

Deskribatu zure burua hitz bakar batekin.

Zer dakizu aurkeztu den gairen inguruan?

Zer esanahi du zuretzat kulturak?

Aipatu zure kulturaren ezaugarri bat.

Bizi zaren lekuan zure kultura nagusia al da?

Ba al dituzu beste kultura batekoak diren lagunak?

Lagun berriak egiterakoan, zein ezaugarritan zentratzen zara?

Zein ezaugarri baloratzen duzu gehien lagun batetik?

Zerk molestatzen dizu gehien pertsona batekin harremanetan jartzerakoan?

Zein herrialdeetako lagunak izatea gustatuko litzaizuke? Zergatik?

Zein herrialdeetako lagunak ez izatea gustatuko litzaizuke? Zergatik?

Zer gustatzen zaizu gehien klase-kideetatik? Eta gutxien?

Azaldu hausnartzera bultzatu eta benetan zuregan aldaketa bat eragin duen egoera bat.

Aipatu zure egunerokotasun hurbilean salatu / kritikatzeko duzun egoera bat.

Beste herrialderen batera bidaiatu al duzu?

Zein lurraldetara gustatuko litzaizuke bidaiatzea? Zergatik?

Ba al dago bidaiatuko ez zenukeen herrialderik? Zergatik?

Beste kulturetako ohiturak ezagutzen dituzu?

Zer espero duzu bost egun hauetan landuko den gaiaren inguruan?

## 2. Saioa

### Irudiak aztertzen (20min)

1) Aztertu behean agertzen den irudia eta erantzun ondorengo galderi:



Google irudiak (1)

- A) Deskribatu irudian agertzen dena.
- B) Zein herrialdeetan kokatuko zenuke argazkia? Zergatik?
- C) Garatuta edo garatzeke dagoen herrialde dela esango zenuke? Zerk eramaten zaitu hori pentsatu eta erabakitzera?

2) Aztertu behean agertzen den irudia eta erantzun ondorengo galderi:



Google irudiak (2)

- A) Deskribatu irudian agertzen dena.
- B) Zein herrialdetan kokatuko zenuke argazkia? Zergatik?
- C) Garatuta edo garatzeke dagoen herrialde dela esango zenuke? Zerk eramaten zaitu hori pentsatu eta erabakitzen?

3) Aztertu behean agertzen den irudia eta erantzun ondorengo galderi:



Google irudiak (3)

- A) Deskribatu irudian agertzen dena.
- B) “Lehen munduko” edo “hirugarren” munduko argazkia zela esango zenuke? Zergatik?

4) Aztertu behean agertzen den irudia eta erantzun ondorengo galderari:



Google irudiak (4)

- A) Deskribatu irudian agertzen dena.
- B) Erreparatu kaleetako txukuntasunari soilik eta erantzun ondorengo: “Lehen munduko” edo “hirugarren” munduko argazkia zela esango zenuke? Zergatik?

5) Aztertu behean agertzen diren irudiak eta erantzun ondorengo galderei:



Google irudiak (5)

- A) Deskribatu bi irudiak.
- B) Desberdintasunen bat ba al dago? Zergatik?

**Ematen diguten informazioa aztertzen (25min)**

**Albistea:** Zurrumurrak desegiten

**“Etorkin gehiegi ditugula”** entzuten dugu... baina Euskadin dagoen etorkin kopurua uste duguna baino hiru aldiz txikiagoa da, ikerketen arabera.

**“Etorkinek gizarte-laguntza gehiegi jasotzen dituztela”** entzuten dugu... baina, esaterako, atzerritarren %7ak soilik jasotzen ditu sei urte baino gehiago irauten duten laguntzak; hau da, bertakoek baino sei aldiz gutxiago.

**“Etorkinek matxismoa areagotzen dutela”** entzuten dugu... baina, adibidez, Latinoamerikakoemakumeek egindako lanei esker ahaldundu ahal izan dugu bertako emakumeok, neurri batean.

Eta behin eta berriz esaten digute **“etorkinen erruz lan baldintzak kaxkartzendizkigutela”**... baina pozik egongo al dira etorkinak, bertakoei baino



gutxiago ordaintzen zaielako?

<https://egk.eus/eu/zurumuruak-desegiten/>

**Abestia**

<https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/bideoak/osoa/6178435/bideoa-bastidako-herri-ikastetxean-arrazakeriaren-aurkako-abesti-sortu-dute/>

**Bideoa**

<https://www.youtube.com/watch?v=5bYmtq2fGmY>